

FONTES
LINGVÆ
VASCONVM
STVDIA ET DOCUMENTA



FLV, 50 years

New methods
and trends in
(Basque) linguistics

Abstracts

Nafarroako
Gobernua  Gobierno
de Navarra

FLV, 50 ans

Nouvelles méthodes
et tendances en
linguistique (basque)

Résumés


euskarabidea

Table of contents / Table des matières

Plenary talks / Conférences plénières.....	5
New paths in (Basque) Philology / Nouveaux chemins de la Philologie (Basque)	7
Names and languages. Onomastics, a device for a better understanding of our linguistic past / Noms et langues. L'onomastique, instrument pour mieux connaître notre histoire linguistique.....	13
Theory of grammar for Basque (and vice versa) / Théorie de la grammaire dans la langue basque (et vice versa).....	19
Studies of Basque Literature in the 21st century: diagnosis and challenges / Étude de la littérature basque au XXI ^e siècle : diagnostic et défis.....	31
Training teachers to teach oral Basque / Formation des professeurs pour l'enseignement de la langue basque orale.....	41
Questioning the dichotomy between native and non-native speakers of Basque: types of speakers, language practices and ideologies around Basque in the 21st century / Débat sur la dichotomie locuteurs natifs / non-natifs : types de locuteurs, pratiques linguistiques et idéologies dans le contexte de la langue basque au XXI ^e siècle	51
The Basque language in typological perspective / La langue basque en perspective typologique	59
The itinerary of dialectology in relationship with neighbouring disciplines / Le parcours de la dialectologie en relation avec les disciplines de connaissance similaires	65
«The study of the history of Basque can be an example to the study of other isolated languages» and we hadn't realised it? / « The study of the history of Basque can be an example to the study of other isolated languages » et nous, nous l'ignorions ?	71

Plenary talks / Conférences plénières

“Fontes Linguae Vasconum. Orígenes y documentos para una historia del euskara”

Joaquín Gorrochategui (UPV/EHU)

Teniendo en cuenta la doble acepción del término fontes, que da nombre a la revista, –la de origen y la de documento escrito–, se repasarán las aportaciones más significativas de los últimos decenios en las disciplinas que tratan de ambas cuestiones, por un lado de la prehistoria y protohistoria de la lengua, basada en la reconstrucción y comparación lingüística, y por otro de la historia del euskara, basada en documentos. El periodo ha sido rico en hallazgos de nuevos documentos y fuentes con que mejorar nuestro conocimiento de la historia del euskara. Ha tomado cuerpo una fase y variedad de la lengua en el territorio vascón antiguo y el hallazgo del manuscrito de Lazárraga ha cambiado por completo nuestro conocimiento del euskara del s. XVI. Una intensa actividad filológica, centrada tanto en la edición crítica de textos clásicos como en la de textos inéditos de diferente época, los estudios sobre onomástica medieval, sobre grafías, monografías sobre diversos periodos o aspectos gramaticales, como el verbo o el artículo, han proporcionado datos y reflexiones necesarias para establecer una periodización de la lengua y redactar la primera Historia de la Lengua Vasca (2018) de carácter global. En esta sucinta presentación comentaremos especialmente los datos más antiguos de la lengua, en el contexto de las lenguas paleohispánicas.

Por medio de la reconstrucción interna y con la ayuda de la tipología holística y la teoría de la gramaticalización Lakarra ha propuesto un protovasco más antiguo y diferente del clásico de Michelena, al tiempo que se ha ido asumiendo la sugerencia micheleniana de un vasco común antiguo formado en la tardo-antigüedad. Ello abre un espacio interesante para estudiar las relaciones entre ambas fases, la posición del aquitano y vascón antiguo, la naturaleza de ese vasco común antiguo y el proceso de fragmentación de la unidad y la creación de los dialectos vascos históricos. Tampoco han faltado propuestas de parentesco, destacando la novísima de Blevins a favor de una familia euskaro-indoeuropea, al tiempo que la tradicional teoría vasco-iberista se ha visto reavivada con nuevas hipótesis.

Cuando la lingüística histórica encontró al neolatín

Lola Pons (Universidad de Sevilla)

Más allá de los cambios lingüísticos que por vía patrimonial y uso vernáculo dan curso a estructuras y léxico desde el latín a las lenguas romances, hay otro importante grupo de procesos en los que la estructura fuente ha estado en el latín libresco. La huidiza etiqueta de *latinismo* y la aún más compleja de *cultismo* han servido para denominarlos en la filología románica del siglo XX. Desde la perspectiva de la moderna lingüística de las variedades de inspiración coseriana y con el asiento sociolingüístico con que hoy se estudia el cambio en la lengua, llamamos a estos procesos lingüísticos *cambios por elaboración* y los describimos como cambios difundidos *de arriba hacia abajo*.

Con todo, en la investigación sobre esta clase de cambios, parece atenderse más al latín clásico o al latín tardío de los siglos V y VI como punto de partida. Trabajos recientes sobre estructuras topicalizadoras, marcadores discursivos de cohesión textual y piezas léxicas concretas obligan a revisar esta idea y a considerar la Romania como un espacio comunicativo de convivencia con el latín hasta la Edad Contemporánea. En esta presentación ofreceremos muestras de las consecuencias

metodológicas y teóricas de este acercamiento: i) observando hasta qué punto hay que ligar latín tardío medieval y neolatín (el posterior al XVI) en el *locus* de los cambios; ii) apuntando a la fuente textual de muchos de estos procesos (el latín administrativo y el latín científico, de uso compartido en Europa hasta el siglo XVIII); y iii) planteándonos cómo ligar la explicación vía gramaticalización del surgimiento de determinadas partículas discursivas con el hecho de que muchas de ellas hayan sido transplantadas directamente desde el latín. Se tomarán ejemplos, mayoritariamente desde el castellano, para mostrar hasta qué punto hay que reconsiderar dentro de la lingüística histórica el aliento latino como introductor de piezas discursivas hasta el siglo XVII.

La lingüística histórica: El estado actual

Lyle Richard Campbell (University of Hawaii)

El propósito de esta conferencia es revistar los desarrollos recientes y los temas más candentes en la lingüística histórica actual. También haré referencia a los artículos publicados en *Fontes Linguae Vasconum* durante los últimos 15 años sobre este tema. Asimismo, presentaré un informe sobre la vitalidad de la lingüística histórica actual. El resultado de dicho informe muestra que dicha vitalidad es bastante mayor ahora que cuando se hizo la misma clase de investigación hace 16 años.

Daré cuenta de los desarrollos recientes más prometedores, criticando a la vez algunos trabajos en las áreas más activas. Abordaré también las cuestiones sobre el número de familias en el mundo, y la cantidad de lenguas aisladas.

Comentaré las hipótesis de parentesco lejano entre familias lingüísticas, inclusive el vasco (euskera); las dificultades con las áreas lingüísticas (*Sprachbünde*); los problemas con los estudios que tratan de correlacionar lenguas y genes; las complicaciones con los nuevos enfoques que aplican métodos cuantitativos filogenéticos derivados de la evolución biológica a la clasificación de lenguas, y otras cuestiones de lingüística histórica.

Defenderé que no todas las áreas de alta actividad en lingüística histórica han proporcionado contribuciones válidas; sin embargo, podemos ser optimistas sobre el futuro de esta disciplina. Seguro que *Fontes Linguae Vasconum* seguirá contribuyendo con temas valiosos en este campo.

WORKSHOP / SÉMINAIRE 1

New paths in (Basque) Philology / Nouveaux chemins de la Philologie (Basque)

Director / Directrice: Blanca Urgell (UPV/EHU)

50 años no es nada: retos y logros de la Filología Vasca desde 1969

Blanca Urgell (UPV/EHU)

Desde el primer número, la revista *Fontes Linguae Vasconum (FLV)* ha sido testigo y no pocas veces protagonista del devenir de la Filología Vasca, que en estos años ha pasado de ser tarea de unos pocos, con frecuencia por amor al arte, a convertirse en materia académica y a segmentarse en varias disciplinas. En esta presentación, de acuerdo con el espíritu del seminario en que se inserta, nos serviremos de una definición más restrictiva y actual del término “Filología”, entendiendo por tal la especialidad que se ocupa de descubrir, estudiar, verificar e interpretar los textos.

Nuestro objetivo será trazar una pequeña historia de la Filología Vasca desde 1969 hasta hoy, haciendo especial hincapié en los hitos de *FLV*, además de hacer un balance de los logros del pasado y los retos del presente. Así pues, por una parte, recordaremos los esfuerzos realizados para localizar y dar a conocer nuevos textos que completen el corpus textual vasco antiguo y, por otra, repasaremos las líneas de investigación encaminadas a su mejor conocimiento desde el punto de vista de la historia de la lengua.

Zergatik uztartu behar diren filologia eta dialektologia: goi-nafarrerazko testu zaharren ekarpena

Urtzi Reguero (UPV/EHU)

Hizkuntzaren zeinahi alderdi aztertu nahi duen hizkuntzalariak bere irizpideak erabiltzen ditu. Dialektologoak ere bereak finkatzen ditu aztertu nahi duen dialektoaren edo hizkeraren eremu geografikoa eta kronologia mugatzeko. Mitxelenak (1981: 518) erosotasuna ikusten zuen, batez ere, muga kronologikoak finkatzeko arrazoi nagusi.

Gure artean maiz egiten diren dialektologia lanetan askok XX. mendearen hasieran jarri ohi dute hasierako muga, eta askotan lehenago zer zegoen ez da begiratzen. Egungo euskararen edo dialektoaren irudi bat erakutsi nahi da. Edonola ere, XX. mendeko euskara XIX. mendekoaren jarraipena da, hori XVIII. mendekoaren jarraipena den bezalaxe. Beraz, dialektoaren bilakabidea ulertuko badugu, testuak aztertu behar dira, halaberrez. Bide horretatik, azken urteetan testu zaharrak aintzat hartzen dituen dialektologia diakronikoa indarra hartzen ari da gurean ere (ik. adibidez Camino 2008, 2011, 2013, Ulibarri 2015, Padilla 2017, Reguero 2017).

Komunikazio honetan euskalkien eta euskararen beraren eboluzioa ulertzeko, filologiak betetzen duen paperaz aritu nahiko nuke. Hizkuntzaren bilakaera ezagutzeko, garai zaharrenetan testu idatziak dira iturri bakarra, eta maiz iturri horiek ez dira erabat fidagarriak. Hartara, filologiak eskaintzen dituen armarik zorrotzenak baliatu behar dira testuak behar bezala finkatzeko, hortik hizkuntzaren historiarako datu interesgarri eta baliagarriak aterako badugu.

Hartara, komunikazio honetan goi-nafarreraz idatzitako testu zaharrek euskalkiaren bilakabidea ulertzeko emandako gakoek hitz egin nahiko nuke, eta horrekin batera Reguero (2017) lanean Schneiderren (2002) bidetik jarraituta proposatutako testuen fidagarritasun eskala aurkeztuko nuke.

Bibliografia

- Camino, Iñaki, 2008, “Dialektologiaren alderdi kronologikoa”, *FLV* 108, 209-247.
- Camino, Iñaki, 2011, “Ekialdeko euskararen iraganaz”, in Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehen eta oraina*, UPV/EHU, Bilbo, 87-153.
- Camino, Iñaki, 2013a, “Euskalkien historia: Lapurdi eta Nafarroa Garaia”, in Gómez, Ricardo; Gorrochategui, Joaquín; Lakarra, Joseba A. & Céline Mounole (arg.), 2013, *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra – III Congreso de la Cátedra Luis Michelena – 3rd Conference of the Luis Michelena Chair*, UPV/EHU, Gasteiz (arg.), 77-140.
- Mitxelena, Koldo, 1981, “Lengua común y dialectos vascos”. Berrargit. in Mitxelena, 2011, *Obras Completas VII* (al cuidado de Joseba A. Lakarra e Iñigo Ruiz Arzalluz), *ASJUren gehigarriak*, 15 liburuki, Donostia – Gasteiz, 517-543.
- Padilla, Manu, 2017, *Zubereraren azterketa diakronikoa (XVI-XIX. mendeak). Analyse diachronique du dialecte souletin (XVIe-XIXe siècles)*, doktorego-tesia.
- Reguero Ugarte, Urtzi, 2017, *Goi-nafarrera arkaiko eta zaharra: azterketa eta testua*, doktorego-tesia.
- Schneider, Edgar W., 2002, “Investigating Variation and Change in Written Documents”, in J. K. Chambers, P. Trudgill & N. Schilling-Estes (arg.), *The Handbook of Language Variation and Change*, Blackwell, Australia, 67-96.
- Ulibarri, K., 2015, *Dotrinazko Sermoitegia: galduriko bizkerak eta dialektologia historikoa*. Doktorego-tesi argitaragabea [Zuz.: Blanca Urgell].
- Urgell, B., 2013, “Euskal Filologia. Zer (ez) dakigu 25 urte beranduago?”. In Gómez, R., J. Gorrochategui, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. biltzarra*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU, 533-570.
- Urgell, B., 2018, “Lehen Euskara Modernoa”. In Gorrotxategi, J., Igartua, I. & Lakarra, J.A. (arg.), *Euskararen historia*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 543-658.
- Uribe-Etxebarria, O., 2008, “*Euskerazko doktrina Anzuelako berba moduan* (1825)”. *ASJU* XLII-2, 139-209.
- Uribe-Etxebarria, O., 2011, “*Gatzagako Cristau-doktrina* (1862): edizioa”. *ASJU* XLV-1, 139-219.

Isasti Etxepare “kantatzen”: testua eta kontestua

Koldo Ulibarri (UPV/EHU)

Isastiren *Compendioko* euskal materialen artean B. Etxepareren liburuan diren bertsoak daudela aspalditik da ezagun. Ezagunak izanik ere, lezoarraren gainontzeko euskal testuak ez bezala, bertso hauek gutxitan hartu ditu kontuan euskalaritzak (cf. *TAV* eta Reguero 2017: § 2.2.19), Etxepareren lanaren gaineko ezagutzaz hitz egiteko anekdota moduan ez bada. Izan ere, Isastiren bertso hauen (eta XX. mende hasieran bilduriko beste bertsoen, cf. Altuna 1981: 325) jatorria biltzeko erabili izan den argumentua izan da Etxepare herri poeta bat zela, eta herri literaturan bildu zuela bere poesiak egiteko inspirazioa (Altuna 1981).

Hala ere, azkenengo urteetan Etxepareri buruzko ikuspegia aldatu da (Oyharçabal 2008; Arcocha-Scarcia 2008; Aldekoa 2010), eta idazlea Errenazimenduko poetatzat hartzen du literatur kritikak; beraz, badirudi bertso hauek ere beste begi batzuekin begiratu behar direla momentu honetan (cf. Aldekoa 2010: 6, 13. oh.). Baliteke euskarazko ahozko eta idatzizko literaturaren arteko gorabeheren berri interesgarriak eman ahal izatea testu honek, frogatzerik bagenu Etxepareren idatzizko testua izan zela ahozko tradizioan txertatu zena.

Guztiarekin, aldarrikatu nahi dugu orain artean egindako hurbilketa gehienak testua bera albo batera utzirik egin direla, eta bertsoen balio historiko-literarioari ekin baino lehen testuen euren azterketa filologiko sakona behar dugula, hortik abiatu bakarrak egin baitaitezke modu seguru batean gainontzeko azterketak. Horixe izango da komunikazio honen helburu nagusia, bertso hauen azterketa filologikoaren hastapena: Isastiren bertsoen edizio berri bat aurkeztuko dugu batetik,

Reguerok (2017: § 2.2.19) Isastiren gainontzeko materialekin egindakoaren ildotik, eta testuak dituen arazo eta berezitasun filologiko nagusiak erakutsiz. Beste aldetik, berezitasun hauek markatzeko, beharrezkoa da testua Etxepareren bertsoekin konparatzea, eta hori izango da gure komunikazioaren bigarren zeregina.

Bibliografia

- Aldekoa, I. 2010, “Bernard Etxepare: “Doctrina Christiana” y poesía amatoria”, *ASJU* 44:2, 1-40.
- Altuna, P. 1981, “Etxepare, herri poeta”, in HH.EE., *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Deustuako Unibertsitatea: Bilbo, 321-341.
- Arcocha-Scarcia, A. 2008, “Linguae Vasconum Primitiae»-ren peritestalitateaz eta euskararen gramatizazioaren primiziaz”, *ASJU* 42:2, 1-68.
- Mitxelena, K. 1960 [2011], *Historia de la literatura vasca*, berrarg. in Mitxelena, K., *Obras Completas XIII*, Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU: Donostia & Gasteiz., 81-206.
- 1964 [2011], *Textos Arcaicos Vascos [TAV]* berrarg. in Mitxelena, K., *Obras Completas XII*, Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU: Donostia & Gasteiz., 1-197.
- Oyharçabal, B., 2008, “Ohar bat literatura historiografiaz: B. Etxepare Erdi Aroko autore?”, *Jean Haritschelbari omenaldia, Iker 21*, Euskaltzaindia, Bilbo, 491-521.
- Reguero, U., 2017, *Goi-nafarrera arkaiko eta zaharra: azterketa eta testuak*, UPV/EHUko doktorego tesia.

XIX. mendeko Debagoieneko testuez zenbait argitasun: egiletasuna eta iturriak

Oxel Uribe-Etxebarria (UPV/EHU)

Jakina da euskal testu zahar guztiak ez dutela era berean islatzen egilearen sorterriko hizkera eta, beraz, guztiak ez dutela balio bera toki eta garai jakin bateko euskara aztertzeko (Camino 2003, 2009). Bereziki Lehen Euskara Modernoaren garaian literatur euskalkien eragina nabarmena da Hegoaldeko idazleengan (Urgell 2018). Horregatik beharrezkoa da testuen ezaugarriak ahalik eta ondoen ezagutzea hizkuntzazko ikerketarako erabili nahi baditugu.

Lan honetan XIX. mendeko Debagoieneko testuen irakurketa kritikoago bat egingo dut, bi arazo filologikotan arreta jarri: egiletasuna eta iturrien auzia (Salaberri 2006, Urgell 2013). Horretarako hiru egileren lau liburu hautatu ditut: Oñatiko *Errectore baten instruccinuac...* (~1800) eta *Osaba baten instruccinuac...* (1805) eskuizkribuak (Elortza 1996, 1999), 1825eko Antzuolako dotrina (Uribe-Etxebarria 2008) eta 1862ko Gatzagako dotrina (Uribe-Etxebarria 2011); lehenengo hirurak eskuizkribuak eta azkena inprimatua.

Aztergai ditugun testuok ez dira berriak euskalarietat. Oñatiko eskuizkribuak argitaragabeak diren arren, J. Elortzak erakutsi zigun Manuel Umerez izeneko apaiz oñatiarrak idatzi zituela (Elortza 1996). Dotrina biak argitaratuak dira, baina oraingoan egileak aurkitzeko saiakera egingo dut eta hiru elizgizonen inguruko xehetasunak ere emango ditut. Era berean, idazle horiek aitortzen dituzten eta ez dituzten iturriez eta bestelako eraginez hitz egingo dut, euskarazko eta kanpoko testuekiko harremanak aztertutik.

Lan honen helburua, beraz, testuen fidagarritasuna bermatzea da, Mendebaleko testu-corpua osatzeko eta bertako hizkeren azterketa diakronikoa egiteko bidean (Ulibarri 2015, Zuloaga inprimategian).

Bibliografia

- Camino, I., 2003, *Hego-nafarrera*, Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Camino, I., 2009, *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*, Donostia: Elkar.
- Elortza, J., 1996, “Oñati Gipuzkoarekin elkartu zen garaiko hizkuntza, hezkuntza eta hirigintza”. In Elortza, J., J. Madariaga & I. Zumalde (arg.), *Oñati eta Gipuzkoaren bategitea (1845)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, “Lankidetzaz” bilduma 1.: 13-52.
- Elortza, J., 1999, “Oñati y la literatura vasca entre los siglos XV y XIX”. In Area de Historia Moderna UPV/EHU (arg.). *Historia de Oñati: siglos XIV-XIX*. Oñati: Oñatiko Udala, 113-130.

Salaberri Muñoa, P., 2006, "Intertestualitatean barrena, kontrarreformako kateketika". *Egan* 59-3/4, 51-84.

Joanes Etxeberri Ziburukoa berrirakuriz

Céline Mounole (UPPA-IKER UMR 5478), Aurelia Arcocha-Scarcia (UBM-IKER UMR 5478)

Joanes Etxeberri Ziburukoa (? , a.q. 1665) lapurtera literarioaren loraldiko autore garrantzitsuen dugu. Hiru liburu argitaratu zituen (*Manual debozjonezkoa* 1626, 1669, *Noelak* 1631, *Elizara erabiltzeko liburua* 1636), baina eskuizkribaturik besterik ere utzi zukeen hala nola Oihenartek *Art poétique basquen* (1665) deitu eskuizkribuan aipatzen dituen hiztegia, aditz taulak eta familiako gutunak.

Gauza guti dakigu haren biziaz, eta dugun informazio urria haren liburuen paratestuetatik dakigu. Preseski, paratestu horiek garrantzi handikoak dira Etxeberri Ziburukoak bere obrak idatzi zituen garaia eta testuingurua hobeki ezagutzeko, eta haren harreman sarearen –partez bederen– berri izateko.

Harrigarria bada ere, Etxeberri Ziburukoaren obra oraindik gutiegi ezagutzen dugu. I. Atutxaren hiru liburuen deskribapen filologiko xehea ukan arren (1999, 2001, 2002), oraindik haren obra osoaren edizio filologiko fidagarriarik ez dugu: *Noelak* da bakarra edizio berri bat duena (Akesolo 1970), *Manual debozjonezkoa*-ren lehen parte baizik ez zuen editatu Altunak 1981ean, eta *Elizarak* ez du edizio modernorik. Halaber, Etxeberriren obra aztertu duten lanak urriegi dira: haren garaikide izan zen Oihenarten (1665) analisis aparta, bi dira orain arte Etxeberriren neurtzikera aztertu dutenak artikuluen bitartez. Alde batetik, Oihartzabal (2003) dugu, Etxeberriren bertsuen "agramatikaltasuna" agerian eman zuena, eta bestetik, Arcocha-Scarcia (1999, 2008), *Itsasoko othoitzzen araldea* deitu *Manual Debozjonezkoaren* zatiaren erretorika aztertu zuena eta bestalde Etxeberriren neurtzikera garaiko poesia motaren parean ezarriz, barroko jesuitikoaren estiloko poetei jarraiki zitzaizela erakutsi zuena.

Hitzaldi honetan, Arcocha-Scarciak ideki bideari jarraikiz, Etxeberri Ziburukoaren obraren irakurketa berri bat eskainiko da, bere garaiko testuinguru historiko, literario eta kulturalan kokatuz eta inprentaren historiak eskaintzen dituen argiak baliatuz.

Erreferentziak

- Arcocha-Scarcia. A. 1999. Itsasoko biayetaco othoitzzen araldea. La série de prières pour les voyages en mer, de Joannes Etcheberri de Ciboure (1627). *Lapurdum* IV. 9-44.
- . 2008. Etxeberriren bertsugintzaren bariazio barrokoak. Eskuizkribua.
- Atutxa. I. 1999. Joanes Etxeberri Ziburukoa. *Noelak* eta testukritika. *Lapurdum* Extra 1. 233-312.
- . 2001. Joanes Etxeberriren *Elizara erabiltzeko liburua*. *Lapurdum* 6. 21-61.
- . 2002. Joanes Etxeberriren *Manual debozjonezkoaz*. *Lapurdum* . 57-91.
- Oihartzabal. B. 2003. De l'usage de l'étrangeté syntaxique: les structures agrammaticales dans la versification basque du 17ème siècle. In X. Artiagoitia, Patxi Goenaga, J. A. Lakarra (arg.). *Erramu Boneta. Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*. 479-498.
- Oihenart. A. 1665. L'art poétique basque. [P. Urkizuk apailatu edizioa, *Oihenart* 15 (1997). 177-207].

Euskara historikoaren corpus anotatu baterantz

I. Alegria (UPV/EHU), A. Estarrona (CNRS-IKER UMR 5478), I. Etxeberria (UPV/EHU), R. Etxepare (CNRS-IKER UMR 5478), M. Padilla (UPPA-IKER UMR 5478), A. Soraluze (UPPA-IKER UMR 5478)

Proposamen honetan abian den euskararen corpus historiko baten proiektua aurkeztu nahi dugu. Proiektuaren helburua hau da: bilaketa sistematikoak egiteko aukera eskainiko duen datu-base anotatua sortzea, euskararen corpusgintza historikorako eredu bat ezarriz. Datu-basea 2,5 milioi hitzeko erreferentzia-corpus batean oinarritzen da, nahiko kopuru duina corpus historiko batentzat (cf. Claridge 2009). Bestalde, aintzat hartzen dugu hizketa-unitateen zein egitura sintaktikoen anotazioa, bai eta metadatu multzo aberats bat ere.

Gure corpusak XV. eta XVIII. mende bitarteko ekoizpen idatzi esanguratsuen besarkatzen du, hots, euskalki historiko guztiak ordezkaturatu dauden denbora tartea. Testuak ondoko irizpideen arabera hautatu dira: a) adierazgarritasun historiko eta dialektala; b) testuinguru soziala; eta c) edizio fidagarrien existentzia. Corpuseko item bakoitza garai, dialekto, egile, literatura genero, testu mota eta ezaugarri soziolinguistikoen arabera kategorizatuko da. Erreferentzia-corpus honen osatzeak testuen egiaztapen filologikoa eskatzen du.

Bilaketa-tresnan corpusaren esplorazioa kategoría gramatikalen arabera ez ezik, anotatuko diren konfigurazioa egituren arabera ere posible izango da. Gainera, proiektuaren garapenak hiru corpus paralelo sortzea inplikatzeko du: iturri-testuena, transkribatutako testuena eta testu anotatuena. Euskarari ez dago horrelako baliabiderik, eta Europako hizkuntza minorizatuaren artean aurkitzea ere nekea da —galesaren kasua aipa genezake (Willis 2004)—. Beraz, esan daiteke proiektu aitzindaria dela hau.

Batetik, hain material desberdinekin aritzean azaleratzen diren arazoak kontu eman nahi dugu eta, bestetik, aurreikusten den bilaketa-tresnaren funtzionalitate batzuk erakutsi. Alderdi filologikotik, grafiaren eguneratzearen ondorioz galtzen den informazio fonologikoa mantentzea da gure ardurerekin bat. Anotazioaren aldetik, hona erronka nagusiak: a) gaurko euskaratik desagertu diren elementu morfoloikoa, edo banaketa dialektalaren aldetik marjinalak direnak; eta b) euskara historikoaren ezaugarri sintaktikoen bilakaera jasotzea.

Erreferentziak

Claridge, Claudia, 2009, "Historical corpora", in Anke Lüdeling & Merja Kytö (arg.), *Corpus Linguistics. An International Handbook*, 242-259 or. Berlin: Mouton de Gruyter.

Willis, David, 2004, *A Historical Corpus of the Welsh Language 1500-1850*, University of Cambridge. Interneten: <http://people.pwf.cam.ac.uk/dwew2/hcwl/menu.htm>

Los inicios de la nativización del castellano en el País Vasco interior: testimonios documentales del siglo XIX

Bruno Camus (Universidad de Castilla-la Mancha), Sara Gómez Seibane (Universidad de la Rioja)

En el interior del área vasco-parlante —por ejemplo, en Gipuzkoa— el aumento de la escolarización y la alfabetización en castellano agravaron durante el siglo XIX el retroceso geográfico del euskera y su situación de diglosia (Camus y Gómez Seibane 2012). Como consecuencia, encontramos tres tipos de hablantes: el primero, de alto nivel sociocultural y económico, bilingüe con uso diglósico de la lengua vasca; el segundo, de clase popular y ambiente rural, fundamentalmente monolingüe en lengua vasca; y el tercero, perteneciente a un grupo intermedio capaz de manejarse en las dos lenguas con suficiente destreza. Todos revisten interés en la descripción del proceso de nativización del castellano en esta zona, que en este trabajo se aborda a partir de la información suministrada por la correspondencia de un archivo familiar de Gipuzkoa (Zavala 2008). Este archivo, perteneciente a la nobleza rural de Tolosa con importante proyección pública en la política vasca y española, recoge las cartas intercambiadas entre sus miembros, amigos y personal de servicio a lo largo del siglo XIX.

Nuestro objetivo es caracterizar el perfil sociolingüístico de los autores de estas cartas y las lenguas por ellos utilizadas, tanto castellano como euskera, también presente a menudo en estos documentos. El análisis revela la presencia de rasgos resultado de procesos de convergencia estructural entre castellano y euskera en la variedad que se convirtió en la lengua nativa de generaciones posteriores, el conocido como castellano del País Vasco, lo que convierte estos textos en testimonio temprano de esta modalidad lingüística (Camus 2015). Sin embargo, varios de estos rasgos están ausentes de las cartas de los hablantes de mayor nivel sociocultural y económico, probablemente por razón de un

alto grado de alfabetización en castellano. En último término, la valoración conjunta de estas muestras contribuirá al avance del conocimiento de la historia lingüística del País Vasco interior.

Referencias

- Camus, Bruno y Sara Gómez Seibane (2012): “Introducción: el castellano del País Vasco”, *El castellano del País Vasco*, Bilbao, UPV, 1-17.
- Camus, Bruno (2015): “El castellano del País Vasco en el siglo XIX: las cartas del Archivo Zavala”, J. M. García Martín (dir.), *Actas del IX Congreso Internacional de Historia de la Lengua Española*, Madrid, Iberoamericana, 1775-1789.
- Zavala, L. M^a (ed.) (2008): *Correspondencia del Archivo de la Casa de Zavala*, edición en DVD, Lasarte, Etor-Ostoa.

WORKSHOP / SÉMINAIRE 2

Names and languages. Onomastics, a device for a better understanding of our linguistic past / Noms et langues. L'onomastique, instrument pour mieux connaître notre histoire linguistique

Director / Directeur: Patxi Salaberri Zaratiegi (UPNA/NUP)

Toponimoen azalpena: hipotesien proba eta frogalekua

Patxi Salaberri Zaratiegi (UPNA/NUP)

Artikulu honetan, lehen-lehenik, onomastika lanetan erabili beharreko metodologiak mintzo naiz, arau fonologikoak begiratzeak duen garrantziaz, datuen arteko kronologia erlatiboa ezagutzeak duen muntaz, agirietan edireten ditugun aldaera guztiak edo gehienxkoenak aintzat hartu beharraz, nahiz eta gure etimologia azalpenetarako zenbait aldiz laguntza baino gehiago oztopoa izan, irudiz bederen.

Ikertzaileak, zerbait berri erran nahi duenean, ezin ditu datuak eta arau fonologikoak bortxatu, eta, ausardia nahitaezkoa izanagatik, ezin eror daiteke ausarkerian. Toponimoak esplikatzeako datuak ezagutu behar ditu, baina hori ez da aski: gure onomastika nola dabilen, nola funtzionatzen duen ere jakin behar du. Aurreiritziak, «apriorikeriak» ere alde bat utzi behar ditu, bidea huts egin nahi ez badu.

Bestalde, salbuespena bakarra denean, ematen duen azalpena datu bakar batendako denean, ad hoc-ekoa izateko arriskua asko handitzen da, arteka-marteka baizik gauzatzen ez den metatesiaren erako aldakuntza ez bada segurik. Ikertzaile horrek ematen dituen azalpenak, gisa guztiz, aise sendoagoak izanen dira baldin eta dioena, toponimo bakarrari ezarri beharreen, multxo edo sailño bati behintzat ezar badakioke.

Ondoren, ikertzailearen ustekariak zinez hala diren ala ustekeriak besterik ez diren ikusteko nahitaezko den proba eta frogalekua dugu: toponimoen azalpen egokia eta egiantzekoa, bortzarik gabe ematen dena. Guk, oraingo honetan, Euskal Herriko herrialde guztietan azaltzen zaigun *-(i)(t)z* atzizkian ipini dugu arreta, eta ikusi dugu, lehendik susmoa genuen bezala, haren bitartez zenbaitek ahotan erabili dituzten *-az*, *-ez*, *-iz*, *-oz*, *-uz* bukaeradun toponimo nagusiak gogobeteko moduan argi daitezkeela ardura, oraingoan eta oraino ere, normala den bezala, zenbait herri izen azalkizun gelditu badira ere. Sistema, nolanhiko gisan, argi eta garbi ageri zaigu, ez da halabeharreko zorizko eta ausazko egikari bakartua, gertakari sistematikoa baizik, mendebaldeko *-ika*-dun toponimoekin (Fika, Gernika, Sondika...) eta Hegoaldeko nonahiko *-ao*, *-io* akabailadunekin (Dorrao, Lazkao, Golernio, Otxandio...) agitzen den eran.

Aipatutako *-(i)(t)z* atzizkia, orain baino lehen erran den eta dugun moldean, latineko *-is* genitibotik heldu da gure iritzian, eta, honek bezala, jabegoa adierazten du hark etorkiz: norbait beste norbaiten semea edo alaba dela patronimikoetan, eta iraganeko edota egungo herrixka edo herria, antzina, sortu zelarik baserri edo bezterretxea zen hura (edo lurra, are lehenago), norbaitena zela, toponimoaren oinarrian ageri zaigun izena zeramanarena hain justu.

Patronimiaren eta toponimia nagusiaren arteko estekak anitz eta hertsia dira, eta hartan izen beraren dantza eta zalantza handiagoak ikusten diren arren, ez dago dudarik pareko sistemen aitzinean gaudela.

Euskal deonomastika eta deonomastika konparatua

Karlos Cid Abasolo (Universidad Complutense de Madrid)

Izen berezien lexikalizazioa mekanismo txit errentagarria da hizkuntza gehienetan. Alde batetik, hitz horiek jatorrizko komunitate bakoitzaren intrahistoria dakarkigute gogora; beste batetik, egiaztatu da hizkuntzek jatorri onomastikodun nomenklaturak partekatzen dituztela. Lexikalizazio prozesu horren ardatza berkegoriazazio kontzeptua da.

Euskara da ikerketa honetan aztertzen den hizkuntzetako bat, eta euskara izango da, hain zuzen ere, hitzaldi honen ardatza, beti ere konparaturik aztergai diren gainerako hizkuntzekin: erromanikoak eta ez-erromanikoak (turkiera, ingelesa eta japoniera, besteak beste). Bi maila daude lexikalizazio prozesuetan: herri maila (herri deonomastika: eusk. *mari-zikin*, esp. *maruja*, port. *antoninbo*, fr. *jeanette*, ing. *bobby*, etab.) eta maila kultura (deonomastika kultura eta unibertsalagoa).

Ikerketa honek metodo konparatiboa du oinarri, eta neologismo onomastikoen sortzea eta izen berezi lexikalizatuen azpimailen nazioartekotzea eragin dituzten zirkunstantziak aztertzen ditu: hizkuntza lidergoa, hizkuntzen arteko ukipen motak, intertestualitatea, etab.

Bibliografia

Büchi, É., 1991. 'Contribution à l'étude des déonomastiques galloromans: Index des éponymes dans le FEW', *Nouvelle Revue d'Onomastique*, 17–18: 139–52.

Basque Toponymy of Spanish-speaking Latin America

Olga Chesnokova (RUDN University)

This study combines cultural and onomastic analysis to examine the Basque toponymical heritage of Spanish-speaking Latin America (Hispanoamérica) and identify its relevant features. Contemporary Latin Americans usually identify Basque toponymy by Basque surnames. Famous Basques explorers of the New World and distinguished political leaders of Basque origin are immortalised in Latin American anthropotonyms. For instance, in all of Latin America, there are approximately 15 places named *Bolívar* to commemorate the family name of Simon Bolivar (1783–1830), an eminent military leader of Latin America. Anthropotonyms alluding to Basques and their autochthonous place names are present in all Latin American national toponymical systems (e.g. *La Avenida Juan de Garay*, Buenos Aires; *Iturbe*, a town in the Guairá Department, Paraguay; *Euzkadi* Mountains, Chile). Latin American toponyms that duplicate autochthonous place names of Basque countries have Basque or Spanish versions of their calques, such as *Plaza Gernika* 'the square Gernika' (Chile); *Bilbao* (Mexico). Thus, the Latin American onomastic Basque heritage represents a flexible and developing phenomenon of time and space in the present socio-cultural context; for instance, several locations in Latin America were named to commemorate the tragic bombing in the Basque town of Gernika (26 April 1937), in addition to numerous calque toponyms in both Basque (*Gernika*) and Spanish (*Guernica*) versions of the original name of the town of *Gernika* (Euskara) – *Guernica* (Spanish version) – in the province of Biscay. Thus, the study revealed that the concept of Basque toponymy is a broader spatial and temporal model.

-ama bukaera duten toponimoak

Luis Mari Zaldua (Euskaltzaindia)

Ezaguna denez, *-ama* bukaera da toponimian izen indoeuroparrak badaudela erakusten duen adierazle garbi bakarretarikoa. Atzizki hori duten toponimoen azterketa bateratuaren eskutik Arabako iparraldean, Bizkaian, Gipuzkoako hegoaldean eta Nafarroako ipar-sartaldean hizkuntzaren arloan —

jatorri zeltiberiarra zertan izanik ez duen— eragin indoeuropar nahiko luzea egon zela berresten duten ondorioetara iritsi nintzen. Alabaina, dauden datuak alderdi haietan jatorrizkoa latinaren aurreko osagai indoeuroparra —eta arrotza euskalduna— zela aldarrikatzeko aski ez direla ere argitu nuen aurreko lan batean.

Fontes Linguae Vasconum aldizkariaren 50. urteurreneko oroipen kongresuan -*amo* aldaki maskulinoa duten toponimoak ukituko ditut.

Somorrostro, mendebaldeko euskararen muga

Mikel Gorrotxategi, Goio Bañales

Somorrostro haranak Ibaizabal ibaiaren ezker alde osoa hartzen du; hori dela-eta zati handienari Ezker alde izena eman zitzaion XX. mendean. Iparraldean, Kantabriako mugan Muskiz herria dago, eta hegoaldean Barakaldo. Azken honen kasuan badakigu, Bonaparteri 1864an eta 1866an igorritako gutunei esker, zein zen euskararen muga XIX. mendean, baina, inguruan, ez dago beste aipamen zehatzik. Ikerketaren helburua muga horren aztarnak aurkitzea da, toponimia eta zeharkako datuak erabiliz. Era berean, saiaturako gara arrazoitzen zein izan zen muga horren estabilitatearen arrazoia, izan ere, ipar Euskal Herrian edo Galipentzu eta Kasedaren artean bezala, iduri baitu muga ez zela mende askotan ia ezer mugitu. Baina, hizkuntzen muga ez zetorren jaurerria eta erresuma arteko mugarekin bat. Itxuraz Somorrostoko iparraldea (Muskiz, Zierbena eta Santurtzi) goiztxo erdaldundu zen, eta erdialdean iraunkorragoa izan zen euskararen erabilera, azkenik, Barakaldora mugatu arte. Hala ere, pentsatu beharko dugu hizkuntzen muga, agina, ez zela lerro bat, askoz ere gauza korapilotsuagoa baizik.

Muga horren deskribapena egiteko G. Bañalesek azken urteotan egin duen toponimia biltzea zehatzaz baliatuko gara. Aipatutako ikerlariak urteak daramatza Somorrostroko toponimia biltzen eta, dagoeneko, corpus handia du, nahiz eta, zoritxarrez, Bizkaian ohikoa den bezala, toponimo kopuru handiena XVI. mendean hasten den. Zaharragoak diren aipuak oso urriak dira, urriegiak emaitza fidagarria izateko. Osagarri moduan, muga hobeki aztertzeke Galdamesko testigantzak ere aztertuko ditugu, handik baitzetozen Somorrostro Balmasedarekin, eta ondorioz Gaztelarekin, lotzen zuen galtzada.

Lanean aztertuko dira populatutako guneen izenak, jatorria edo jatorriak argitzeko eta herriz herriko corpusa, ahal den neurrian, datu horietaz atzerakadaren diakronia egiteko. Hala eta guztiz ere, zaila da horrelakoak egitea, ingurua berezi samarra baita, erromatar garaitik XX mendera arte meatzaritza gunerik garrantzitsuena izan baita Euskal Herrian. Deigarria da, kasurako, 1866an euskalduna —euskara desagertzeko bidean bazegoen ere— zen Retuerto auzoak erdal etimo gardena edukitzea, euskal kidearen berri ez dugula, eta izen hori gutxienez 1475etik horrela dokumentatzea.

Egoera korapilatsu hau argitze aldera Portugaleten burutu ziren epaiketa batzuetan ageri diren lekukotzak ere ekarriko ditugu. G. Bañalesek egindako ikerketan aurkitu baitu erdaldundutako eremuko pertsonaia batzuk euskaldunak zirela, egoera nahastu baten lekuko.

Azkenik, haran luze honen egoera linguistikoa, bereziki iparraldeko eremuaren erdalduntze goiztiarra ulertarazteko proposamenak egingo ditugu.

Zaraitzu eta Salazar koronimo bikotea: nondik norako linguistiko-historikoa

Roberto González de Viñaspre (Euskaltzaindia)

Harreman etimologikorik gabeko bikotea osatzen dute bi izen hauek. Alde batetik dago ahozko erabileraren bidez iritsi den *Zaraitzu* [*Zaitzu*] izena, XI. mendeaz geroztik idatziz *Sarasazu*, *Sarasaç*, *Sarasaç* eta antzerako aldaerekin erruz dokumentatzen dena. Beste aldetik, nabarmen beranduago ageri da Nafarroako dokumentazio historikoan *Salazar* aldaera, ibarra nahiz ibaia izendatzeko. Ángel

J. Martín Duquek ohartarazten duen gisa (2002, “La comunidad del Valle de Salazar. Orígenes y evolución histórica”), “hasta el siglo XVII no prevalecerá la grafía Salazar sobre Sarasaz”.

Izenaren ibilbide dokumentala aztertuko dut komunikazio honetan, eta analisi xehatu horretan ohartuko gara *Salazar* koronimoa ez dagoela nafar dokumentuetan XVI. mendearen hasiera arte. Zehazki, Nafarroako konkistaren testuinguruan agertuko da kronika gaztelauetan: Luis de Correa (1513), E. Antonio de Nebrija (1545) eta beste. Mende berean Jerónimo Zurita historialari eta kronikaria jabeturik zegoen izenaren bilakaeraz (1562, *Anales de la Corona de Aragón*): “... en las montañas y valles de Bastan, la Berrueça, Deyerri, Anso, Roncal y Sarasayz: que después corrompido el nombre se llamó el val de Salazar”.

Ibarraren jatorrizko izenaren eta Gaztelako Salazar leinu entzutetsuaren izenaren arteko homofonia erlatiboan bilatu behar da, ziurrenik, idatzizko iturri gaztelauetan sortu eta hortik aurrera zabaldutako nahastea.

Antzekotasun formalak alboan utzita, *Salazar* izenak ez du erlazio etimologikorik Nafarroako ibarraren jatorrizko izenarekin. Komunikazio honetan ondorioztatuko da ez dela euskal elementuekin osatua, zenbaiten ustearen kontra. Lehenik, Gaztelako geografia historikoan kokatu eta, ondoren, izenaren lekukotasunik zaharrenak aztertuko ditut, XI. mendean geroztikoak. Gaztelako zenbait kartulariotako datu dokumentalen argitan, gaztelaniaren bidez azaldu beharko da *Salazar* izenaren etimologia.

Enkarterrietako euskal toponimoetako antroponimoak

Mikel Martínez-Areta (UPV/EHU)

Caro Barojaren ikerketetatik, Euskal Herriko zenbait multzo toponimikotan azaltzen diren antroponimoek ikerketa ugari ekoiztu dute, bestelako agirietan azaltzen ez diren hainbat datu toponimiaren zirrikituetatik azaleratzen baitira. Prozedura honen boterea Irigoyenek eta Salaberrik (lan ugarian, 2003n eta 2015en esaterako) eraman dute, antroponimiarako ez ezik euskararen kanpoko eta barneko historiarako –eta, hizkuntzalaritzaz haraindi, populaketan historiarako, soziologiarako...– argia bota dezaketen hainbat aspektu eztabaidaratu.

Dena dela, aipaturiko prozedurak aldeak erakusten ditu eskualdearen arabera, eta eskualde batzuetako toponimiaren azterketan oraindik etekinik atera ez zaiola esan liteke. Enkarterriko, adibidez, berriki Fernández Palacios (2011) zenbait toponimo antroponimikotara erakarri nahi izan du ikertzaileen arreta. Batetik, oso deigarria da antroponimo *-aran* eraikuntzaren emankortasuna (*Sollaran, Gasteran, Otxaran, Muñeran, Sollaran, Umaran, Urraran...*). Bestetik, lehen kokagunean azaltzen diren antroponimo horiek filiazio ezberdinetakoak ditugu. Batzuk latindarren –edo agian zehazkiago “behe-latindarren”– multzoan sar genitzake, eta haien analisisan Fernández Palacios (2002) zein Salaberrik (2003, eta beste hainbat lanetan) aplikaturiko azterbidea baliatu beharko dugu (adib. *Soll-aran*, < lat. *Suilius cognomen* edo izengoititik), batik bat Kajanto (1982) edo antzeko lanen laguntzaz. Beste batzuk euskalduntzat –ez halabeharrez euskal etimologiakotzat– jo ditzakegu, baina hauen artean ere batetik “nafartzat” jo ditzakegunak dauzkagu (*Otxaran* ← *Otxoa*, *Santso* ← *Santxosolo*), bestetik “arabartzat” jo ditzakegunak (*Muño* ← *Muñeran*, *Obeko* ← *Obekuri*). Fernández Palacios (2011: 171) adierazi legez, aspektu hauen guztien azpian XV. mendea baino lehenago gauzatu zen lurraldearen antolamendu espeziфикo bat datza, eta funtsezkoak ditugu Goi-Erdi Aroan garatu ziren gertakizunen nolabaiteko ulermen batera iritsiko bagara.

Komunikazio honetan, egungo Enkarterri ekialdarreko –hots, toponimia txiki gehienbat euskalduneko– euskal toponimoetako antroponimoen banan-banako azterketa bat proposatzen da, hartarako inguruko toponimia antroponimikoarekiko (ikus Etxebarri Mirones 2007, Galé *et alii* 2013, Salaberri 2015...) zein Goi-Erdi Aroko inskripzioetako antroponimoekiko (ikus Azcarate & García Camino 1996) eta Erdi Aroko kartularioetako antroponimoekiko erkaketaren bidez.

Bibliografía

- Azkarate, A., García Camino, I. (1996). Estelas e inscripciones medievales del País Vasco (siglos VI-XI). I. País Vasco Occidental. EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Etxebarria Mirones, Tx. (2007). Alonsotegi. 1300-1888. Toponimia y lengua. Ediciones Beta.
- Fernández Palacios, F. (2002). Lengua e historia del Asón al Cadagua. Épocas prerromana y romana. UCM.
- Fernández Palacios, F. (2011). “Hacia una cronología de la toponimia románica y vascuence en las Encartaciones (Vizcaya)”, *Oihenart* 26, 163-175.
- Galé, P., Gorrotxategi, M., Mugurutzza, F. (2013), Aiarako toponimia nagusia. Euskaltzaindia.
- Kajanto, I. (1982). The Latin cognomina. Erroma: Giorgio Bretschneider.
- Salaberri, P. (2003). Euskal deiturategia: patronimia.
- Salaberri, P. (2015). Araba / Álava. Los nombres de nuestro pueblos. Euskaltzaindia.

WORKSHOP / SÉMINAIRE 3

Theory of grammar for Basque (and vice versa) /

Théorie de la grammaire dans la langue basque (et vice versa)

Director / Directeur: Aritz Irurtzun (CNRS-IKER UMR 5478)

Why questions matter

Aritz Irurtzun (CNRS-IKER UMR 5478)

Advances in theoretical linguistics have brought unparalleled tools and questions for the study of the characteristics of Basque and, conversely, the study of the Basque has made a remarkable contribution to general linguistics. Among them, well-known are the patterns of successive cyclicity, residual V2, and clausal pied-piping that arise in *wh*-questions in this language. In this talk I will revisit the properties of Basque *wh*-questions paying special attention to the particular behavior of *why* questions and the way they can break the otherwise obligatory V2 requirement.

Testu-corpusen informazio morfosintaktikoaren etiketatze automatikoa hizkuntz ezagutzan oinarrituz

Itziar Aduriz (Bartzelonako Unibertsitatea), J. M. Arriola (Bartzelonako Unibertsitatea)

Hizkuntzalaritzan, azken urteotako joera enpirikoari jarraituz, testu-corpusen erabilera eta ustiaketa gero eta zabalagoa izan da.

Hizkuntza Naturalaren Prozesamenduak joera horretan izan duen garrantzia ezin ukatuzkoa da. Testuinguru honetan, corpusak etiketatzeko modu ohikoena hitzen kategoria gramatikala etiketatzea edota *Part-Of-Speech tagging* (*word-class tagging*) gisa ezagutzen da. Zeregin hori testuko hitz bakoitzari kategoria zuzena esleitzean datza, testuingurua kontuan izanik. Bere izaera oinarrikoarengatik giltzarritzat hartu izan da hizkuntza naturalaren prozesamendua aurrera eramaten den hizkuntza gehienetan. Halaber, etiketatzeak corpora aberastu eta hizkuntzalaritzako azterketak egiteko aukerak ere zabaldu egiten ditu.

Halere, garrantzia aitortu arren, ikuspegi konputazionalako lan askotan, arrazoi praktikoengatik, batik bat, ez dira morfologiaren prozesamenduaz arduratu. Zentzu batean, esan daiteke analisi morfologikoa eta *Part-Of-Speech tagging* morfologia aberatseko hizkuntzetara mugatu dela.

Euskararen kasuan, esate baterako, analisi morfosintaktikoaz hitz egitea ezinbestekoa dugu. Hizkuntza eranskaria izanik, atzizkiek informazio morfologikoarekin batera dakarte informazio sintaktikoa ere. Hori dela eta, corpora etiketatzerakoan, kategoriaz gain, beste informazio gramatikalaz eta sintaktikoaz ere arduratu beharko gara: bai izenen flexio-morfemek dakarten informazio gramatikalaz (kasua, numeroa, mugatasuna), bai aditzen inflexioan aurkituko dugun informazioaz, esaterako, denbora, modua, aspektua eta komunztadura. Beraz, corpora etiketatzerakoan, sintaxiari heldu aurretik, anbiguotasun morfosintaktikoari aurre egin beharko diogu.

Etiketatzeko morfosintaktikoa oinarriko tresnak lantzearen estrategian kokatzen da. Horrela 90tan sortu zen lehen desanbiguatzailea euskararako, EUSLEM izenekoa (Aduriz *et al.*, 1996) eta ordutik hona asko hobetuz joan den tresna giltzarria izan da, ondoren etorri diren lan aurreratuetan oinarri.

Urte hauetan izandako esperientziak erakutsi digu badirela konpontzen zailak diren anbiguotasun motak. Esate baterako, hizkuntzaren baitan dagoena (adjektibo-adberbioen kasua, adibidez, “azkar”, ala izen-adjektiboen kasua: “garai”) edo arkitekturaren diseinuak eragindako besteren bat (EDBLn oinarritzetik datorrena: “aurrekoan” sarreraren kasua da, esanahi berarekin bikoiztua baitugu). Bai batak eta bai besteak estrategikoki soluzio-bide desberdinak planteatzen ditu tresnaren, desanbiguatzailearen helburuari begira, ahalik eta hitz gehienak desanbiguatuz izatea, alegia.

Artikulu honetan azalduko dugu desanbiguatze-lanetan urtetan aritu ostean topatutako “esker txarreko” kasuak, alegia, azalduko diren arrazoi desberdinengatik desanbiguatzen zailak diren kasuak. Horrek, desanbiguatze-lana bukatu gabekotzat uzten du, izan ere, ehuneko garrantzizko bat geratzen baita “konpondu” gabe.

Erreferentziak

Aduriz I., Aldezabal I., Alegria I., Artola Zubillaga X., Ezeiza N., Urizar R. 1996. “EUSLEM: A Lemmatiser / Tagger for Basque.” Proc. EURALEX’96, Göteborg; Part 1, 17-26.

Perpaus (ez-)onargarri zentzua eman nahian

Urtzi Etxeberria (CNRS-UMR 5478)

Perpaus gramatikalek hiztunen artean interpretazio fidagarri eta garbiak izaten dituztela hizkuntzalaritza teorikoan egitate moduan onartu izan ohi da. Aurkako onarpenera, aldiz, (hau da, perpaus ez gramatikalek interpretazio ez-fidagarri eta ez-garbiak izatearena) eztabaida handirik gabe onartu izan da, nahiz eta adostasun orokor batetik urrun dagoela esan genezakeen (ikus Otero 1972, Shanon 1973). Gauzak horrela, hizkuntzalaritza teorikoak perpaus ez-gramatikalen interpretazioa ez du normalean kontuan hartzen. Lan honetan baieztapen hau eztabaidan jartzen dugu eta perpaus ez-gramatikalen interpretazioa sistematikoki ez-fidagarria ote den edo, aldiz, perpaus ez-gramatikalak begiratuaz emaitza sendo eta irmoak lortu ote ditzakegun ikertzen dugu, eta ikerketa honek hizkuntzalaritzako gai zehatz batzuren inguruan ekarpen egokirik egin ote dezakeen aztertzen dugu.

Lan honetan bi esperimenturen emaitzen berri ematen dugu, non hiztunek perpaus mailako ezeztapenaren erabilera ala erabilera ezak beraien juzkuetan eta interpretazioan zer eragin duen ikertu den. Zehazki, esperimentu hauetan onargarritasun maila eta argazkien aukeraketa erabiliaz ezezko menpekotasun (negative dependence; h.d. perpaus berean hainbat ezezko elementuen konbinaketak) mota desberdinak erakusten dituzten perpausen gramatikaltasun eta interpretazio juzkuak ikertu ditugu. Hiru hizkuntza hartu ditugu kontuan: batetik euskara, eta bestetik espainolaren bi aldaera (espainol zentral estandarra eta Euskal Herriko espainola). Hiru hizkuntza hauetan ezezko menpekotasuna erakusten duten perpausak, irakurketa ez-konposizional “ezezko soila” (single negation; hau da, ezezko irakurketa) sortzen dute, halere badaude desberdintasunak beraien artean. Euskaraz, esaterako, perpaus mailako ezeztapenaren presentzia beharrezkoa da ezezko irakurketa bat lortu ahal izateko (Laka 1990, Etxepare 2003, de Rijk 2008). Aldiz espainolez, subjektu posizioan agertzen diren ezezko elementuekin irakurketa ez-konposizional ezezko soila lortu liteke baldin eta perpaus mailako ezeztapenik ez bada agertzen (Bosque 1980, Sánchez 1999). Euskal Herriko espainola, azkenik, oraintxe aipaturiko bi aukerak onartzen dituen hizkuntza bat bezala deskribatua izan da (Franco & Landa (2006), hau da, euskararen eta espainolaren propietateak erakutsiko lituzkeen hizkuntza bat.

- | | | |
|-----|--------------------------|----------------|
| (1) | Inork ez du ezer hautsi. | (Euskara) |
| (2) | Nadie ha roto nada. | (Espainola) |
| (3) | Nadie (no) ha roto nada. | (EH Espainola) |

Lan honetan erakusten dugu onargarrizat jotzen diren perpausei interpretazio ezezko soila esleitzen zaiela hiru hizkuntzetan. Bestalde, euskaraz, onargarrizat jotzen ez diren perpausak irakurketa ezezko soilarekin ulertzen diren bitartean, espainolezko bi aldaeretan ausaz interpretatzen dira, irakurketa ezezko bikoitz alderako joerarekin espainolez eta irakurketa ezezko soil alderako joerarekin EH espainolez.

Gure emaitzek ezezko perpaus ez-gramatikalak hizkuntza jakin batzuen gramatikari buruz informatu dezaketela erakusteaz gain, hizkuntzen artean egon litezkeen alde interesgarrien berri ematen dute. Ondorioz, perpaus mailako ezeztapenak eta ezezko elementuen izaerak perpaus gramatikal eta ez-gramatikalen interpretazioan eragiten dutela esan genezake.

Konparazio egituren koordinazio analisi sintaktiko-semantikoa

Laura Vela-Plo (UPV/EHU)

Euskarazko konparazio egituren deskribapen eta analisisiek egitura hauetan konparazioaren oinarritzat perpaus bat hartzen dela onartzen dute (Euskaltzaindia 1999; Hualde & Ortiz de Urbina 2003; Goenaga 2008); hau da, *baino* partikulararen ezkerrean mendeko perpaus bat kokatzen dela beti (1), murriztutako perpausa bada ere (2).

- (1) [Ekarri dituen baino] sagar gehiago jan nahiko nituzke.
- (2) Zuriñe [Zeian (den) baino] bizkorragoa da.

Hortaz, Goenagak (2008) *baino*-ren osagarria Konplementatzaile Sintagma bat dela proposatzen du, eta bi elementu hauek Postposizio Sintagma bat osatzen dutela argudiatzen du, osagai honek mugitzeko ahalmen handia erakusten duelako ((2)-(3) adibideak konparatu).

- (3) Zuriñe bizkorragoa da [Zeian baino].

Lan honetan (4)-(6) bezalako konparazioak dira aztergai. Azterketa honekin, alde batetik, konparazio hauen erreferentzia ez dagoela perpaus batetik eratorrita erakusten da. Horrela izango balitz, (4)-(6) adibideetan *baino*-ren ezkerreko izenek kasu marka azaldu beharko lukete.

- (4) [Diru baino] amets gehiago zuen agureak.
- (5) [Gizon baino] emakume gehiagok lortu zuten.
- (6) Urrutiaren [aurkari baino] jarraitzaile gehiagori bidali zieten gutuna.

Bestetik, egitura hauek juntagailuekin (hots, koordinazio egiturekin) oso harreman berezia daukatela erakusten da lehenengoz: [A] konparazio hauetako oinarriak kokagune finkoa dauka, perpaus batetik eratorrita dagoen oinarria daukaten konparazio egiturek ez bezala ((5) eta (7) adibideak konparatu); eta [B] izen koordinazioetan bezala, konparazio hauetan izenek osagarri bat partekatu dezakete ("Urrutiaren" (6) eta (8) adibideetan).

- (7) *Emakume gehiagok* lortu zuten [gizon*(-ek) baino].
- (8) [Urrutiaren *aurkari eta jarraitzaile askori*] bidali zieten gutuna.

Egitura hauen banaketa berezia, oinarriaren mugikortasun eza, eta honen barneko egitura azaltzeko, konparazio hauek koordinazio egitura dutela defendatzen da, Corver-ren (1993) konparazio egituren koordinazio analisia garatuz. Konkretuki, konparazio hauetan *gehiago* graduen gaineko kuantifikatzailea dela eta *baino*-k emendiozko juntagailuaren funtzioa daukala argudiatzen da.

Proposamen honen arabera, (4) adibidearen egitura sintaktikoa (9)-n adierazitakoa litzateke, eta (10) bere denotazio semantikoa.

- (9) $[[[[\text{Diru } d_{\text{GraduS2}}] \text{ baino } \&\text{s}] [[\text{amets gehiago}_{\text{GraduS1}}]_{\text{GraduS1}}] \text{ zuen agureak.}]$
 (10) $\exists d [\exists x [\text{ametsak}(x) \wedge |x| \geq d \wedge \text{eduki}(x, \text{agureak})] \wedge \neg \exists y [\text{dirua}(y) \wedge |y| \geq d \wedge \text{eduki}(y, \text{agureak})]]$

Konparazio hauek dituzten ezaugarri bereizgarriak azaltzeko, konparazio hauetan *baino* juntagailuak propietate berdineko bi elementu elkartzen dituela (bi Gradu Sintagma, zehazki) eta *gehiago* kuantifikatzaileak konparatutako bi entitateen kopuruari lotutako graduak (*d*) uztartzen dituela defendatzen da.

Erreferentziak

- Corver, N. (1993). “A note on subcomparatives”.
 Euskaltzaindia. (1999). *Euskal Gramatika Lehen Urratsak – V*.
 Goenaga, P. (2008). “Euskal neurri sintagmen azterketa baterako: zenbat x, zenbat x-ago, zenbat x gehiago”.
 Hualde, J. I., & J. Ortiz de Urbina. (2003). *A grammar of Basque*.

From Linear V2 to Fronting V2 in Basque

Ricardo Etxepare (CNRS-IKER UMR 5478)

The Basque finite verb presents a number of morphological asymmetries that have been exploited as a cue into earlier syntactic stages of the language. Gomez and Sainz (1995) for instance, note that the Tense-first restriction, according to which the finite verb cannot be first in Basque, could also account for the verb-initial particles that arise when the verb has a 3rd person absolutive : absolutive agreement precedes the verbal root in Basque, but it has no overt exponent in the third person. Basque finite verbs avoid the possible null exponence of third person absolutive agreement by the insertion of affixes that are not related to phi-morphology, but that seem to be related to Aspect (*da-*), Affirmation (the imperative forming *b-*), Complementizer (the actual Past Tense exponent *z-*), and Mood (*l-*). In the case of past transitive forms, the first position can also be occupied by person affixes belonging in the ergative paradigm, so-called Ergative Displacement (Laka, 1993). Following an idea of Nevins that Ergative Displacement can be approached in terms of a word-internal Wackernagel effect (Nevins, 2009 ; Arregi and Nevins 2012), we attempt a clausal syntax interpretation of the mentioned restrictions as a form of Linear V1 restriction, of the type one finds in Celtic languages such as Welsh (Jouitteau’s *inconspicuous V2*, 2007, 2010). The paper compares this reconstructed Linear V1 system with the type of V2 system that we find in the oldest textual attestations of Basque, particularly the proverb collections *Refranes y Sentencias* (1596) and Garibay’s proverbs, a system that differs from present-day Basque in allowing a greater flexibility in the relative position of the finite verb vis-à-vis Topics and Foci, and which also presents V1 configurations with modal verbs (subjunctives, futures and imperatives). We develop possible diachronic scenarios for this change, which maintains some of the inconspicuous V2 restrictions found in the earlier stage, such as the V1 orders related to modality.

*Iru*diverbs revisited: raising to ergative from complement clauses in Basque

Xabier Artiagoitia (UPV/EHU)

In line with current work on ergativity (Baker 2014, Rezac et alii 2014, Rose 2018, Tyler 2018), this presentation provides abundant evidence from the *Contemporary Dynamic Prose* (CDP) Basque

corpus to show Basque ergative case is indeed structural; in particular, I show that raising to ergative from finite complement clauses is well attested in the three typical constructions with *irudi* verbs (i. e. *iduri* + **edun*, synthetic forms of the verb *irudi*, the verb *eman* ‘give’ in its ‘seem’ acception; cf Artiagoitia 2001). Schematically, the novel data presented follows the pattern in (1b), which alternates with the much more common in (1a):

- (1) a. DP_{expl.erg} T_{*eman, iduri* + **edun* / *dirudi*} [CP DP -ela] [impersonal]
 b. DP_{erg} T_{*eman, iduri* + **edun* / *dirudi*} [CP ~~DP~~ -ela] [raising to ergative]

Most of the CDP corpus examples with finite complement clauses stick to (1a) with a non-thematic expletive subject (cf. 2), but many others have an ergative subject apparently raised from the complement clause; the raising is confirmed by either the plural agreement with the main *irudi* verb (cf. 3a) or by the fact that the raised subject is marked ergative even though it would be marked absolutive in the complement clause (cf. 3b)

- (2) *Ematen du* lausotu egiten direla gorpuak, nahastu (U. Elorriaga, *Iazko bezurrak*, 2014, 194)
 (3) a. *Alternatibek ez dirudite* gauzak hobetu ditzaketenik (H. Gallastegi, *Berria*, “Besteei begiratu barik”, 2007/05/13)
 b. *garai bereko emeek*, berriz, gizatasunetik urruntzen eta tximinoetara hurbiltzen ari direla *dirudite*. (B. Bryson / I. Iza, *Ia denaren historia labor bat*, 2009, 420)

The existence of this type of raising confirms that Basque ergative case is in fact structural, rather than inherent, as argued by Rezac (2008), Rezac *et alii* (2014) on different grounds.

References

- Artiagoitia, X., 2001, “Seemingly ergative and ergatively seeming”, in Julia Herschensohn, Enrique Mallén eta Karen Zagana (eds.) *Features and interfaces in Romance*, Amsterdam, Benjamins, 1-22.
 Deal, A. R., 2018, “Raising to ergative: remarks on applicatives of unaccusatives”, to appear in *Linguistic Inquiry* [https://doi.org/10.1162/ling_a_00310]
 Rezac, M., 2008, “The syntax of eccentric agreement: The Person Case Constraint and Absolutive Displacement in Basque”. *Natural Language and Linguistic Theory* 26, 61-106.
 Rezac, M, R. Etxepare, & P. Albizu, 2014, “The structural ergative of Basque and the theory of Case”, *Natural Language and Linguistic Theory* 32, 1273-1330.
 Tyler, M., 2018, “Absolutive Promotion and the Condition on Clitic Hosts in Choctaw”, *Natural Language and Linguistic Theory*, <https://doi.org/10.1007/s11049-018-9426-z>

Externalization and morphosyntactic parameters in Basque

Hisao Tokizaki (Sapporo University)

Basque has interesting morphosyntactic properties such as head-finality, agglutinativity and recursive compounding (Duguine, Irurtzun & Boeckx 2017). In generative grammar, these properties have been discussed in terms of parameters such as head-directionality and the Compounding Parameter (Snyder 2001). In the minimalist program (Chomsky 1995 et seq.), it is argued that the head directionality is an externalization parameter, whose properties has not been much discussed. In this paper, I will argue that these morphosyntactic properties can be attributed to a prosodic property of Basque, the left-edge stress (i.e. stress on the initial or the second syllable of a word).

Word-stress location is different in Basque dialects: initial, second, penultimate, right-edge and lexical (Hualde 1999). However, Hualde (1995) argues that the original word-accent location in Basque is initial or second. Assuming the parallelism of stress location between words and phrases

(cf. Plank 1998) and the stress assignment to the deepest element in a structure (Cinque 1993), we predict that in Externalization, languages with left-hand stress choose head-final structure with the branching complement on the left and the non-branching head on the right: $[[\text{Complement} \dots \mathbf{X} \dots] \text{Head}]$ (X, the deepest element in the complement, is stressed). Thus, we can derive the head-finality from the left-edge stress in Basque.

The agglutinativity and recursivity of compounding in Basque can be derived from its head-finality. Based on phonological and morphosyntactic evidence, the author argues that if an asymmetric structure is Externalized as a head-final order, the head and the complement are closely tied together making a phonological (compound) word. Thus, we can derive the head-finality, agglutinativity and recursivity of compounding in Basque from its left-edge stress.

We need to explain why Basque dialects have variation in word-stress location while they have almost the same morphosyntax. I argue that the original stress location set the value of morphosyntactic parameter (e.g. head-final), which was hard to change even if the stress location changed from left-edge to right-edge in some dialects through the contact with Romance languages. It is interesting to explore the possibility that Japanese, which also has head-final word order and wide accentual variations, might have the word accent on the initial position (cf. Duanmu 2008).

In sum, the study of Basque language and its dialects shed light on a theoretical typology and the minimalist approach to linguistic theory, which try to ascribe the variation of languages to Externalization (Chomsky 2017).

Two syntactic positions for Basque discourse particles and the nature of derivations

Sergio Monforte (UPV/EHU), Andreas Trotzke (Universität Konstanz)

Only very few studies in theoretical linguistics paid attention to the fact that Basque, like many European languages, has an inventory of discourse particles. In this paper, we focus on the syntax of particles occurring in questions and account for some new data by proposing a successive-cyclic movement derivation that is based on current minimalist approaches assuming interactions of subderivations, essentially in the form of generalized transformations (e.g., in the context of complex subjects and adjuncts; see Trotzke & Zwart 2014).

We first look at the question particles *-a* (eastern varieties) and *al* (central variety) and identify two separate syntactic positions based on their distinct behavior: the former occurring in the CP-domain and the latter in the IP/TP-domain. Crucially, we then turn to the particle *ote* and observe that it cannot only occupy an IP/TP-internal position, but also be attached to *wh*-elements in north-eastern dialects and move to SpecCP:

- (1) a. Non utzi ote dut kazeta?
 where leave part aux newspaper.abs
 b. $[_{CP} [_{NP} \text{ote}] [_{C} \text{utzi dut} [_{IP/TP} \text{kazeta?}]]]]$
 ‘Where did I leave the newspaper?’

This parallels a situation we find in German *wh*-questions (Bayer & Obenauer 2011; Bayer & Trotzke 2015). In accordance with the German data, we argue that Basque *wh*+PART must form one constituent (a PartP) because nothing can intervene between *wh*-word and verb. We defend the following analysis where the complex *wh*-phrase enriched by merger of *ote* is derived in a separate derivational workspace, yielding PartP. PartP is then merged into the unfolding V-projection, after which successive-cyclic movement of PartP, analogous to *wh*-movement, applies. Both the particle and the *wh*-element are operators that must be licensed in scope positions.

(2) [PartP [C⁰ [~~PartP~~ [Emp⁰ ... [ModP ~~PartP~~ [Prt⁰ ... [VP/*v*P... ~~PartP~~...]]]]]]]]

Our paper illustrates how derivational tools of minimalist theory can advance our understanding of Basque dialectal data in the domain of particle syntax.

Erreferentziak

- Bayer, J. & H.-G. Obenauer. 2011. Discourse particles, clause structure, and question types. *Linguist. Rev.* 28, 449–491.
- Bayer, J. & A. Trotzke. 2015. The derivation and interpretation of left peripheral discourse particles. J. Bayer, R. Hinterhölzl & A. Trotzke (eds.), *Discourse-oriented Syntax*, 13–40. Amsterdam: Benjamins.
- Trotzke, A. & J-W Zwart. 2014. The complexity of narrow syntax: Minimalism, representational economy, and simplest Merge. F. J. Newmeyer & L. B. Preston (eds.), *Measuring Grammatical Complexity*, 128–147. Oxford: OUP.

Datiboen izaera sintaktikoa Pertsona Kasuaren Murriztapenaren argitan

Ane Odria (UPV/EHU)

Euskaraz datibo argumentu batzuek DS-en moduko jokabidea izan dezakete zenbait testuingurutan. Horixe gertatzen da, hain zuzen ere, Pertsona Kasuaren Murriztapenaren (PKM) eraginpeko egituretan, hau da, datiboa lehen edo bigarren pertsonako osagarri batekin konbinatzerakoan (Albizu 1997, Rezac 2009). Egitura hauetan, arazi, esperimentatzaile eta jabe datiboak ez bezala, helburu datiboak PS-en moduan komunztadurarik gabe agertu daitezke PKM-ak eragindako ez-gramatikaltasuna saihesteko.

Hitzaldi honetan, absolutiboz markatutako osagarriez gain, hego-mendebaleko hainbat hizkeratan agertzen diren Markapen Bereizgarriko Osagarriek (MBO) ere PKM pairatzen dutela azalduko dut (Odria 2017). Orokorrean, datiboz markatutako osagarri hauek absolutibodun osagarriek bezala jokatzeko dute murriztapen honi dagokionez, eta beraz, biek ala biek Kasua *a*-rekin komunztadura eginez erkatzen dutela proposatuko dut, *a* baita PKM-ren oinarrian dagoen buru funtzionala (Albizu 1997, Ormazabal & Romero 2007). Halaber, erakutsiko dut orokorrean murriztapena sortzen duten datiboek –arazi, esperimentatzaile, helburu eta jabe datiboek– era berean jokatzeko dute absolutibodun zein datibodun osagarriekin konbinatzerakoan: batean zein bestean, helburu datiboak baino ez dira PS moduan komunztadurarik gabe agertzeko gai.

Honenbestez, hitzaldi honek DS eta PS-tankerako datiboen kasu eta komunztadura harremanak arakatu ditu. Helburu, arazi, esperimentatzaile zein jabe datiboek, guztiek eragiten dute PKM, eta beraz, guztiek egiten dute komunztadura *a*-rekin *a* eta A-ren artean kokatzen den [Espec, ApplS] gunean (Rezac 2008). PKM saihesterakoan DS-ek bezala jokatzeko dute datiboak zuzenean gune sintaktiko horretan sortzen badira ere, PS-tankerakoak gune horretara barne mugida baten bidez iristen direla argudiatuko dut. PS gisa jokatzeko dute ahalmena dela eta, datibo hauek A-ren osagarri gunean PS kategoriarekin sortzen direla proposatuko dut, eta P burua A-ri inkorporatuz iristen direla DS moduan [Espec, ApplS]-ra (Albizu 2001).

Aipamen bibliografikoak

- Albizu, P. (1997). *The Syntax of Person Agreement*. Doktorego Tesia, University of Southern California.
- Albizu, P. (2001). Datibo sintagmaren izaera sintaktikoaren inguruan: eztabaidarako oinarritzko zenbait datu. In B. Fernández & P. Albizu (arg.), *Kasu eta komunztaduraren gainean. On Case and Agreement* (orr. 49-69). Bilbo: UPV/EHU.
- Odria, A. (2017). *Differential Object Marking and datives in Basque syntax*. Doktorego Tesia, UPV/EHU.
- Ormazabal, J. & Romero, J. (2007). Object agreement restrictions. *Natural Language & Linguistic Theory*, 25, 315–347.

- Rezac, M. (2008). The syntax of eccentric agreement: The Person Case Constraint and Absolute Displacement in Basque. *Natural Language & Linguistic Theory*, 26,61-106.
- Rezac, M. (2009). On the unifiability of repairs of the Person Case Constraint: French, Basque, Georgian, and Chinook. In R. Etxepare, R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), *Beñat Oihartzabali gorazarre. ASJU*, 43(1-2), 769-790.

Aditzik gabeko aplikatiboak: islandieratik euskarara, euskaratik giza hizkuntzara

Ane Berro (Deustuko Unibertsitatea), Beatriz Fernández (UPV/EHU)

Gramatika teoriaren barruan, bereziko oihartzuna izan du Kasu Teoriak euskararen azterbidean eta euskarak bere aldetik teoriaren garapenean, eta kasuari dagokionez, datiboen inguruko gogoetari arreta berezia eskaini zaio gurean zein nazioartean. Gogoeta horretan, Aplikatibo (Apl) buruei egotzi izan zaie datiboak eratorpena gaineratzea, Pylkkänen-en (2008 [2002]) azterbidean adibidez beste askoren artean, eta proposamen horietan guztietan, Apl buru hori aditzarekiko harremanean dagoela proposatu da.

Guk lan honetan ildo nagusi horretatik bereizi, eta Apl-en eremua zabalduz proposatuko dugunez, Apl-ak aditzik gabe sar daitezke eratorpena, zehazki, izenen eta adjektiboen barruan (Berro & Fernández agertzeaz), Ingason-ek (2016, agertzeaz) islandierarako proposatu duen bezala. Islandieraz, *Arazitako Esperientzia egiturak* (ing. Caused Experience construction) deritzenetan), datibo esperimantatzaileak aditzetik eratorri ez diren ebentu izenekin batera ager daitezke, eta Ingason-en arabera, datibo esperimantatzaile horiek, erroak hautatzen dituen Ebentu Apl buru batez gaineratzen dira izenaren barruan. Guk Ingason-en teoria garatu eta islandieran jasotzen den Apl buruaz gain, euskaraz erroak hautatzen dituen Apl buru bat dagoela aldarrikatuko dugu.

Teoria honen oinarrian, bi eremu enpiriko daude: batetik, izenburuetan nagusiki baina ez bakarrik azaltzen diren ondorio/prozesu izenak, non ez den aditz txikirik islatzen (e.g. *marinelei abisua*) (Fernández & Sarasola 2010), eta bestetik, adjektibo eta prozesu izenak buru duten konfigurazio predikatiboak (e.g. *hizkuntzari leial; zeruari so*). Eremu hauetako erakusgarriez baliatuz aldarrikatuko dugu barne datibo hauek aditzetik independenteak direla.

Bestalde, Ingasonen analisisian ez bezala, zeinetan datiboa sartzen duen Apl burua Pylkkänen-en Goi Apl-ri dagokion esperimantatzaile bat gaineratzen duen aldetik, gure analisisian, Apl hautatzen duen buruari Behe Apl-ren antza hartzen zaio, helburu/iturburu datiboak gaineratzen dituen neurrian. Azkenik erakutsiko dugu euskaraz datibo esperimantatzaileak gaineratzen dituen Apl burua aditz txikiarekin harremanetan dagoela, eta datibo hauek ez zaizkiola zor, beraz, erroa hautatzen duen Apl-ri.

Aipamenak:

- Berro, A. & B. Fernández. Agertzeaz. Applicatives without verbs. *NLLT*.
- Fernández, B. & I. Sarasola. 2010. *Marinelei abisua*: izenondoko datiboak izenburuen sintaxian. *Lapurdum* 14. Baiona. 55-75.
- Ingason, A.K. 2016. *Realizing morphemes in the Icelandic noun phrase*. Ph.D. diss. Univ. of Pennsylvania. /
- Ingason, A.K. Agertzeaz. Applicatives in the noun phrase. *NLLT*.
- Pylkkänen, L. 2008 [2002]. *Introducing arguments*. Cambridge/London: the MIT Press.

Euskararen postposizioak eta kasu gramatikalak

Javier Ormazabal (UPV/EHU)

Erlazio izenetatik eratorriak diren postposizio konplexu gehienek bi konstrukzio desberdinetan parte hartzen dute: *etxearen aurrean/etxe aurrean*. Hauek erakusten dituzten desberdintasunetan oinarrituta, gramatikalariek (De Rijk 1990; Hualde 2003; ikusi, baita ere, Etxepare 2013) funtzio berezia duten erlazio-izenak direla argudiatu dute, ondoko bi egiturak proposatuz:

analysis of Foci, (v) an alternative analysis of the different types of negation (for instance, refutal negation as Neg in ResponseP + movement to a high focus position in certain cases of fake constituent negation (E&UE 2018).

References

- Holmberg, A. 2016. *The syntax of Yes/No*. OUP.
Wiltschko, M. 2017. Response particles beyond answering, ms. UBC.

Azentu ezarpenaren eremu sintaktikoaz Arantzazu Elordieta (UPV/EHU)

Lan honetan ahoskatze ziklikoak (*multiple spell out*) prosodian gauzatzen duen gertakari bat izango dugu aztergai. Zehazki, zenbait hizkeratan hitz azentugabeek dituzten azentu ereduak erreparaturaz, testuinguru jokatuagabeetan hitz hauek azentu nagusia jasotzeko duten ezintasuna azaltzeko saioa aurkeztuko dugu.

Beste lan batzuetan erakutsi denez (Hualde, Elordieta & Elordieta 1994, Jun & Elordieta 1997, besteak beste), hizkera horietan hitz azentugabeek azentu nagusia jaso dezakete aditzaren aurrean ageri baldin badira (eta, horrenbestez, foku irakurketa ahalbidetuz). Alabaina, badira zenbait testuinguru sintaktiko, aditzaren aurreko elementuaren azentu esleipena oztopatzen dutenak, hala nola zenbait mendeko perpaus jokatu (Elordieta, Elordieta & Hualde, in press, in press). Beste batzuk testuinguru jokatuagabeak dira. Zehatzago, *-tʰe* morfema oinarrian duten nominalizazioak (*-tʰea*), oharmen eta aspektu aditzen osagarri ohi diren *-tʰen* perpausak, eta *-tʰe*ko egiturak.

- (1) a. Zure andrien laguná etorten da sarri auzora
b. *[zure andrien laguná etortek] asko poztu nau
c. *[zure andrien laguná etorten] ikusi dot
d. [Zure andrien laguna etórtten] ikusi dot
e. *[zure andrien laguná ekarteko] agindu dotzo

Adger (2007), Kratzer & Selkirk (2007), edo Ahn (2015) lanen ildotik, azentuazioaren erregela ziklikoki ezartzen dela proposatuko dugu, zikloaren eremua sintaxiak darabilen ‘fase’ kontzeptuarekin lotuko dugularik. Horrela, P(ostposizioa) ere fasea dela onartuz gero (Abels 2003, 2012), goiko (1a-e) adibideetako azentuazio-kontrasteak azalpidea eman ahal izango zaio, azentu ezarketa fase-eremu sintaktiko desberdinetan gertatuko delako.

Bestalde, gure analisiak iradokitzen du tratamendu desberdina dutela aspektu imperfektiboa adierazten duen *-tʰen* morfemak eta oharmen aditzetako *-tʰen* morfemak. Izan ere, lehenetan aditzaren aurreko elementuak azentua jaso dezakeen bitartean (1a), bigarrean ezin du (1c).

Aipamenak

- Abels, K. (2003). *Successive cyclicity, anti-locality, and adposition stranding*. Doktorego tesia, University of Connecticut.
Abels, K. (2012). *Phases: an essay on cyclicity in syntax*. Berlin: Walter de Gruyter.
Adger, D. (2007). Stress and phasal syntax. *Linguistic Analysis*, 33, 238-266.
Ahn, B. (2015). There’s nothing exceptional about the Phrasal Stress Rule. ling.auf.net/lingbuzz/002458.
Elordieta, A., Elordieta, G. & Hualde, J. I., (in press). Menpeko perpausetako hitz azentugabeen foku azentuaz. *Fontes Linguae Vasconum: Studia et documenta* aldizkarian ateratzeko.
Hualde, J. I., Elordieta, G. & Elordieta, A. (1994). *The Basque dialect of Lekeitio*. ASJU-ko Gehigarriak. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

- Jun, S-A. & Elordieta, G. (1997). Intonational structure of Lekeitio Basque. In A. Botinis, G. Kouroupetroglou & G. Carayiannis (arg.), *Intonation: Theory, models and applications* (pp. 193-196). *Proceedings of an ESCA Workshop*, Athens.
- Kratzer, A. & Selkirk, E. (2007). Phase theory and prosodic spellout: The case of verbs. *The Linguistic Review*, 24, 93–105.

WORKSHOP / SÉMINAIRE 4

Studies of Basque Literature in the 21st century: diagnosis and challenges / Étude de la littérature basque au XXI^e siècle : diagnostic et défis

Director / Directrice: Mari Jose Olaziregi (UPV/EHU)

Hausnarketa zenbait etorkizuneko Euskal Literatura Ikasketez

Mari Jose Olaziregi (UPV/EHU)

Mintegirako sarrera orokor gisara aurkeztuko dudan txosten honetan, egungo Euskal Literatura Ikasketei buruzko hausnarketa egingo ditut, eta horretarako, azken hamarkada hauetan egindako ibilbidearen gaineko deskribapen batekin hasiko naiz. Zer eta nola irakatsi eta ikertu dugun esateaz haratago, ikasketa horien oinarrian egon den abiapuntu teoriko-metodologikoa izango dugu akuilu, eta baita, unibertsitate programazioetan izan diren argiak eta itzalak. Helburua ez da diagnostiko xehea egitea, euskal literatura ikasketetan irakasle eta ikerlari izan naizen aldetik, berauen ikerlerro eta jarduera orokorrak zedarritzea baizik. Esandakoaz bat, etorkizuneko erronka eta prozedurez iradokizunak eginez amaituko dut, eta baita Euskal Literatura Ikasketen lekuaz gogoeta eginez.

Zein da klasikoen egoera gaurko euskal literaturan?

Jon Casenave (Université Bordeaux-Montaigne)

Azken hogeitahamar urte hauetan, 1970eko hamarkada baino lehen idatzia izan den euskal literaturaren corpusa ez da asko landua izan ikerketa mailan. Euskal klasikoei buruzko tesia gehienak 80eko hamarkadan egin ziren. Garai hartan, Agirre, Aresti, Axular, Etxepare, Lauaxeta, Leizarraga, Lizardi, etab. aztertuak izan ziren eta, bide batez, unibertsitatearen bitartez, « kanonizatuak » izan ziren. Denbora berean, eremu unibertsitario ezberdinetan (Estatu Batuetan, Europan) landuak izan ziren sarbide teoriko eta metodologiko berriak erakarriak izan ziren euskal kritika unibertsitarioaren alorrera. Laburbiltzeko, erran daiteke euskal kritikak bere bihurgune teorikoa egin zuela 80eko eta 90eko hamarkadetan. Hobeki erranez, borobildu eta osatu zuen bere saila, Ibon Sarasola, Joan-Mari Torrealdei, Txuma Lasagabaster eta Joan-Mari Lekuona bezalako aitzindarien segida harturik. Bainan, garai hartan, ez zen gogoeta orokorrik egin «klasikoen» estatusari buruz eta obren «klasikotze» prozesuaz, irakurlekoaz eta harreraz egin ziren ikerketa lan bakan batzuk ken eta. Arrazoi sozio-historiko batzuentatik, ez zen orduko lehentasuna izan.

Jarraian, 2000-tik aurrera, klasikoei buruzko gogoeta bazterrean utzia izan da beste lehentasun batzuk bazirelakoan. Horietarik hiru premia handiko norabide kritiko aipa daitezke :

- Irakaskuntzarako programen erakargarritasuna hobetzeko gisan eta arrazoi didaktiko batzuentatik, obra garaikideei toki nasaia egina izan zaio.
- Bihurgune kritikoaren segida bat bezala ikusi behar da ere -« homologazio » teoriko mugimendu bat bezala-, 2000-tik aurrera teoria berriei emana izan zaien garrantzia euskal kritikaren munduan (Post-modernismoa, Post-kolonialismoa, etab.).
- Arteka berean, Memorioaren aldeko mugimenduak garrantzia hartu du euskal kultura garaikidean. Eta harekin batean, kalitate handiko produkzio literario bat agertu da euskal

eremuan (Atxaga, Saizarbitoria eta beste Hegoaldeko autore asko). Beraz, eskaera sozialarengatik eta euskal memorioaz agertu obren lantzeko gisan, ikerketa programak abiatu dira, literaturaren kritikaren arloan, bertze diziplina askotan bezala.

Ondorioz, ikerketa unibertsitarioaren interesa produkzio garaikidearen gainean finkatu da. Kasik ohar gabean eta nahi gabetarik, klasikoen eremua murriztu da kritikaren eta historiografiaren eremuetan.

Komunikazio honen bitartez, murrizte horren arrazoiak nahi nituzke barnatu baita ere, gaur egun dugun « klasikoekilako » harremana.

Horretarako, lau parte nagusitan bana nezake ene mintzaldia :

- Lehenik, gorago aipatu euskal kritikaren barneko aldatetak aipa nitzake.
- Bigarrenik, « klasiko » estatusa zein den gure kulturen aipatu nahi nuke. Bide batez, askok erabiltzen duten « autore zaharrak » kontzeptua galdekatu nahi nuke.
- Hirugarren partean, orain arteko « klasikotze » prozesua azter nezake, baita ere haren « geldotasuna » - eta batzuetan gelditze unek-.
- Bukatzeko, egungo egunean, zertarako ditugun « autore zaharrak » eta « klasikoak » ? galdea, iker nezake.

Bertsolaritzaren historia, subalternitate modu bat euskal literaturan

Luzia Alberro (Deustuko Unibertsitatea), K. Josu Bijuesca (Deustuko Unibertsitatea)

Euskal literaturaren azterketak XXI. menderako erronka gisa ahozko literaturaren, eta honen baitan, bertsolaritzaren azterketa historikoa du. Arrazoi ezberdinek sostengatzen dute baieztapen hau.

Lehenik, literaturaren baitan herri adierazpenei zein nolako toki egin behar diogun galderari eusten lagunduko digu honek, “literatura” kontzeptuaren zabaltasuna hertsu gabe.

Bigarren, bertsolaritzaren historiaren azterketak egoera diglosiko batean berez subalternoa den euskal literaturaren baitan subalternitatearen azterketa dakarkigu. Spivakek kontzeptu honetaz egiten duen irakurketa baliagarri zaigu honetarako: bertsolaritzaren “isiltasunaren” garaia ulertzen lagundu diezaguke honek. XV. mendeko euskal literaturan aitzindari izatez ahozko ziren testuak ditugu, Ahaide Nagusien borroketak lotuak. Dirudienek, garai hartan eliteak eta maiz emakumeak ziren bertsoak asmatzen zituztenak. Zer gertatzen da, ordea, bertsoak paperetatik desagertu eta XVIII. mende amaiera bitartean? Fernando Amezketarra (1764-1823) eta ondoren etorriko diren bertsolariek adierazpide honen indarraren berri emango digute, baina gizonak izango dira orain nagusi eta herri xehearen parte direnak, gainera. Zer da tartean gertatzen dena?

Bi eratako ikuspegia da interesgarria arazo honen azterketarako: alderdi teorikotik eten honen arrazoiak zeintzuk izan zitezkeen aztertuko dugu. Bada bigarren lan bat, luzeragokoa dena, baina egin beharrekoa: isiltasun hori puskatzen duten eta guregana iritsi diren testigutza apurrak jasotzea. Horretarako, tarte hartako literaturan edo historian esplizituki egin diren aipamenak eta bazterketak bildu beharrekoak dira. Baina ez horiek bakarrik: baita ustekabeen han eta hemengo artxiboetan (Eibar eta Asteasu, adibidez) agertzen joan diren bertsoak biltzea ere garrantzitsua da, eta areago, zein artxibategietan eta zein eratako dokumentazioan gehiago ager daitezkeen ikustea.

Hirugarren, bertsolaritza eta bertsolari izen-abizendunak euskal literaturaren historiara agertzen hasten direnetik, eta XIX. mendetik aurrera, batez ere, bertsolaritzak euskal intelektualengandik zein nolako epaia jaso duen aztertu beharrekoa da: bertsolaritzak, eta bertsolariek, galdu al dute subalternitate izaera? Euskal Pizkundea giltzarri da galdera hau erantzuteko. Manuel Lekuonaren azterketa lanek aldarrikapen izaera hartuko dute bertsolaritzari dagokionez, garaiko literaturgile eta agintariei adierazpen herritar hura baztertu ez, baizik eta eredu gisa kontuan har zezaten eskatuz. Ahalegin hark gaur egunera arte bertsolaritza eta bertsolariei ekarritakoa jasotzen saiatuko gara.

Laugarren, genero ikuspegia kontuan hartuz, bertsolaritzak bizi izandako isiltasun garai eta epai baztertzailaetan, eta baita errehabilitazio garaietan ere emakume bertsolariei aitortutako espazioa eta begiramena zer-nolakoa izan den aztertzek ere justifikatzen du XXI. mendeko literatur azterketetan bertsolaritzaren historiaren azterketa kontuan izan beharra.

Euskal literatura itzuliaren historiografia bateraturantz

Miren Ibarluzea (UPV/EHU)

1995ekoa da Mendiguren Bereziaturen *Euskal itzulpenaren historia laburra*, literatura itzuliaren barne-eremua erakundetzen hasi eta eremuko produktu espezifikoaren pilatze sistematiko-selektiboari ekin zitzaioneko. Historiografiak 16 kapitulu ditu, eta horietako 7 eskaintzen zaizkio euskal literatura itzuliari (gainerakoetan itzulpengintzaren aro unibertsalen berri ematen da). Euskal itzulpengintzaren eremua erakundetzen eta sendotzen joan da orduz geroztik, baina oraindik hori da euskal itzulpengintzaren historiografia orokor bakarra. Gure iritziz, bada garaia abiaraz dadin euskal literatura itzuliaren historiografia bateratua eta osatua, Euskal Ikasketen esparruko ikerketek emandako fruituak bilduko dituen.

Lan horri ekiteko gakoak aurkeztuko ditugu, orain arte idatzitako euskal literatur historiografiaren azterketatik ateratako ondorioak abiaburu Ibarluzea, 2017). Azterketak argi agertzen du historiografietan egindako itzulpenaren errepresentazioa dela eta eremu osora zabaltzearekin batera ikuspegi diakronikoa baliatuz egin beharrekoa dela. Oro har, ikuspegi teoriko-metodologiko ezberdinekin egin izan dira literatur itzulpenari buruzko azterketa eta aipamenak: historiografia batzuek aurretik esandakoak biltzen dituzte (batez ere literatura klasikoari dagokionez), garaian garaiko testu-zerrendak ematen dira... Baina, oso gutxitan egiten dira literatur itzulpenak izandako funtzioari buruzko gogoetak, itzulpen-korrante zein -praktikak euskal idazleen luman izandako eraginari buruzkoak, literatur itzulpena gainerako jardunekiko non kokatzen zen azaltzeko deskribapenak... Hortaz, ondoriozta dezakegu itzulpen-zerrendez eta katalogoez harago, itzulpengintzaren eraginen eta horiei buruzko gogoeten bilketa eta bilakaeraren interpretazioa egitea dela Euskal Ikasketa garaikideen erronketako bat.

Itzulpengintzaren soziologiaren ikuspegitik (Diaz Fouces & Monzó 2010; Sapiro 2014), euskal itzulpengintzaren historia osatua eta bateratua abiarazteko zenbait gako eta elkarlan proposatzen ditugu. Itzulpenaren soziologiak, batetik, teoria sistemikoek barne hartzen ez dituzten balio eta egoerak kontuan hartzeko eta erlazionatzeko bidea ematen du; bestalde, euskal itzulpengintzaren espezifikotasunak kontzeptualizatzeko modua. Besteak beste, kontuan har daiteke euskal literaturaren garai jakin bat ezaugarritzeko itzulpen intralinguistikoek izandako funtzioa. Hain zuzen ere, gisa horretako ikerlerroak agerrarazteko eta lantzeko bideak erakutsi nahi ditugu.

Mintegian proposatutako ardatzei atxikirik, bi helburu nagusi ditugu: a) euskal literatura itzuliaren historiarako literatur historiografiak eskaintzen dituzten datuen diagnosis egitea eta b) euskal literatura itzuliaren historiografia bateratu baterako gakoak proposatzea.

Bibliografia

- Diaz Fouces, O. eta Monzó, E. (ed.) (2010): *Applied Sociology in Translation Studies*. Universitat d'Alacant, Universitat Jaume I eta Universitat de València.
- Ibarluzea, M. (2017): *Itzulpengintzaren errepresentazioak euskal literatura garaikidean*. Doktorego-tesi argitaragabea: UPV/EHU. Mendiguren Bereziartu, X. (1995): *Euskal itzulpenaren historia laburra*. Donostia: Elkar.
- Sapiro, G. (2014): *La sociologie de la littérature*. Paris: Editions La Découverte.

Itzulpena harreman asimetrikoetan: esanak, eginak eta ezinak

Garazi Arrula, Elizabete Manterola (UPV/EHU)

Euskaratik erdaretarako literatura itzulpenean eragin nabarmena izan ohi du xede hizkuntzarekiko edo kulturarekiko bizi duen asimetriak. Gaztelania da euskal literatura itzulpenen xede hizkuntza nagusia, itzulpen guztien % 46,68 biltzen baititu (Manterola 2012: 146), eta kopuru horrek nolabaiteko menpekotasuna erakusten du hizkuntza horrekiko. Menpekotasun hori, baina, beste erdaretarako itzulpenetan ere islatzen da, haietarako bidean gaztelaniak betetzen duen bitartekaritza dela eta. Bestalde, euskaratik gaztelaniarako itzulpen-trukean autoitzulpenak presentzia nabarmena du (Manterola 2012; Arrula-Ruiz 2018), eta interesgarria da ikustea zein den gainerako erdaretarako bidean euskarazko sorburu testuak eta autoitzuliriko testuak betetzen duten rola.

Autoitzuliriko testuei berariaz erreparatuz, merkatu literario hegemonikoak hizkuntza gutxituan sorturikoa hizkuntza nagusira itzul dadin nahi izaten du, eta, halakoetan, autorearen itzulpenak hobesten (Grutman, 2013); horrela, itzulitako testu horiek (bigarren) jatorrizkotzat aurkezten zaizkio maiz xede irakurleriari. Ondorioz, gerta daiteke bai testuaren bai itzultzailearen identitate linguistiko eta kulturala lausotzea. Orobat gertatzen da itzulpen jardunarekin berarekin, idazketaren itzalpean gelditu ohi baita, diskurtso mailan behinik behin.

Itzulpena norbere identitatea (bir)pentsatzeko modu bat izan daiteke, eta horren zantzuren bat antzeman liteke autoitzultzaileek itzulpen prozesuaren aurretik, bitartean eta ondoren hartzen duten posizio sozialari begiratuta. Beren euskarazko lanak itzuli dituzten hiru idazle emakumezko itzulpenarekiko duten jarrera eta ikuspegia aztertu, eta identitate euskaldun mugakide eta subordinatuak kategorizazio soziala zenbateraino baldintzatzen duen eztabaidatuko dugu.

Erreferentziak

- Arrula-Ruiz, Garazi (2018). *Autoitzulpenaren teoria eta praktika Euskal Herrian*. UPV/EHU. <https://addi.ehu.es/handle/10810/27983>.
- Grutman, Rainier (2013). “Autotraduction, asymétrie, extraterritorialité”, C. Lagarde & H. Tanqueiro (eds.) *L'autotraduction aux frontières de la langue et de la culture*, 37–42.
- Manterola, Elizabete (2012). *Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulia. Bernardo Atxagaren lanen itzulpen moten arteko alderaketa*. Bilbao: UPV/EHU.

Alegia genero transbertsalaren ikerketa erkatu saiakera bat

Katixa Dolharé-Çaldumbide (Université Bordeaux-Montaigne)

Jakina da alegia generoa unibertsala dela, eta bilakaera oparoa eduki duela euskal literaturan ere bai, XVII. mendetik hona: alegiagile euskaldun gehienek Esopo, Fedro, La Fontaine edo Florianen testuak itzuli zituzten. Momentuko, ez da ikerketa erkatu osorik egin euskal bertsio ezberdinen artean, ez eta euskal bertsio horiek eta beste hizkuntzetan idatzitako jatorrizko bertsioen artean. Komunikazio honetan, egitekoa den lan hori abiarazi nahiko genuke. Iparraldeko lau alegiagile hartuko ditugu, Arxu, Goihetxe, Zaldubi eta Oxobi, eta horien idatzietan barna lau alegiaren bilakaera aztertuko dugu. Ikuspegi diakronikoa eta konparatiboa, azterketa narratologikoa eta generoaren transbertsaltasuna izanen ditugu oinarri. Kontutan hartuko ditugu tartean idazleen xedeak (gariari eta ibilbide pertsonalari begira), horien itzulpen lanaren nondik norakoak, obra bakoitzaren harrera. Ondorioztatuko dugu euskal literaturaren baitan akulturazio literario prozesuan genero garrantzitsua izan dela alegia; eta kulturen arteko zubiak eraikitzeaz gain, sorkuntza iturri emankorra ere badela.

Bibliografia

- Adema, G., Zaldubi. (2010). *Alegiak eta bertze neurtitzak*. Euskaltzaindia.
- Archu, J. B. (1848). *Choix de fables de La Fontaine: traduites en vers basques par J.-B. Archu. La Fontainaren alegia-Berheziak, neurt-bitzez frantzesetik usakarara itzuliak*. La Réole: Pasquier.
- Ésope. (2012). *Fables*. É. Chambryren itzulpenekin. Paris: Belles-Lettres.
- Florian, J.-P. C. De. (1792). Paris: P. Didot l'aîné.
- Goyhetché, M. (1978). *Fableac edo aleguac Lafontenenetari berechiz hartuac*. Donostia: Hordago.
- La Fontaine, J. (1991). *Oeuvres Complètes I*, J.-P. Collineten edizioa. Paris: Gallimard, La Pléiade.
- Oxobi. (1926) *Alegiak*. Baiona: Sordes.
- Phèdre. (1924). *Fables*. A. Brenoten itzulpenekin. Paris: Belles-Lettres.

Hurbilketa bidaia-kontakizunari

Aitor Ortiz de Pinedo (IRALE-Eusko Jaurlaritzan)

Gogoeta metodologiko batzuk plazaratuko genituzke komunikazio honetan, bukatu berria dugun tesiarene ikerketa-prozeduran sakonduta. Ikergaia izan dugu Jean Etxepareren *Beribilez* (1931) bidaia-liburua, azterbide ideologiko/imagologiko batekin. Komunikazio honek metodologia hori zabaltzen saiatuko litzateke, eta zer baldintzatan posiblea litzatekeen aztertuko marko orokorrageo batean.

Globalizazio famatuaren garai honetan, bidaiek gero eta leku handiagoa dute jendearen bizimoduan eta herri-iruditerian. Globalaren eta lokalaren arteko tenkak indarrean dirau, areago euskalduna bezalako kultura gutxitu batean. Gogoan dugu Martha Nussbaum irakasleak egin duen lana filosofia eta literatura uztartuta. Harek globo guztirako humanitateen eredu bera sustatu nahiko luke, Greziako ondareari eutsiz ardatz nagusi gisa: euskal literaturari balioko lioke?

Beste aldi batetik, humanitateen atzerakadari (literatura barne) aurre egiteko teknologiaren eta ekonomiaren oldarraren aurrean, proposamen eraginkorrek egiteko unean, bidaia-literaturak etorkizuna izan ote lezakeen begiratuko genuke, eta hori zein baldintzatan.

Bidaia izan daiteke kolpe hutsa; indarberritzea; exotismoaren bilaketa iheslaria, etab.

Hari beretik, uztartzen saiatuko gineteke: bidaia eta Bestea ezagutzea, pentsamendu kritiko baten esparruan; hedonismoa eta abertzaletasuna nola uztartuko liratekeen genero honen bitartez. Gozamen mota posibleak, gizarte hedonista honetan, non dirudien euskal literaturak ere bide hori segitu beharrean dagoela, irakurleria urria zabaltzeko.

Bidaia aztertzekeo metodologia honek bi atal nagusi izango lituzke, Daniel-Henri Pageauxren imagologiari kasu eginez: ideologia eta iruditeria. Ideologiaren azterketa semiotikoak Philippe Hamonen bideari jarraituko lioke (*Texte et idéologie*), eta imagologikoak Pageaux literatur konparatistak argitaratu dituen imagologiaren inguruko hainbat artikuluri. Agian, estiloaren esparruan ere sar gintezke. Nolabait, gogoeta egingo genuke metodologia honen erabilgarritasunaz etorkizunari begira, gure egunotako bidaia-kontakizunen markoaren barruan. Badirudi bidaia behar dela, baina zer baldintzatan, gure kasuan?

2. Bidaia aztertzekeo eskema

2.1. Ideologia (Hamon)

2.1.1. Etika: bidaiaren ikuspegi etikoa

2.1.2. Estetika-balioen isla bidaia-kontakizunean

2.1.3. Bisitatzen den tokian, lana nola jasotzen den testuan.

2.1.4. Hitz bereziak, bisitatutako lurraldearekin lotuak.

2.2. Iruditeria (Pageaux)

2.2.1. Estereotipoak: “nazionalak”, sozialak...

2.2.3. Interdiziplinaritatea: bidaia eta testuingurua (giza zientziak, gizarte-zientziak)

2.2.3. Bestea: nola islatzen den jatorrizko herrialdeko Ni-a, jomuga-herrialdeko Bestearen irudian.

Bibliografia

- Carrizo, S. (1997). *Poética del relato de viajes*. Kassel. Édition Reichenberger.
Hamon, Ph. (1984). *Texte et idéologie*. Paris. PUF.
Leoné, S. (2008). *Euskal Herri imaginario baten alde*. Elkar.
Lorenzo-Arza, M. (2016). “La construcción de la nación asimétrica en los libros de viajes y cuadros de costumbre regionalistas” *Academia.edu* sareko ataria [2016-II-05]
Luku, A. (1998). “Bidaia literaturan” *Hegats* 19/20.
Pageaux, D. H. (1994). *La littérature générale et comparée*. Armand Colin. Paris.
Pageaux, D. H. (2008). *Le séminaire de `Ain Chams*. Paris. L’Harmattan. I.

Kritika genetikoa egungo euskal literaturan: ikerlerroak, hurbilpenak eta erronkak

Mikel Ayerbe (UPV/EHU)

Kritika genetikoaren edota testu genesiaren ikergeraia testuaren ekoizpena eta bilakaera den heinean, idazketa prozesuaren berreraiketa azaleratzea du oinarritzeko helburu, “bukaturiko” obra baten *aurre-testuak* aintzat hartu eta testuaren inguruko informazio eta interpretazio bide eraginkor ugari eskainiz. Alde horretatik, nabariak dira ikerlerro honen eragozpenak, eskuarki argitaratzen dena amaituriko obra izaten baita eta, aldiz, *eskuizkribu modernoek*, idazlearen eremu pribatuari dagozkionak, nekez ikusten baitute argia. Edonola ere, bereziki Frantzia garatu den kritika genetikoaren arloko teoriarari eta aditu nagusiek (Bellemin-Noël; Biasi; Debray-Genette; Gréssillon; Hay) eta Institut de Textes et Manuscrits Modernes (ITEM) bezalako erakundeko ikerlariek ederki frogatu dute Flaubert, Valéry, Proust eta beste zenbait idazle kanoniko zein garaikideren corpusa aztertuz ikerlerro honek literatur obren interpretaziorako eskaintzen dituen onurak: behin-betiko testuari baino behin-behineko *aurre-testuei* erreparatzea, *eskuizkribu moderno* “nozio hibridoaren” bilakaera eta tipologiak zehaztea, *zirriborroen* eta *dosier genetikoaren* arteko zehaztapen terminologikoak eta idazketa aldien banaketa bezalako kontzeptuak zedarritzea, tresna metodologiko bikainak bihurtzen dira literatur lanen analisi hermeneutikorako, aztergaiaren fokua “amaituriko” obratik idazketa prozesuaren azterketara eraldatuz, sorkuntza prozesuaren baitan idazleek dituzten gatazka, edo hautu poetikoen adierazle ere bihurtzen diren neurrian.

Euskal literatura garaikideari dagokionez, kritika genetikoaren inguruko azterketak ugariak izan ez badira ere, hurbilpen oso interesgarriak egin dira ordea eta eginiko ikerketek sorkuntza prozesuaren bilakaeraren garrantziaren berri emateko balio izan dute. Hori horrela, aurkezpen honetan euskal literaturako obrak oinarri izanik testu genetika baliatu den ikerketei erreparatu labur bat egingo zaio, bereziki Aurelié Arcocha-Scarciaren, Mari Jose Olaziregiren eta Joana Pocheluren lanak aintzat izanik, eta Atxaga edota Lekuonaren gaineko azterketak kontuak hartuz.

Era berean, kritika genetikoaren eta egungo euskal literaturaren inguruko erronkei heltzea dagokigu. Batetik, ezinbestekoa delako adibide zehatzak baliatuz ikerlerro honek eskaintzen dituen onurak nabarmentzea eta horretarako, Sarrionandiaren zenbait poema edota ipuin hartuko dira aintzat. Baina bereziki, Saizarbitoraren *Egumero hasten delako*-ren kasua aztertuko da, aurre-testu eta aldaera ezberdinei erreparatuz.

Azkenik, etorkizuneko erronkak aurreikusi eta ikerketa eremu honen garrantzia azpimarratu behar da. Izan ere, idazleen aurrettestu, zirriborro eta gainerako lekukotasunak lortzeko dauden zailtasunak kontuan izanik, idazleen lanak gordetzen diren artxibategi eta dokumentazio zentroek berebiziko garrantzia bereganatzen dute. Euskal Herrian ez da, ordea, espresuki zeregin horri erantzuteko artxibo, liburutegi nazional edota bestelako erakunderik eta zoritxarrez, idazleen lan asko hortik zehar sakabanatuta daude, asko eta asko galbidean. Arestiren lanak dira horren adibide. Zorionez, berriki, Xabier Leteren funtsa Gipuzkoako Aldundiaren esku geratu da eta lan horien azterketan kritika genetiko ezinbesteko lan-tresna bilakatzen da interpretazio berriak eskaintzeko.

Trauma ondoren: gehiegizko oroimena eta ahanzturak euskal literaturan

Nerea Arruti (UPV/EHU & Mondragon Unibertsitatea)

Traumak eragiten duen dinamika, alde batetik, ezabatzailea da eta, bestetik, gehiegizkoa. Dinamika hori islatzen da traumari buruzko eztabaidetan. Hots, trauma erabili egiten da (esate baterako, Susannah Radstone kritikariaren iritziz) edota traumak isilarazten gaitu. Euskal testuinguruan bi mutur horiek azaleratzen direnean, ez dira prozesu psikologikora atxikitzen, errelatora baizik. Azken finean, dinamika kontrajarri hori gatazkari buruzko zerrendak antolatzen direnean ere agerikoa da.

Marko teoriko hori abiapuntutzat hartuz euskal literaturaren traumaren lanketaren inguruko hausnarketa proposatu nahi dut, nire helburua traumaren dinamika literaturan aztertzea da eta ez trauma hori eztabaida teorikoan islatzea.

Bibliografia

- Norman Finkelstein, *The Holocaust Industry: Reflections on the Exploitation of Jewish Suffering*, London: Verso, 2000.
- Suzannah Radstone, "Trauma Studies: Contexts, Politics & Ethics", *Other People's Pain: Narratives of Trauma & the Question of Ethics*, Oxford: Peter Lang 2011, pp. 9-29.

Baserriaren tematika marginaletik euskal poetika errurala berrira, Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren adibidea

Itziar Madina (IKER UMR 5478)

Euskal literaturaren ikerketan erruralitatearen gaia ohiturazaletasunari lotu izan zaio, historikoki. Baina Eñaut Etxamendik (Esterenzubi, 1935) erruralitatearen poetika berritzen jakin izan du, euskal literatura garaikidean. Etxamendiren obra narratiboan XX. mendeko euskal jendartera modernitateak ekarritako gatazkak azaleratzen dira. Narrazioan jakintza antropologikoak jorratzen dira, euskal kulturaren aztarnak josten zaizkio testuaren hizkuntzari eta dei egiten zaio euskal herriaren memoria luzeari.

Hau da, euskal literatura-ikerketen zer aztergai idekitzen ote du narrazio etxamendiarrak? Hasteko, «urratutako idilioa»-ren kontzeptura hurbiltzeko aukera ematen du. Hots, literatura unibertsalak ezagutu zuen aro historikoarekin lotzea eta ikuspegi konparatibista zabaltzea bideratzen du. Bestalde, baserriaren gaiak munduko beste literaturetan utzitako narrazioak euskal literaturak emandakoekin parekatzea baimentzen du. Azkenik, narrazio etxamendiarrak subordinazio egoerak arakatzeko parada eskaintzen du. Honela, etxamendiar narrazioak Michail Bakhtinen, etnokritikaren eta postkolonialismoaren ildo teorikoak onartzen ditu.

Harago baina, etxamendiar obra literarioak euskal komunitatea bere osotasunean galdezketatzen du eta honi engaiamendua eskatzen dio. Besteak beste, hizkera literario ez batua erabiliz edota ekoizpen poetiko eta sinboliko marginala landuz. Zentzu horretan, narratiba etxamendiarrak euskal literatura-ikerketen instituzionalizazioaren berezitasun zenbait gainditzen eta berritzen laguntzen duela erran daiteke.

Bibliografia

- Bakhtine M. Esthétique et théorie du roman. Paris : Gallimard, 2004. 488 orr.
- Privat J. M. & Scarpa M. Horizons ethnocritiques. Nancy : Presses Universitaires de Nancy, 2010. 272 orr. (Collection Ethnocritiques).
- Said E. L'Orientalisme : l'Orient créé par l'Occident. TODOROV Tzvetan (Ed.). Paris : Seuil, 1980. 392. or.
- Spivak G. C. Nationalisme et imagination. Paris : Payot, 2011.
- Spivak G. C. Les subalternes peuvent-elles parler ?. Paris : Éditions Amsterdam Argitaletxea, 2009.

Euskal narrazio gintzaren gorputz feminista Iratxe Esparza (UPV/EHU)

Emakumezko protagonisten presentzian arreta jartzean, gorputzaren gizarte-teorian oinarritzen gara: batetik, helburua da ohartzea gorputzaren tratamenduak jasandako gizartearekiko egokitzeaz eta, bestetik, adieraztea egokitze hori lotuta dagoela mugimendu feministan gorputzaren kontzeptuaren bilakaerarekin. Beraz, emakumezko pertsonaien bidez ikusten dugu gorputza nola islatzen den sormen literarioan. Horretarako eta hasteko, bi emakumezko idazlek euskal literaturan idatzitako bi eleberriri erreparatzen diegu: Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik Panpox* (1979), euskal literaturan emakume batek idatziko lehendabiziko eleberria, eta *Jenis Joplin* (2017), gorputz-identitateari buruzko ikuspegi ezberdinen erakusgarria.

Literatura identitatearen eta irudien ekoizle gisa interpreta daiteke; horregatik, literatura irudikapen mekanismotzat hartuz gero eta pertsonaia kutsu semantikoa erakusten duen esanahizat, obretako emakume protagonistak mezua ezartzeko ezinbesteko zeinu bezala agertzen dira. Ulertu eta ikertu behar dena da nola betetzen diren esanahiz hutsik dauden zeinu horiek, esanahi kulturalak dena inguratzen eta baldintzatzen duelako. Ondorioz, literatur lanek kapital kultural globalaren eta kapital sinbolikoaren iturri bezala funtzionatzen dute, identitatearen eraikuntzak kultur-sistemekin etengabeko harremana erakusten duen bitartean. Izan ere, identitatearen inguruko gogoetek bestelako kezkarri utzi diete lekua: identitate kulturalak besarkatzen dituen esparruei (Hall, du Gay 2003), *Beste*ari lekua egiten dion identitate erlazionalari (Said 2008) edo genero identitateari (Butler 1999).

Zalantzarik gabe, identitateak gorputzean pausatzen dira, beraz, gorputza identitatearen espazio kodifikatua izatean, testu bat izango balitz bezala irakurri eta deskodifikatzen dugu. Ikuspegi metafisikotik urrunduz, denborarekin gorputza harilkatzen doazen diskurtsoen bidegurutze bihurtu da: etengabeko prozesuan dagoen eta esanahi testuala daukan kategoria. Emakumezko pertsonaien presentzia kontuan hartuta, aldaketak eta ikuspegi desberdinak argi islatzen dira protagonistaren unibertso bakoitzean, gorputz bakoitzean. Hortaz, asmoa da *Zergatik Panpox* eta *Jenis Joplin* eleberrietako emakumezko protagonisten gorputz-esperientziak erreparatzea. Estebanek (2014) kulturaren zama, diskurtsoak eta esperientziak erresistentziatik ulertzen ditu, eta erresistentziarena erreferentziatzeko ikuspuntua da emakumezko pertsonaiek beren burua nola definitzen duten zehazteko. Hortaz, non kokatzen dira bi eleberrietako protagonistak? Erantzuteko, testuinguru sozialean kokapenaren politikaz (Rich 1984) hitz egin behar da.

Bibliografia

- Butler, Judith (1999). "Sujetos de Sexo / Género / Deseo", in Neus Carbonell & Meri Torras (arg.) *Feminismos literarios*, Madrid: Arco.
- Esteban, Mari Luz (2014). "Gorputzaren antropologia, gorputz-ibilbideak eta genero-harremanak", in Alaitz Aizpuru & Bakarne Altonaga Begoña (koord.) *Diskurtsoak, eraikuntzak, gorputzak. Gorputzen eta binarismo sexualaren eraikuntza*, Bilbo: UEU.
- Hall, Stuart & Paul du GAY (2003). *Cuestiones de identidad cultural*, Buenos Aires: Amorrortu.
- Rich, Adrienne (1984). "Apuntes para una política de la ubicación", in Marina Fe (coord.), *Otramente, lectura y escritura feministas*, México: UNAM.
- Said, Edward (2008). "Antagonistas, públicos, seguidores y comunidad", in Hal Foster: *La posmodernidad*, Barcelona: Kairós.

Kontakizunaren borrokatik kontakizunen elkarbizitza irudikatzea Gorka Mercero (University of Liverpool)

Euskal literatur kritikak oraindik ere urte luzeetan izango du nazioaren gaia ardatz nagusietakoa. Espainiako estatuak Espainia nazio bakarra delako tesia modu monolitiko eztabaidaezinean finkatu nahi du. ETArek historiari nola begiratuko zaion ere modu bertsuan finkatu nahi dute estatuak, bere

erakundeek, hedabide nagusiek zein akademiko ugariak. Euskal Herrian gatazkarik izan ez delako tesia da oroimen horren ardatz bihurtu nahi dutena: ez da *gatazka* egon funtsean nazio bakar bat osatzen dugulako espainiarrok.

Baina espainiar horietako askok espainiarrak ez beste zerbait garela uste dugu. Euskal herritar askok eta askok ere halaxe pentsatzen eta sentitzen dugu. Hortxe, beraz, Espainiako estatuak ezkutatu nahi duen gatazka. Horixe, beraz, euskarazko literaturak nola edo hala gorpuzten jarraituko duen arazo politikoa. Horrexegatik, beraz, heldu beharko dio euskal literatur kritikak *kontakizunaren borroka* delakoari, Espainiak euskal nazioa ukatzen jarraitzen duen bitartean euskal literatur kritikak ezingo baitu besterik gabe sustatu ETAre historiaren gainean kontakizun bakar bat osatzeko helburua.

Hori dela eta, ez da argi ikusten nola euskal literatur kritika aldi *postnazional* batean murgil litekeen, hain zuzen ere, bere jardunak euskal diferentziaren aldarrikapenetik abiatzen jarraituko baitu, euskal diferentzia kultural eta nazionalaren aldarrikapenetik, alegia. Baina, aldi berean, nekez egingo du ekarpen esanguratsurik ez badio begiratzen inguruko hizkuntzetan sortzen ari den literaturari. Nola esan ezer funtsezko egungo euskal gizartearen gainean ez bada, adibidez, Fernando Arambururen *Patria* (2016) ere aztergaiaren barruan sartzen. Euskarazko literaturak euskal gizarteari eman nahi diona ezin da jada euskarazko literaturaren eremuaren barrutik bakarrik argitu, euskal gizarte berberak gaztelaniaz ere sortutakoa barne hartu beharko da azterketa horretan ikuspegi orokor esanguratsua erdiestekotan: *postnazionala, ez; konparatiboa, bai*.

Halere, gatazka politikoa zein euskal diferentzia azpimarratzen jarraitzea ez da euskal literatur kritikak hartu behar duen helburu bakarra. ETAre amaieraren harira, esan daiteke badagoela adostasun-puntu bat, gutxienez, euskal gizarte osoak erdietsi duena, alegia, indarkeria bazter uzteko beharra. Hor, aldeak alde –eta aldeok nabarmenak badira ere–, Gesto por la Paz-ek, kasu, aspaldi hasitako bide berean koka liteke egun ETA bera ere, bere burua desagerrarazita ETAk ere indarkeriari uko egin baitio finean. Euskal Herritarrok badugu, beraz, zerk batu, zerk banandu. Ez dakiguna da non ote dagoen bi horien arteko oreka. Banatzen gaituenak garena zein izan garenari buruz aritzeko kontakizun ezberdinak erabiltzera bultzatuko gaitu; batzen gaituenak kontakizun horien arteko elkarbizitza bilatzera. Ez dugu oreka-puntua ezagutzen, eta berori irudikatzen saiatuko den literatura behar dugu. 80ko hamarkadan Jesus Mari Lasagabasterrek esan bazuen euskal literaturak *errealitateari* heldu behar ziola, 30 urte geroago *irudimenari* helduko dion literatura bultzatu behar dugu.

Zentsura ikasketak gaur egun. Aplikazioa euskal literaturan

Amaia Elizalde Estenaga

Hamarkada pare bat igaro da Joan Mari Torrealdai euskal literatura eta zentsuraren inguruko lehen lanak argitaratu zituenetik. Lan horiek francopeko erregimenaren aparatu zentsore instituzionalaren jardunari erreparatu zioten, Manuel Luis Abellán eta Maria Josepa Gallofré i Virgilik gaztelaniaz eta katalanez idatzitako literaturaren gainean egindako azterketa garaikideen ikuspegiaren ildotik. Orduz geroztik, zentsuraren gaineko teoriak nazioartean garapen nabarmena izan duen arren, euskal eremuan oso urriak izan dira zentsura ikasketen arloko ekarpen teoriko orokorrak, bai eta euskal literaturaren esparru zehatzera egindakoak ere.

Frakismoarekin hasi zen euskal literatur eremuko zentsura? Francopeko garaian zein zen erbesteko eta Ipar Euskal Herriko egoera zentsorea? Zein izan zen itzulpengintzaren rola? Zein eragin izan zuen zentsurak euskaldunon ondare sinbolikoan? Eta klasikoen irakurketan? Galdera horiek guztiak erantzuteko, eta zentsura ikasketen berritze teorikorako beharra atzematearekin batera, iker eremu honek euskal literaturarekiko harremanean irekitzen dituen lerroak arakatzeari ekin zaio berriki.

WORKSHOP / SÉMINAIRE 5

Training teachers to teach oral Basque / Formation des professeurs pour l'enseignement de la langue basque orale

Director / Directeur: Ibon Manterola (UPV/EHU)

Ahozko euskararen irakaskuntzarako irakasleen prestakuntza: euskararen komunitatea garatzeko osagaia

Ibon Manterola (UPV/EHU)

Hitzaldi honetan ahozko hizkuntzaren irakaskuntzarako prestakuntza euskararen komunitatearen garapenean nabarmen eragiten duen osagaia dela argudiatuko da. Hausnarketa hau euskararen biziberritze prozesuaren “bidegurutze-fasean” kokatuko dugu (Irizar, 2017). Eskolaren eta euskararen irakaskuntza-ikaskuntzaren esparruei dagokienez, fase horren erakusgarri dira Arrue Proiektuko eta Ebaluazio Diagnostikoko emaitza kezagarriak (Eusko Jaurlaritza, 2013; ISEI-IVEI, 2018).

Inguruan dauzkagun hizkuntza hegemonikoen kasuan bezala, ahozko hizkuntzaren irakaskuntza auzi didaktiko konplexua da, besteak beste, ahozko hizkuntza objektu didaktiko gisa definitzen zaila delako, eta ondorioz, kostatzen delako irakaskuntza helburu eta baliabide eraginkorrak diseinatzea (De Pietro eta beste, 2017; Diaz de Gereñu, 2017; Garcia-Azkoaga, 2015). Ahozkoaren didaktikako zailtasunen eragina, ordea, askoz larriagoa da euskararen komunitatea bezalako komunitate gutxituen kasuan, ikasleek aukera murrizak daukatelako eskolaz kanpo ahoz jarduteko, eta beraz, ahozko hizkuntza garatzeko. Hain juxtu, ahoz jarduteko gaitasun mugatua da hiztun berriek egunerokoan euskara gutxiago erabiltzearen arrazoietakoa bat (Ortega, 2017). Dena dela, euskara gehiago egiten den inguruetan ere sumatu dira ahozkoaren didaktikaren mugak: Zabalaren (2018) lanean ahozko hizkuntza irakasteko orduan irakasleek menderatzen ez dituzten alderdiak erakusten dira, irakasleen beraien ahotik jasota: adibidez, helburu komunikatiboen eta testu moten ezaugarriak, eta ahozko ereduaren azterketa eta ebaluazioa.

Premia didaktiko eta soziolinguistiko hauek denak gogoan, irakasleen prestakuntza euskararen biziberritzearen ziklo berriko ardatzen artean kokatuko genuke. Gure ustez, berrikuntza pedagogiko eta sozialarekin lotuta garatu behar da euskarazko irakaskuntza (Idiazabal, 2003), arreta berezia jarrita ahozko euskararen irakaskuntzarako prestakuntzari eta alor honetako ikerketari.

Bibliografia

- De Pietro, J.P, Fisher, C. & Gagnon, R. (2017), *L'oral aujourd'hui: perspectives didactiques*. Namur: PUN.
- Eusko Jaurlaritza (2013), *Ikasleak biztun. 2011ko Arrue Proiektua. Ikerketaren emaitza. Adituen iritzi-azalpenak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Diaz de Gereñu, L. (2017), “Eskola bidezko euskararen biziberritzea: arrakastarako baldintzak aztergai”, in Landabidea, X., Goirigolzarri, J. & Manterola, I. (arg.), *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*. Bilbo: UEU.
- Garcia Azkoaga, I. (2015), “Ahozko euskara, ikerketarako unibertsoa”, *BAT soziolinguistika aldizkaria*. 96 (3). 11-27.
- Idiazabal I. (2003), “Euskal Irakasteredu elebidunak etorkizunari begira”, in Atxaga, M. (Ed.) *Euskaltzaleen Biltzarren Mendeurrena. Sabino Arana Elkargoaren Jardunaldiak 2001*. Bilbao: Sabino Arana Elkargoa.
- Irizar, M. (2017), “Euskara biziberritzeko ibilbidea: azterketa kritikoa”, in Landabidea, X., Goirigolzarri, J. & Manterola, I. (arg.), *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*. Bilbo: UEU.
- ISEI-IVEI (2018), *Ebaluazio diagnostikoa. Txosten exekutiboa oinarritzeko hezkuntzaren egoerari buruz (LHko 4. Maila-DBHko 2. Maila)*. Gasteiz: ISEI-IVEI eta Eusko Jaurlaritza.

- Ortega, A. (2017), "Gazteen hiztun-profil berriak eta ideologia berriak", in Landabidea, X., Goirigolzarri, J. & Manterola, I. (arg.), *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*. Bilbo: UEU.
- Zabala, J. (2018), *Ahozko komunikazioa irakastea. Norabide bat ahozko hizkuntzaren argitan*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra.

Sekuentzia didaktikoak ahozkoa lantzeko: nola osatu irakasleen formazioa?

L. Diaz de Gereñu (UPV/EHU), I. Idiazabal (UPV/EHU), L. M. Larringan (UPV/EHU)

Irakasleen ahozkoaren irakaskuntzaren prestakuntza ingeniari-tza didaktikoaren bidetik (De Pietro et al., 2003) egiteko hautua sendotzen ari da euskararen irakaskuntzan (Olasagarre & Mugerza, 2015 & Zabala, 2018). Genevako ereduaren arabeko sekuentzia didaktikoaren metodologia ahozkoa lantzeko ere bide eraginkorra dela frogatua den arren (Dolz & Schneuwly, 1998) ahozkoaren didaktikak ez du lortu objektu irakasgarri bezala egonkortzerik eta aurrerapenak uste baino motelagoak izan dira (Gagnon eta beste, 2017). Zein eragozpen mota aurkitu ditu aurrerapen horrek? Ideologikoak, ahozkoaren ezaugarritzearekin eta horrek behar duen transposizio didaktikoarekin lotutakoak, eta ahozkoaren ebaluazioaren konplexutasunarekin lotutakoak (Dupont & Grandaty, 2018).

Euskararen irakaskuntzan sekuentzia didaktikoen bitartez honako maila hauetan identifikatu dira egindako aurrerapenak (Zabala, 2018): emozioen eta komunikazioaren kudeaketan, talde partaidetza eta entzute aktiboan, testuinguru formalak eta informalak bereiztean, testu egituraren lanketan, edukien antolaketan, diskurtsoaren luzapenean, proxemikako eta kinesikako elementu ez berbaletan. Berriz, berbazko estrategia testual eta diskurtsibo, ahozkoaren sintaxi, ahoskera eta lexikoaren irakaskuntzarako zailtasunak handiagoak dira.

Lan honetan, irakasleen formaziorako eskaintzen diren zenbait sekuentzia didaktiko (Zabala, 2018; Olasagarre & Mugerza, 2015) aztertuko dira hauetan agertzen diren lorpenak aitortzeaz gain irakaskuntzarako zailtasuna izan dezaketen bi alderdiri helduz: lehenik, testuen analisisirako erabiltzen den metodologiari; eta bigarrenik, ahozkoaren sintaxiari eta gai honek eskolako jokoera normatiboarekin duen zerikusiarri. Biak ere, ebaluazioaren arazoarekin lotuz.

Bibliografia

- De Pietro, J.-F. & Schneuwly, B. (2003). Le modèle didactique du genre : un concept de l'ingénierie didactique IRDP Neuchâtel et Université de Genève. *Les Cahiers THÉODILE*, 3, 27-52.
- Dolz, J. & Schneuwly, B. (1998). *Pour un enseignement de l'oral*. Paris : ESF.
- Dupont, P. & Grandaty, (2018). L'oral, un serpent de mer?, In Aeby, S. & Guernier, M.-C., *Contextes institutionnels, réformes et recherches en didactique du français*. Namur: PUN, 97-132.
- Gagnon, R. & De Pietro, J.-F., Fisher, C. (2017). L'oral aujourd'hui: perspectives didactiques. In De Pietro, Fisher & Gagnon (Ed.). *L'oral aujourd'hui : perspectives didactiques* (11-42). Namur : Presses Universitaires de Namur.
- Sénéchal, K. et Chartrand, S.-G. (2012). Représentations et pratiques de l'enseignement de l'oral en classe de français : changements et constantes depuis 25 ans. *Représentations, analyses et descriptions du français oral, de son utilisation et de son enseignement au primaire, au secondaire et à l'université* (185-199). Côte Saint-Luc : Éditions Peisaj.
- Olasagarre, Y. & Mugerza, E. (2015). Euskara bultzatzeko esperientziak Nafarroako Irakaskuntzan: motibazioa eta ahozkoa, *BAT soziolinguistika aldizkaria*. 96, 69-101.
- Zabala, J. (2018). *Ahozko komunikazioa irakastea*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Ahozko euskara, Ipar Euskal herriko irakasleen oinarriko formakuntzan

Argia Olçomendy (UBM-IKER UMR 5478)

Ahozkoak leku berezia du gure hizkuntzan (Idiazabal, 2005), eta azken urteetan izan diren ikerketek ahozkoari interes handia adierazi diote. Baina zer da zuzen ahozko euskara? Lehenik,

funtsezkoa da euskarako irakasleek ahozko euskarak dituen ezaugarriak ezagut ditzaten : ezaugarri testualak, diskurtsiboak, linguistikoak, fonologikoak, morfologikoak, sintaxikoak. Ondotik da, ahozko euskarari buruzko didaktika plantan jarriko, klaseetan ahozko euskara molde koherentean irakatsia izan dadin. Horretarako, irakasleei euskarri egokiak eskaini behar zaizkie, sekuentzia didaktikoak beren beharretara molda ditzaten (Garcia Azkoaga, 2015).

Ipar Euskal herrian euskara-frantsesa hezkuntza sistema elebidunak azkarki garatu dira azken urteetan, izan murgiltze eredu edo oren parekotasunean (Casenave, 2007). Sistema horiek berriak dira, eraikitzen ari dira eta badakigu irakasleen formakuntza zein garrantzitsua den hezkuntza sistema baten kausitzean. Ahozkoa irakaskuntza objektu gisa hartzen da (Dolz eta Schneuwly, 1998) eta hizkuntza gutituen irakaskuntzan, bere inportantzia badu.

Komunikazio proposamen honetan, bi xede ditugu : alde batetik, aztertuko dugu ahozko euskarak zer leku duen bigarren mailako euskarako euskarri pedagogiko batean (IKAS, Kolegioko ikastresna, 2017). Bestetik, euskarri zenbait proposatuko ditugu, ahozko euskarari buruz sekuentzia didaktikoen sortzeko (Dolz et Schneuwly, 1998).

Bibliografia

- Casenave J. (2007). *Irakasleen formakuntza, frantses eredu*. Le modèle français de formation des enseignants. Séminaire sur les systèmes éducatifs. Institut de formation des enseignants, Université du Pays basque, Campus de Bilbao. « Hezkuntzaren gaineko berbaldiak », Bilboko Magistaritza eskola (EHU). 2007- 11 – 28.
- Dolz, J, Schneuwly B. (1998). *Pour un enseignement de l'oral. Initiation aux genres formels à l'école*, Paris, ESF.
- Garcia-Azkoaga, I. (2015). « Ahozko euskara, ikerketarako unibertsoa ». *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 96, 11-27.
- Idiazabal I. & Larringan L.M., (2005). « A propos de la structure périodique des énoncés oraux. Un outil pour la didactique des débats scolaires. » in J.-F. Halte & M. Rispail (Eds. (2005) *L'oral dans la classe. Compétences, enseignement, activités*, Paris: L'Harmattan, 91-103.
- Idiazabal, I. & Garcia Azkoaga I. M., (2007). *Ahozko hizkuntza: Euskararen azterketarako eta didaktikarako lanak*, Bilbo UPV/EHUko sareko argitarapena.

Ipar Euskal Herriko irakasle helduen euskarazko formakuntza ordu parekotasunezko irakaskuntza elebidun baterako

Beñat Lascano (Université Bordeaux-Montaigne)

Ipar Euskal Herriko eskola elebidunen arrakasta goratuz doa, ondorioz ikasle gero eta gehiago dira eskola horietan. Ordu parekotasuna eskaintzen duten eskola elebidunetan arrakasta hain handia da non irakasle eskasa ere nabaritu den, ondorioz, garapen honi erantzuteko Frantziako Hezkunde Nazionalak frantsesez irakasten zuten irakasle bolondres batzuk bilatu ditu, eta euskarazko formakuntza intentsibo bat eskaini die, ondoko urteetan euskaraz irakas dezaten. Aurtengo formakuntza 3.a da.

Aurkezpen honek formakuntza honen berri eman nahi luke, nolako antolaketa duen alde linguistiko eta pedagogikotik, eta nolako erronkak diren irakasle heldu batzuk formatzerakoan, ordu parekotasunezko eskola elebidun batean irakasteko (ikasleei irakatsiz ikasi berri duten hizkuntza bat eta hizkuntza batean). Gogoetak jorratuko ditu honela formatu irakasle batzuk ukan ditzaketen puntu ahul eta azkarrak: hizkuntza zuzen erabiltzeko kezka, hizkuntza ikasleentzat ulergarri erabiltzeko kezka, artetan berek edo ikasleek eginen dituzten hizkuntza hutsen kudeaketa, haien ezagutza pedagogiko eta esperientziaren egokitzapena irakasteko molde berriari; ikasleen H1ean irakastetik ikasleen H2an irakasterat pasatzerakoan, honek dakartzan irakaskuntza estrategia berriekin (hizkera erraztu bat, erritmo egokitu bat, keinuak, erdararen erabileraren kudeaketa, ikasleek bigarren hizkuntzaren kodearen ikasketa eta erabilera lotzeko, Baker, 1993; Idiazabal, 2016; Manterola, 2010; Ortega eta Anakabe, 2015).

Hizkuntza gutxitua ardatz duen hezkuntza sistema eleaniztun baten hizkuntza horren ikasketa izan behar da helburuetako bat, baina hizkuntza jakite hutsak ez du hizkuntzaren erabilera eragiten. Euskararen kasuan hizkuntzaren ahozko erabilera normalizatutik urruti gaude oraindik (Eusko Jaurlaritza, 2016).

Escolak ahoz komunikatzeko gaitasunak garatzeko eta bide horretatik euskararen ahozko erabilera eragiteko asmoarekin egindako esperientzia baten oinarritzen da lan hau.

Hizkuntzaren zeharkakotasuna eta irakasle oro hizkuntza irakasle ere badela (Garcia-Azkoaga, 2000) aintzat hartzen badugu, ezinbesteko garrantzia du arloek euskarazko gaitasun komunikatiboak garatzeko eskaintzen dituzten aukerak ondo ustiatzea, are gehiago gurea moduko hezkuntza sistema eleaniztun baten (Beacco *et al.*, 2010).

Hizkuntzakoak ez diren irakasgaien programazioetan eta ikasmaterialetan komunikazio-gaitasunek duten lekua aztertu, irakasleen gelako jarduerak behatu eta irakasleekin egindako prestakuntza-prozesuaren ondoren, ahozko-komunikazioan eragiten duten hainbat adierazle identifikatu dugu (Garcia-Azkoaga, Zabala, Bengoetxea, argitaratu gabe). Adierazle horiek irakasleen eskura era laburrean jartze aldera, hamaika jauzitan iritsi nahi dugu arloetako ahozko komunikazio-gaitasunen lanketara.

Erreferentziak

- Beacco, J.-C., Coste, D., van de Ven, P.-H. & Vollmer, H. (2010). *Langues et matières scolaires Dimensions linguistiques de la construction des connaissances dans les curriculums*. Strasbourg: Conseil de l'Europe, Division des politiques linguistiques.
- Eusko Jaurlaritza (2016). *VI Inkesta Soziolinguistikoa*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza
- Garcia Azkoaga, I.; Imaz, A.; Diaz de Guereñu, L. & Alegria, A. (2010). Ahozkotasunaren irakaskuntza bigarren hezkuntzako testuliburuetan. *Tantak* 22 (1): 7-42.
- Zabala, J.; Bengoetxea, O. & Garcia-Azkoaga, I.M. (argitaratu gabea). *Berbekin*. Soziolinguistika Klusterra & Euskal Herriko Unibertsitatea.

Akademiaren eta mintzamen-irakaskuntzaren arteko trukeaz, glotodidaktikatik

Aitor Ortiz de Pinedo (IRALE-Eusko Jaurlaritza)

Proposamena da gogoeta egitea irakaskuntzako jarduera profesionalaren eta ikerketa akademikoaren artean. Gure ekarpena etor liteke, agian, ahozkotasuna irakasteko esperientziatik: AEK, HABE, EGA (Ortiz de Pinedo, 2011), IRALE (U; R300; R600; R800).

Agian, gure gogoeta izan daiteke azken urteotako praktika ordenatzeko saioa (Richards & Lockhart, 2006 [1996]).

Harreman ez beti gozoak daude eskolaren eta akademiaren artean. Gure ikuspegia litzateke praktika gogoetsuari eustea, eta horrek zientzia aplikatuarekin izan lezakeen harremana aztertzea. Ez litzateke ahaztuko irakaskuntza artisautza (*craft*) gisa interpretatzen duen ikuspegia (Wallace, 1991). Ikuspegi psikologikoari ere erreparatu dakioke hizkuntzaren irakaskuntzan, hein apal batean (Williams & Burden, 2007 [1997]).

Historia apur bat egin liteke, adibidez, irakasbide humanistaren (Moskowitz, 1978) balantze bat eginez nolabait.

Agian orokortasun horietatik jaitsi liteke ahozkotasuna lantzearen eremu konkretuagoetara, eta ikusi eskolaren eta akademiaren artean zer truke egon litekeen: ataza bidezko irakaskuntza (Willis & Willis, 2007); testu-tipologia (Vilà i Santasusana, 2005); erretorika (Aristóteles, 2002); (Garzia, 2008); nola landu ahozkoa talde kopurutsuetan Bigarren Hezkuntzan eta unibertsitatean (McKeachie, 1999); klase magistralak antolatze bideak.

Irakurmena lantzen ari garen honetan, (EGAtik gora), bide bat da testuekin batera mintzamina lantzea. Horretan zer bide egin dugun eta egin litekeen ikustea (Ortiz de Pinedo, 2008).

Beste alde batetik, irakaslegaien formazioa zein izan daitekeen gainetik aztertu (Nunan, 1989), (Scrivener, 2005 [1994]), (Ur, 2006 [1996]).

Bibliografia

- Aristóteles. (2002). *Retórica*. Madrid: Alianza Editorial.
- Garzia, J. (2008). *Jendaurrean bizlari. Ahozko komunikazio gaitasuna lantzeko eskuliburua*. Alberdania.
- McKeachie, W. J. (1999). *Teaching Tips*. Boston, New York: Houghton Mifflin Company.
- Moskowitz, G. (1978). *Caring and Sharing in the Foreign Language Class*. Newbury House Publishers.
- Nunan, D. (1989). *Designing Tasks for the Communicative Classroom*. Cambridge University Press.
- Ortiz de Pinedo, A. (2008). Literatura ikasgelan [Interneteko baliabidea]. (E. k. (IRALE), Recopilador) Recuperado el 12 de XI de 2018, de <http://eimakatalogoa.eus/cgi-bin/koha/opac-detail.pl?biblionumber=14731>
- Ortiz de Pinedo, A. (2011). Helduak euskalduntzeko mintzamen-eraketak. *Hizpide: euskalduntze-alfabetatzearen aldizkaria*(78), 76-92. Obtenido de <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3842693>
- Richards, J. C., & Lockhart, C. (2006 [1996]). *Reflective teaching in second language classrooms*. Cambridge University Press.
- Scrivener, J. (2005 [1994]). *Learning Teaching*. MacMillan.
- Ur, P. (2006 [1996]). *A Course in Language Teaching*. Cambridge University Press.
- Vilà i Santasusana, M. (2005). *El discurso oral formal: contenidos de aprendizaje y secuencias didácticas*. Barcelona: Graó.
- Wallace, M. J. (1991). *Training Foreign Language Teachers. A reflective approach*. Cambridge University Press.
- Williams, M., & Burden, R. L. (2007 [1997]). *Psychology for Language Teachers*. Cambridge University Press.
- Willis, D., & Willis, J. (2007). *Doing Task-based Teaching*. Oxford University Press.

Arloetan euskarazko ahozko erabilerara hamaika jauzitan

Ines M. Garcia-Azkoaga (UPV/EHU)

Hizkuntza gutxitua ardatz duen hezkuntza sistema eleaniztun baten hizkuntza horren ikasketa izan behar da helburuetako bat, baina hizkuntza jakite hutsak ez du hizkuntzaren erabileran eragiten. Euskararen kasuan hizkuntzaren ahozko erabilera normalizatutik urruti gaude oraindik (Eusko Jaurlaritza, 2016).

Eskolak ahoz komunikatzeko gaitasunak garatzeko eta bide horretatik euskararen ahozko erabileran eragiteko asmoarekin egindako esperientzia baten oinarritzen da lan hau.

Hizkuntzaren zeharkakotasuna eta irakasle oro hizkuntza irakasle ere badela (Garcia-Azkoaga, 2000) aintzat hartzen badugu, ezinbesteko garrantzia du arloek euskarazko gaitasun komunikatiboak garatzeko eskaintzen dituzten aukerak ondo ustiatzea, are gehiago gurea moduko hezkuntza sistema eleaniztun baten (Beacco, et al., 2010).

Hizkuntzakoak ez diren irakasgaien programazioetan eta ikasmaterialetan komunikazio-gaitasunek duten lekua aztertu, irakasleen gelako jarduerak behatu eta irakasleekin egindako prestakuntza-prozesuaren ondoren, ahozko-komunikazioan eragiten duten hainbat adierazle identifikatu dugu (Garcia-Azkoaga, Zabala, Bengoetxea, argitaratu gabe). Adierazle horiek irakasleen eskura era laburrean jartze aldera, hamaika jauzitan iritsi nahi dugu arloetako ahozko komunikazio-gaitasunen lanketara.

Erreferentziak

- Beacco, J.-C., Coste, D., van de Ven, P.-H. & Vollmer, H. (2010). *Langues et matières scolaires Dimensions linguistiques de la construction des connaissances dans les curriculums*. Strasbourg: Conseil de l'Europe, Division des politiques linguistiques.
- Eusko Jaurlaritza (2016). *VI Inkesta Soziolinguistikoa*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza
- Garcia Azkoaga, I.; Imaz, A.; Diaz de Guereñu, L. & Alegria, A. (2010). Ahozkotasunaren irakaskuntza bigarren hezkuntzako testuliburuetan. *Tantak* 22 (1): 7-42.
- Zabala, J.; Bengoetxea, O. & Garcia-Azkoaga, I.M. (argitaratu gabea). *Berbekin*. Soziolinguistika Klusterra & Euskal Herriko Unibertsitatea.

Jardueraren azterketa irakasleak prestatzeko bide: debatearen ikas-irakaskuntzako adibidea

Aroa Murciano (Mondragon Unibertsitatea), Arantza Ozaeta (Mondragon Unibertsitatea)

Azken urteetan irakasleen prestakuntzan emandako bilakaerak formazio eredu aplikazionistak gainditzeko beharra azaleratu du. Maiz irakasleen prestakuntza teoria helaraztera eta errezetak eskaintzera mugatu izan da. Horren aurrean praktika gogoetatsua (Shön, 1992) eta ergonomia eta lan zientzia (Yvon & Saussez, 2010) bezalako lan ildoek irakasleen ezagutza praxeologikoak azaleratu eta horien inguruan hausnartzeko beharra azpimarratu dute.

Korronte berri horiek gela jarduera erreala eta irakaslearen jarduna jarri dute irakasleen formazio prozesuen erdigunean. Irakasleek haien jarduna hitzetara ekarriaz eta autobehaketa eta autobehaketa gurutzatua (Clot & Faïta, 2000) bezalako tresna metodologikoak erabilia, haien jarduna hobeto ezagutu, ezaugarritu eta eraldatzeko bideak topatuko dituzte. Hau da, haien estilo profesionala eraiki eta genero profesionala berreraikitze aukera izango dute.

Euskal Herrian irakasleen lanak baditu bereizgarriak. Euskararen egoera gutxituak eta horrek sortzen dituen testuinguru soziolinguistiko konplexuek irakaslea askotariko erronken aurrean jartzen dute (Idiazabal & Dolz, 2013). Askotan gelako edukiak irakasteaz gain irakasleek hizkuntza ere irakatsi beharko dute eta haien erronka izango da helburu bikoitz horri aurre egitea (Sainz-Osinaga et al. 2011). Horrekin batera, ikasleak askotariko ahozko ekoizpenetan trebatu behar dira eta besteak beste, hiritar kritikoak, hau da, haien iritziak modu demokratiko batean partekatu, justifikatu eta elkar entzuten dakiten pertsonak hezi behar dira (Heziberri 2020).

Proposatzen dugun ikerketa testuinguru honetan kokatzen da, hau da, praktika gogoetatsu eta ergonomia eta lan zientzien printzipio eta prozedura metodologikoak baliatu ditugu irakasleak testuinguru soziolinguistiko konplexuetan ahozko argudiaketaren lanketan trebatzeko. Irakasleek bi hizkuntzetan (euskaraz eta gazteleraz) debateak planifikatu, gauzatu eta horien inguruan hausnartu dute bideo bidez grabatu den gelako jarduna aztertuta. Helburua irakasleek haien jarduna hitzetara ekarriaz, beraien praktika hobeto ezagutu, hausnartzeko espazioak sortu eta eraldatzeko abaguneak eskaintzea izan da.

Lan honetan irakasleek azaleratu dituzten estrategia, erronka eta zailtasunak identifikatu ditugu. Honen bidez, testuinguru soziolinguistiko konplexuetan ahozkoaren ikaskuntza-irakaskuntza hobeto ezagutu da eta horren inguruan hausnartzeko eta praktika eraldatzeko espazioak sortu direla ondoriozta dezakegu.

Bibliografia

- Clot, Y. & Faïta, D. (2000) Genres et styles en analyse du travail. Concepts et méthodes. *Travailler*, 4: 7-42.
- Idiazabal I. & Dolz, J. (2013) Diversidad lingüística y formación plurilingüe. In. J. Dolz & I. Idiazabal I. (Ed.) *Enseñar (Lenguas) en contextos multilingües*. EHU argitalpenak.
- Sainz Osinaga, M., Azpeitia, A., Garro, E. Ozaeta, A., & Sagasta, P. (2011). *Nola artikulatu jakintza-arloa eta hizkuntza? Zenbait lanabes eskolan erabiltzeko*. Andoain: Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua. SS-1601-2011
- Shön, D. (1992) *La formación de profesionales reflexivos. Hacia un nuevo diseño de la enseñanza y el aprendizaje en las profesiones*. Temas de educación Barcelona: Paidós.
- Yvon F. & Saussez S. (2010) *Analyser l'activité enseignante. Des outils méthodologiques et théoriques pour l'intervention et la formation*. Canada: PUL.

Komunikazio-gaitasunak eta ikasleen ahozko euskararen erabilera. Gako zenbait irakasleen prestakuntzarako

I. M. Garcia-Azkoaga (UPV/EHU), O. Bengoetxea (Soziolinguistika Klusterra), J. Zabala (Soziolinguistika Klusterra)

Lan honen helburua da aurkeztea eskolak eskaintzen dituen aukerak ikasleen euskarazko ahozko komunikazioan eragiteko eta haien garapenari ekarpena egiteko. Gure eskola eleaniztunean, hizkuntza gutxitu baten inguruan ardaztuta dagoen heinean, arreta berezia eskaini behar zaie hizkuntza horretan garatzen diren trebetasun komunikatiboei. Jakin badakigu euskararen erabilera ez dagoela gaztelaniaren erabilera bezain zabalduta gizartean, horren adierazgarri dira, adibidez, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketaren emaitzak (Soziolinguistika Klusterra, 2016) edo hitzun berriek dituzten zailtasunak hitzun aktibo bihurtzeko (Ortega, 2017). Halaber, badakigu hizkuntza edozein materiaren oinarria den arren (Beacco et al., 2010) bere irakaskuntza oraindik ere ez dagoela behar bezain egituratuta eta garatuta, eta bide horretatik eskolak asko duela lantzeko eta emateko (Dolz & Schneuwly, 1998; Rispaïl, 2003). Baina, nondik hasi ekiten? Nola ekin? Nola ustiatu hobeto euskarak eskaintzen dituen aukerak ikasleen ahozko komunikazio-trebetasunak garatzeko? Galdera horiek erantzuteko asmoz jarri zen abian BERBEKIN proiektua. Proiektu honetan herri bereko hiru ikastetxek hartzen dute parte, denak D ereduak, bat bigarren hezkuntzako eta beste biak lehen eta bigarren hezkuntzakoak. Irakasle boluntarioen irakas-jarduna grabatu da hizkuntzakoak ez diren materietan; ondoren, elkarrekin aztertu dira grabazio horiek keinu didaktiko (Chevallard, 1991; Bucheton & Dezutter, 2008) lagungarrienak identifikatzeko, aldi berean, irakasleen prestakuntza-prozesu bat ere bideratu delarik.

Analisiari esker ikasleen euskararen erabilera eta ahozko komunikazioa sustatzeko aintzat hartu beharko lirakekeen zenbait gako identifikatu dugu. Horietako bi aurkeztuko ditugu hemen: materietan ohikoak diren testu-generoak eta irakasleen eragiteko moduak. Lehenengo kasuari dagokionez, materia bakoitzean testu-genero batzuk nagusitzen direla ikusiko dugu; bigarren kasuari lotuta, irakaslearen jarduteko erak ikasleek ahoz komunikatzeko dituzten aukerak baldintzatzen dituztela ikusiko dugu. Kasu batean zein bestean ikasleen komunikazio-gaitasunak garatzen laguntzeko uste baino aukera handiagoa dugula ikusiko dugu.

Erreferentziak

- Beacco, J.-C., Coste, D., van de Ven, P.-H. & Vollmer, H. (2010). *Langues et matières scolaires Dimensions linguistiques de la construction des connaissances dans les curriculums*. Strasbourg: Conseil de l'Europe.
- Bucheton, D. & Dezutter, O. (dir.) (2008). *Le développement des gestes professionnels dans l'enseignement du français. Un défi pour la recherche et la formation*. Bruxelles: De Boeck.
- Chevallard, Y. (1985). *La transposition didactique du savoir savant au savoir enseigné*. Grenoble: La Pensée Sauvage.
- Ortega, A. (2017). Gazteen hitzun profil berriak eta ideologia berriak. En J. Goirigolzarri, X. Landabidea e I. Manterola (eds.), *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen* (79-100). Donostia: UEU.
- Rispaïl, M. (2003). Ikasgelan hitz egin eta ahozko hizkuntza irakatsi. *Ahozketasuna ikasgelan. Ahozketasunaren garrantzia eta lanketa curriculum integratuan*. Zarautz Ikastolen elkarte: 75-86.
- Soziolinguistika Klusterra (2016). *Hizkuntzen Erabileren Kale-neurketa*. Euskal Herria.

Ahozketasunaren didaktika ikuspegi dialektotik abiatuta

Ainhoa Ezeiza (UPV/EHU)

Ahozketasuna «ahotik irteten denarekin» nahasten da, eta ez da gauza bera. Ahozketasuna eratzen duten kodeek pentsatzeak, sentitzeak eta egiteak elkarlotzen dituzte, bateratzen, horregatik, orokorrean eguneroko espazio eta denboretan sortzen da, eta hitzekin batera begiradak, keinuak, gorputz mugimenduak, muxuak, laztanak... gehitu behar zaizkio.

Ahokotasuna eskolan lantzeko, lehenik eta behin jakin behar dugu zein mekanismo inplikatzten dituen. Mostaceroren arabera (2004), ahokotasunak maila hirukoitza du aldi berean: hizkuntzaren maila, maila paralinguistikoa, eta maila semiotiko-kulturala. Hortaz, ahoko ekoizpen instituzionalaren, akademikoaren edo formalaren desberdina da, eskolan irakasten den hizkuntzaren desberdina. Eskolak proposatu duen ahoko diskurtsoa, ordea, idatzizkotasunetik sortzen da, ahoko formen perfekzioa, osotasuna, ziurtasuna sustatzen baita. Eskolaren proposamena kontzientzia linguistikoa da, baina hain zuzen ere, ahokotasuna inkontzientetik dator, idatzizkotasuna da kontzienteki pentsatu behar dena, idatzizkoaren adierazpenerako sortutako arauak betetzeko.

Ahokotasunaren dinamikak idatzizkotasunaren desberdinak direnez, desberdin landu behar ditugu. Ong-ek (1987) sakonki ikertutakoaren arabera, ahokotasunaren psikodinamikan pentsamendua jarraibide orekatu eta oso erritmikoetan sortu behar da, errepikapenak edo antitesiak erabiliz, aliterazioak eta asonantziak, adierazpide kalifikatiboak eta formulaikoak, testuinguru eta mintzagai komunei erreferentzia eginez, eta horrela nork bere erara moldatzen ditu gogoratu ahal izateko eta erraz errepikatzeko, edo beste modu mnemotekniko batzuen bidez. Ahoko oinarriak dituen pentsamendu hedatuak erritmikoa izateko joera du, izan ere, erritmoak oroimenari laguntzen dio, baita fisiologikoki ere.

Pentsamendua, hala, oroimen mekanismoekin erlazionatzen da. Ong-ek (1987) «pentsamendu formulaikoa» deitu zion, guk «errepikapen sortzailea» deitu dioguna (kultura herrikoietan gaur-gaurkoz bizirik darraiena), eta honela desberdintzen du idatzizkotasunaren mekanismoetatik:

- Perpaus gehigarriak *vs.* mendekoak
- Metagarria *vs.* analitikoa
- Enpatikoa eta partehartzailea *vs.* denboran distantzia duena
- Lekuan lekukoa *vs.* abstraktua

Hau da: idatzizkorako irakasten diren hizkuntz formak ez dira baliagarriak ahokotasunean, komunikatzeko mekanismoak desberdinak direlako.

Desberdintasun horiek oinarri hartuta eta ahokotasunaren eta idatzizkotasunaren alde kognitiboak interpretaturik, Eric Havelock-ek (1995) ikertutakoa haratago eramanez, ahokotasunak bizitza behar du bere garapenerako, eta horretarako, eskolako harremanak eraldatu behar dira bizibaldintzetara hurbiltzeko, elementu erritmikoak, hizkuntza jolasak, errepikapenak, justaposizioak... jariatzen utzi. Edo ez da jarduera fisikoak edo gorputz adierazpenekoak sartzea hizkuntza klaseetan, baizik eta ulertzea gorputza testu bat dela, eta ezin dela bereiztu gorputza-adimena; «denarekin» hitz egiten dugu. Hortaz, ikasgelaren dinamikak eraldatzea ezinbestekoa da.

Erreferentziak

- Havelock, E. (1995). La ecuación oral-escrito: una fórmula para la mentalidad moderna. D. Olson eta N. Torrance (argit.), *Cultura escrita y oralidad* (25-46). Barcelona: Gedisa.
- Mostacero, R. (2004). Oralidad, escritura y escrituralidad. *Sapiens. Revista Universitaria de Investigación*, 5(1), 53-75.
- Ong, W.J. (1987). *Oralidad y escritura: tecnologías de la palabra*. Mexiko: Fondo de Cultura Económica.

Ahoko-gaitasunen zeharkakotasuna. Hizkuntzakozkoak ez diren irakasgaiak aztergai Olatz Bengoetxea (Soziolinguistika Klusterra)

Honen gauzatzea konplexua izan arren (Bain, 1994; Larringan, 2007; Rispaíl, 2003), Dekretu curricularrean berariaz jasotzen da ahoko komunikazioa garatzeko eginkizunen beharra, eta bereziki bi dimentsio barnebiltzen ditu: ahoko komunikazioa irakas-objektu moduan, eta, irakaskuntzarako tresna moduan. Lehenengo dimentsioa gauzatzen da batik bat, hizkuntza berariaz lantzerako bideratutako material didaktikoen bidez (García-Azkoaga et al., 2010), baina bigarrenak eskatzen du ahoko komunikazioa lantzea oinarriko zeharkako gaitasuna moduan. Lan honen helburua da, hain

zuzen, zeharkakotasun hori nola eta zenbateraino gauzatzen den aztertzea hizkuntzakoak ez diren arloetan. Beste era batera esanda, komunikazio-gaitasunak lantzeko proposamenik egiten den eta nola bideratzen den ezagutu nahi dugu. Horretarako, Lehen Hezkuntzako (LH) bosgarren mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) lehen mailan baliatzen diren programazio eta material didaktikoak aztertzen ditugu, ikastetxe publiko baten eta itunpeko bi ikastetxeetan. Programazioei dagokienez, irakasgai guztietakoak aztertu dira, hizkuntzakoak salbu. Material didaktikoen kasuan, LHn honakoak izan dira aztergai: Matematika, Gorputz Hezkuntza eta Material Globalizatua, alegia, Naturaren Zientziak eta Euskara barne biltzen dituen ikasgaia; DBHn: Matematika, Gorputz Hezkuntza eta Naturaren Zientziak. Azterketarako hiru alderdi hartu dira aintzat: edukiekin batera helburu diren komunikazio-gaitasunak; gaitasun horiek lantzeko proposatzen diren zereginak; helburuen eta ebaluazio-irizpideen arteko erlazioa. Emaitzek azaleratzen dute, oro har, ahozko hizkuntzak oso leku murrizta duela oinarritzko zeharkako kompetentzia moduan, bai programazioetan, bai hizkuntzakoak ez diren ikasmaterialetan. Ikasgai batzuetan adibideak nabariagoak diren arren beste batzuetan baino, agerikoa da, irakaslearen irizpideen esku geratzen direla ahozko hizkuntza berariaz lantzeko aukerak. Azterketan egiaztatu ahal izan da, ahozko gaitasunak aintzat hartzen dituzten proposamenak egon badaudela, baina, aldi berean, erakusten du haiei etekin komunikatiboa ateratzeko eta ahozkototasunaren lanketa sistematizatze berariazko esku-hartze didaktikoa behar dela, bereziki aintzat hartzen badugu testua dela komunikazio-unitatea eta testu-generoetan gauzatzen dela gure mintzaira (Bakthine,1982).

Erreferentziak

- Bain, D. (1994). Problemas psicopedagógicos de la lengua oral: las lecciones de una experiencia. *Lenguaje y Educación*, 23: 91-115.
- Bakthine, M. (1982). El problema de los géneros discursivos. In *La estética de la creación verbal*. Mexico: Siglo XX.
- García Azkoaga, I.; Imaz, A.; Díaz de Guereñu, L. & Alegria, A. (2010). Ahozkototasunaren irakaskuntza bigarren hezkuntzako testuliburuetan. *Tantak* 22 (1): 7-42.
- Larringan, L. M. (2007). Ahozko hizkuntzari antza hartzeko hiru gogoeta. En I. Idiazabal & I. M. García-Azkoaga (Arg.), *Ahozko euskara. Azterketak eta irakaskuntza*. Bilbao: UPV-EHU.
- Rispail, M. (2003). Ikasgelan hitz egin eta ahozko hizkuntza irakatsi. *Ahozkototasuna ikasgelan. Ahozkototasunaren garrantzia eta lanketa curriculum integratuan*. Zarautz Ikastolen elkarte: 75-86.

WORKSHOP / SÉMINAIRE 6

Questioning the dichotomy between native and non-native speakers of Basque: types of speakers, language practices and ideologies around Basque in the 21st century / Débat sur la dichotomie locuteurs natifs / non-natifs : types de locuteurs, pratiques linguistiques et idéologies dans le contexte de la langue basque au XXI^e siècle

Director / Directrice: Esti Amorrortu (Deustuko Unibertsitatea)

Natiboa/ez-natiboa dikotomia auzitan hizkuntza gutxituen testuinguruan

Estibaliz Amorrortu (Deustuko Unibertsitatea)

Orain dela gutxi arte ohikoa izan da natibo (elebakar)aren idealizazioa euskaldunon artean. Europako hainbat hizkuntzekin gertatzen den bezala, idealizatuta dagoen hiztun natiboa benetako, autentikoen den hiztuntzat (O'Rourke eta Pujolar 2013, askoren artean) eta euskara eta beste hizkuntza gutxitu askoren geroratzearen erantzule nagusitzat hartu da. Baina XXI. mendeko euskaldunogan beste hiztun mota batzuk garrantzia hartu dute: batetik, euskara familiarik kanpo ikasi duten euskaldunak, anitzak izateaz gain (Ortega eta beste 2016, Amorrortu eta beste 2017), gero eta gehiago dira, baita familiaren bidez hizkuntza ikasi(ko) duten horien seme-alabak ere; bestetik, guraso euskaldunak dituzten hiztunen artean ere gutxi dira natiboaren idealizaziora hurbiltzen direnak: euskara familia barruan jasotzen dutenen artean esperientzia oso ezberdina izan dezakete euskara guraso birekin ala bakar batekin erabiltzen dutenek, edota testuinguru soziolinguistikoko euskaldunogan ala erdaldunogan bizi eta, beraz, etxetik kanpo ere gehiago ala gutxiago erabiltzen dutenek; edota familia-aldaera batua ala tokian tokiko aldaera bat dutenek, besteak beste.

Hitzaldi honetan, eta gizartea eta hizkuntzaren arteko harremanen ikerketan metodo eta joera berriak aurkeztuko diren mintegi hau testuinguratzeko asmoz, euskaldun mota ezberdinak aintzat harturik, natibo/ez-natibo dikotomia auzitan ipini nahi da, natiboaren kontzeptua problematizatuz eta beste hiztun mota batzuen presentzia eta garrantzia aldarrikatuz. Bereziki Europako hizkuntza gutxituen testuinguruan garatu berri den hiztun berri (O'Rourke, Pujolar eta Ramallo 2015) kontzeptuaren inguruan jardungo da.

Erreferentziak:

- Amorrortu, E., Ortega, A. eta Goirigolzarri, J. (2017). Euskararen hiztun aktibo bihurtzeko gakoak, *Bat Soziolinguistika aldizkaria* 104 (3): 11-49.
- O'Rourke, B. eta J. Pujolar (2013). From native speakers to "new speakers"-problematizing nativeness in language revitalization contexts. *Histoire Épistémologie Langage* 35(2). 47-67.
- O'Rourke, B., Pujolar, J. eta Ramallo, F. (arg.) (2015). New Speakers of minority Languages: the Challenging Opportunity, *International Journal of the Sociology of Language*, 231, zenbaki berezia.
- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J. eta Urra, J. (2016). *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea.

What new speakers of Basque can tell us about the use and social meaning behind Basque ergativity

Itxaso Rodríguez-Ordóñez (Southern Illinois University Carbondale)

Recent work has demonstrated that ‘new speakers’ of Basque do not enjoy the same legitimacy as those who speak a ‘local’ variety (Ortega et al., 2014, 2015; Urla et al., 2018). However, little is known about the linguistic system of these speakers and how the social meaning behind their use of contact-phenomena contributes to their (in)-authentication processes as members of the Basque-speaking community. The present study examines the variable use and attitudes towards ergative-case marking (or lack thereof) in Basque, with the goal to determine the emergence of new variation in Basque and the way such variation achieves social meaning in the Basque Autonomous Community.

Following a variationist approach to sociolinguistics and language acquisition, this study examines the variable use of ergative case marking among 46 ‘traditional speakers’ (*euskaldunzaharrak*) and 42 ‘new speakers’ (*euskaldunberriak*) who varied in their proficiency of Basque, and self-identification. Additionally, attitudes towards ergative case marking was analyzed by means of a matched-guise experiment (MGE) and subsequent metapragmatic commentary.

Production results show that all Basque speakers omit the ergative case marker to some extent. Group-level analysis shows that ‘new speakers’ omit the ergative case marking more than ‘traditional’ speakers, but despite these omissions, new speakers show a mastery on the contexts in which ergative subjects are required. New speakers also show a new variable rule in that they use ergative subjects into unaccusative contexts, mainly for topicalization purposes. Results from the MGE show that lack of ergative-case marking is strongly associated with ‘new speakers’ and ‘lack of competence’, but goes unnoticed in the vernacular guise. Pearson’s correlation also shows that if a speaker is perceived using ‘bad’ Basque, it is also perceived as ‘less Basque’, but only in the *Batua* guises.

Bibliografia

- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J., Urla, J., & Uranga, B. (2014). New Basque speakers: Linguistic identity and legitimacy. *Digitum* 16: 47-58.
- Ortega, A., Urla, J., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J., & Uranga, B. (2015). Linguistic identity among new speakers of Basque. *International Journal of the Sociology of Language* 231: 85-105.
- Urla, J., Amorrortu, E., Ortega, A., & Goirigolzarri, J. (2018). Basque Standardization and the New Speaker: Political Praxis and the Shifting Dynamics of Authority and Value. In Lane, P., Costa, J. & De Korne, H. (Eds.), *Standardizing Minority Languages: Competing Ideologies of Authority and Authenticity in the Global Periphery* (pp. 24-46). New York: Routledge.

Familia euskaldunak: definizio proposamena hizkuntza komunitatearen aniztasunaren argitan

Paula Kasares (UPNA/NUP)

Euskararen belaunez belauneko jarraipena aztertzeke ohiko gizarte-unitatea *familia* da. Haatik, Euskal Soziolinguistikari ez da *familia euskaldunaren* definizioz jorratu eta euskararen transmisioa landu duten ikerlanek guraso bat bederen euskalduna duten sendietara mugatu ohi dute beren unibertsoa. Familiaren definizio sozio-antropologikoan barrendu gabe, egun umeak euskaldun hazten dituzten sendiak ikertzea ahalbidetuko digun kontzeptua soziolinguistikoki definitzea beharrezko agertzen da.

Familia euskaldun kontzeptua lantzeak hizkuntzaren eta hiztunen arteko harremanak ulertzeke modua argitzea dakar eta hortik zuzenean eratortzen diren *euskaldun* eta *euskal hizkuntza komunitate* adigaiak jorratea eskatzen du.

Soziolinguistikan —Euskal Herrian garatu denean ere bai— jokatu duten aurreiritzi batzuek sarri hizkuntza gertakari natural, estatiko, mugarritu eta aldagaiztat hartu dute eta mintzairaren, hiztunaren eta identitatearen artean erlazio uniboko eta zurrinak ikusi dituzte.

Azken urteotan, aldiz, jakite desberdinetako ikertzaileek hizkuntza bera zer den eta beronen, hiztunaren eta identitatearen arteko harremanak —hizkuntza komunitate kontzeptuaren gibelean daudenak— zertan diren kritikoki berrikusi eta azterketa soziolinguisten azpian egon ohi diren zenbait aurreiritzi agerian utzi dituzte (esaterako, Hernández, 2007).

Familia euskaldun kontzeptua itxuratu nahian, euskararen ingurura bildu diren harreman eta ehundu diren estekadura askotarikoei leku eman beharra ageriko egin da eta ahalegin horretan proposamen bat izan zait bereziki esanahitsu: *jarduera komunitatea* (*community of practice*, Eckert eta MacConnell-Ginet, 1999), hizkuntza komunitate adigai soziolinguistiko klasikotik aldendu eta komunitatearen barneko heterogeneotasuna, *continuumak*, bilakaerak eta gatazkak hobeki atzemateko bide eskaintzen baitu.

Proposamen horrek euskal hizkuntza komunitatea zedarritzeko hiztunek euskararekin eratzen dituzten lokarrien bilbe askotarikoak aintzat hartzen dituen eta hizkuntza gaitasunari soilik lotzen ez zaion hurbilpena bermatzen du. *Familia euskaldunei* datxekielerik, euskara jakitean ardaztutako definizioak ez luke egun euskaldun hazten diren haurren errealitate osoari lotzea ahalbidetuko. Ikerlan etnografikoak (Kasares, 2014) erakutsi duenez, egun haurren euskarazko sozializazioan inplikaturako subjektuek euskararekin eratu dituzten askotariko harremanen aniztasunak euskal komunitatearen balizko irudikapen homogeneoa pitzatu eta hizkuntzari guztiz loturiko adigaia baliatzea ezinezko bihurtzen du.

Hala bada, proposatzen den familia euskaldun kontzeptuaren oinarrian hizkuntza gaitasuna baino gehiago mintzairaren jarraipenaren aldeko jarduerak eta atxikimenduak leudeke.

Bestalde, hizkuntza galtze eta berreskuratze prozesuek familien eraketa soziolinguistikoan ondorio zuzenak izan dituzte eta eragin horiek aztertzeko familia euskaldunen tipologia soziolinguistikoan proposatu da: *familia euskaldunbeteak*, *familia euskaldun ez-osoak* eta *familia euskaldunberrituak*.

Erreferentziak

- Eckert, P. & MacConnell-Ginet, S. (1999). New generalizations and explanations in language and gender research. *Language in Society* 28, 2, 185-201.
- Hernández, J. M. (2007). *Euskara, comunidad e identidad. Elementos de transmisión, elementos de transgresión*. Madrid: Ministerio de Cultura.
- Kasares, P. (2014). *Euskaldun haiz Nafarroan. Euskararen belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Taldean jardun, taldean hiztun Praktika-komunitatea nerabeen hizkuntza ikerketan

Jone M. Hernández (UPV/EHU), Jaime Altuna (UPV/EHU)

Hiztun-natibo eta ez-natibo bezalako profilak zehazterakoan eta aztertzekoan hizkuntza elementu zentralizat eta, maiz, bakartzat hartzen da. Halako kategoriak ezaugarri soziolinguistikoetan modu estuegian oinarritzeak gizartearen konplexutasuna ulertzea mugatu dezake. Bestalde, hiztunak elkarrekintzan, taldean, egiten gara hiztun: egunerokotasuneko jardun konpartituek hizkuntza-praktikak baldintzatzen dituzte mota bateko edo besteko hiztun bihurtuz, edo praktika bakoitzeko hiztun mota bat eratuz.

Komunikazio honetan praktika-komunitatea kontzeptuaren inguruko hausnarketa bat proposatu nahi dugu, egungo hiztunen hizkuntza-praktikak, bizipenak eta diskurtsuak begiratzeko tresna gisa eskaintzen dizkigun aukerak azpimarratuz. Praktika-komunitatea modu jarraian ahalegin komun batean parte hartzen duen pertsona multzo bat da (Eckert, 2006:683). Taldekideek jarduerak bat elkarrekin garatzen dute, gune eta une zehatz batean interes komun bat dutelako eta elkarrekintza

horretatik sortzen dira praktikak: gauzak egiteko moduak, sinesmenak, baloreak, botere harremanak eta, baita, hitz egiteko moduak ere.

Praktika-komunitateek hizkuntza ikerketarako edo hizkuntza aldaketaren azterketarako bide aberatsak zabaltzen ditu, praktika zehatzen bidez norbanakoa, taldea eta gizarte antolaketaren artean sortzen den loturak hizkuntza-praktiken ikerketarako testuinguru interesgarria eskaintzen baitu. Praktika-komunitateek, beraz, Euskal Herriko egungo hiztun-profil eta hizkuntza-bizipen aniztasunaren berri izateko interes handia dute, talde horietan hizkuntza ez baita elementu aske eta isolatu bat: hizkuntzak jarduerarekin bat egiten du eta gizarte egiturarekin jartzen da harremanetan (Hernandez, 2008:35).

Komunikazioan, beraz, praktika-komunitatea kontzeptuaren inguruan egin diren proposamen teorikoei erreparoa egingo diegu (Lave eta Wenger, 1991; Eckert eta McConnell-Ginet, 2013; Holmes eta Meyerhoff, 1999; Kasares, 2014). Baina, batez ere, egile horien proposamenetan oinarrituta azken urteetan nerabeekin egin ditugun ikerketen emaitzak aurkeztuko ditugu hiztunen identitate eta hizkuntza eraikuntza prozesuan praktika-komunitateek duten garrantzia azpimarratuz. Eskolaz kanpoko eremuko hainbat praktika-komunitatetan egin ditugun ikerketen bidez 12 eta 18 urte bitarteko nerabeen hizkuntza-praktiketara hurbilduko gara egungo euskal hiztun gazteek erakutsi digutenaren gainean gogoetatuz eta topatu ditugun zenbait gako partekatuz.

Erreferentziak

- Eckert, Penelope (2006) "Communities of Practice" in E. K Brown; R. E Asher; J. M. Y Simpson, *Encyclopedia of language and linguistics*, Volume 2: 683-685. Oxford.
- Eckert, Penelope eta Sally McConnell-Ginet (2013) *Language and gender*. Cambridge University Press.
- Hernandez, Jone M. (2008). "Euskara birpentsatu beharra, ekarpen batzuk antropologiati" in *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 69: 27-42.
- Kasares, Paula (2014) *Euskaldun bazi Nafarroan. Euskararen belauneko belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Euskaltzaindia.
- Lave, Jean; Wenger, Etienne (1991) *Situated Learning. Legitimate Peripheral Participation*. Cambridge University Press.
- Holmes, Janet eta Meyerhoff, Miriam (1999) "The Community of Practice: Theories and methodologies in language and gender research" in *Language in Society* 28, 173-183. Cambridge University Press.

Euskara sasoian? Euskararen sozializazioa Gasteizko pilota elkarte batean Iñigo Beitia (UPV/EHU)

Ikerketa honetan euskara, gazteak eta aisialdia ikertu dira, bertan egon daitezkeen klabe batzuk aurkitze aldera. Honegatik, Gasteizko pilota elkarte batean, 13-15 urte bitarteko gazteekin egin den ikerketa etnografikoa da. Lana antropologiako tekniken bitartez egin da, pilota elkarte honetan hizkuntzaren (euskararen) sozializazioa nola ematen den ikertzeko asmoz. Guzti hau, beti ere, gazte eta frontoiko agente desberdinen iritziak kontutan edukiz eta behaketetan hauek egiten dituzten praktikak behatuz egin da. Amaieran, ondorioztatuko da, besteak beste, hizkuntza sozializazioari begira harremanek pisu handia hartzen dutela, eta beraz, hizkuntza soziabilitatea bultzatzen duten egoerak sortu behar direla. Azkenik, hizkuntza praktiken bitartez, hizkuntzaren sozializaziorako beharrezkoak diren elementuak azalarazten dira baita ere.

Whatsappeko Hizkuntza praktikak eta ideologia Nafarroako Unibertsitateko ikasle euskaldunen artean

Orreaga Ibarra

Gure helburua da Unibertsitate 1. mailako ikasle euskaldunen whatsappetan arakatzea. Honetarako, ikasle talde baten whatsappeko mezuez baliatuko gara. Ikasle hauek Nafarroan hazi dira baina gehienon ama-hizkuntza gaztelania da. Bi hizkuntzekin bizi dira eta taldean badira euskaraz egiteko joera handiagoa daukatenak. Whatsappeko komunikazio horretan praktika elebiduna da, eta bereziki, euskara-erdara kode-aldaketa da ohiko jarduna. Laburbilduz, galdera hauei erantzuna ematen saiatuko gara. Gazte hauen artean zein CS eredu identifika daitezke? Zein egoeratan aldatzen dute kodea? Zein faktore kultural, psikologiko, heziketakoak eta gramatikalak daude inplikatuak gazteen kode aldaketan? Zeinek dira honen arrazoiak?

Bibliografia

- Amonarriz, Kike. 2008. "Gazte hizkerak - hizkera gazteak". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 68, 167-183.
- Amorrortu, Es. Ortega, A., Urla, J., Goirigolzarri, J.; "Euskal hitun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak", *Administrazioa euskaraz* 2017, 20-21
- Androutsopoulos, Jannis. 2000. "Non-standard spellings in media texts: The case of German fanzines". *Journal of Sociolinguistics*, 4 (4), 514-533.
- Gomez Torrego, Leonardo. 2013. "La gramática en Internet", *Lengua y escritura en Internet: Tres décadas de "redacción"*, nuevas fronteras del español/4_lengua_y_escritura/gomez_l.htm > [21/09/2013].175
- Ibarra, O. 2015, "Sare sozialak, euskalkiak ikertzeko baliabide gisa" *Euskal hizkera eta dialektok gaur egun*, Lapurdum 3, 155-175
- Gordo Lopez, Angel (coord.). 2006. *Jóvenes y Cultura Messenger. Tecnología de la Información y la Comunicación en la Sociedad interactiva. Fundación de Ayuda contra la Drogadicción e Instituto de la Juventud*. Hemen eskura: http://www.fad.es/sala_lectura/Messenger.pdf.
- Pinilla Gomez, Raquel. 2009. "El lenguaje de los blogs", en Sarmiento, R. y Vilches, V. (coords.) *La calidad del español en la red. Nuevos usos de la lengua en los medios digitales*. Ariel, Madrid, 73-77.

Euskal hitun ez-natibo helduen praktikak testuinguru digital euskalduneari

Elixabete Perez-Gaztelu (Deustuko Unibertsitatea)

5. mintegiaren izenburuak ispiltzen duen bezala, hitzunen sailkapen dikotomikoa (hiztun berri edo ez-natiboak / hiztun zahar edo natiboak), gutxieneko mailan, auzitan jartzekoa da (Ó Murchadha et al., 2018). Agerikoa da hiztunak ez diola bizi artean hizkuntza jokamolde berari eusten eta bere hizkuntza ibilbidea osatzen doala, hainbat eragin direla medio (Ortega et al., 2016). Aldatu ahal izatean oinarritzen da, hain zuzen ere, "muda"-ren kontzeptua (Pujolar, et al., 2010).

Hizkuntza gutxituetako hitzun berriak ikertzaileen arreta-erakargarriak dira, guztiz garrantzitsuak "hil edo bizikoak" (Smith-Christmas et al., 2018, 283 or.) baitira hizkuntza horien bizipenerako. 2016ko inkesta soziolinguistikoak jasotakoaren arabera, euskararako ere halaxe da (Eusko Jaurlaritza et al., 2016).

Aurkeztu nahi dugun komunikazioan 25-42 urte bitarteko 7 gizaseme euskal hitzun ez-natiboren hizkuntza praktiken azterketa erakutsiko dugu. Hitzun horien Ordenagailu Bidezko Komunikazioaren (Herring, 1996) corpus-aurreko bat (Parodi, 2008) da aztergaia, euskal hitzun natiboak ere taldekide dituen txateko talde batean ekoitziak.

Garrantzitsua da hitzun ez-natiboen praktikak aztertzea, besteak beste, adina eta bizi egoera dela eta, batzuek bikotekidearekin harremanak hasiak dituztelako eta beste batzuek guraso berriak direlako (hizkuntza-transmisiorako urrats baitezpadakoak). Bestetik, berriz, txateko talde berean euskaldun natiboak ere solaskideak izatea ardurakoa da, era bateko eta besteko hitzunek harremanetarako hizkuntza-ohiturak eraiki behar baitituzte, eta txatak hitzun ez-natiboentzat aldaera informala ikasteko komunikazio esparrua izan daiteke.

Beste ikuspegi batetik, azpimarratzekoa da hemengo corpusa OBKren aldaera informalaren erakusgarria dela, hizkuntzen bizitzarako hain garrantzitsua den eta soziolinguistek kolokan ikusten duten euskararen aldaera. Euskal hiztunen aldaera informala(k) ezaugarritu behar badira, OBKren azterketa nahitaezkoa da. Hiztun ez-natiboek etxean bereganatu ez duten aldaera horren azterketa da komunikazio honen funtsa.

Erreferentziak

- Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua (Euskarabidea), Euskararen Erakunde Publikoa / Office Public de la Langue Basque (2016). VI. Inkesta soziolinguistikoa. Hemendik eskuratua: https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9954/VI_INK_SOZLG-EH_eus.pdf?1499236557
- Herring, S. C. (1996). Introduction. Egilea (ed.), *Computer-mediated communication: Linguistic, social and cross-cultural perspectives*. (1–10 or.). Amsterdam: Benjamins.
- Ó Murchadha, N.P., Hornsby, M., Smith-Christmas, C. & Moriarty, M. (2018) New Speakers, Familiar Concepts?. Smith-Christmas C., Ó Murchadha N., Hornsby M. & Moriarty M. (arg.) *New Speakers of Minority Languages* (1-22 or.). Londres: Palgrave Macmillan. Hemendik eskuratua: https://link.springer.com/chapter/10.1057/978-1-137-57558-6_1#citeas
- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J. & Uribe, J. (2016). *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea-Bizkaiko Foru Aldundia.
- Parodi, G. (2008). Lingüística de corpus: una introducción al ámbito. *Revista de Lingüística Teórica y Aplicada*, 46 (1), 93-119.
- Pujolar, J., González, I. & Martínez, R. (2010). Les mudes lingüístiques dels joves catalans. *Llengua i Ús*, 48, 65-75. Hemendik eskuratua: <http://www.gencat.cat/llengua>

Euskara eskolan ikasi: hiztun aktibo bihurtzeko gakoak

E. Amorrortu (Deustuko Unibertsitatea), A. Ortega (“Begoñako Andra Mari” Unibertsitate Irakasle Eskola), J. Goirigolzarri (Deustuko Unibertsitatea)

Azken hamarkadetan euskarak 300.000 hiztun irabazi ditu, neurri handi baten lehen hezkuntzako murgiltze-ereduei esker. Azken datuen arabera (Eusko Jaurlaritza 2017), Euskadiko 16-24 adin tarteko euskaldunen artean %67k ez dauka euskara lehen hizkuntza bezala; eskolan ikasi dute. Alabaina askok zailtasunak dituzte *muda* egiteko eta hiztun aktibo bihurtzeko. Hori dela eta, ezinbestekoa da ulertzea zeintzuk diren prozesu hori laguntzen eta eragozten dituzten gakoak.

Komunikazio honetan 25 urte baino gutxiago dituzten hiztun berrien profil ezberdinak aurkeztuko ditugu, egin (edo ez) duten *muda* –prozesuaren arabera, eta azalduko dugu euren eguneroko bizitzan euskarari leku gehiago egiterakoan zelan eragiten dieten faktore ezberdinek: alde batetik, pertsonari eragiten dioten kanpoko faktoreak aztertuko ditugu, hala nola, bizi diren testuinguru soziolinguistikoa eta euskara erabiltzeko dituzten aukerak; bestetik, barneko faktoreak, hala nola, hiztunaren beraren autopertzepzioa bere hizkuntza-gaitasuna dela-eta, erabiltzen duen aldaera, bere hizkuntza-identitatea, agentibitatea eta emozioak.

Horretarako, egileok azken hamarkadan ikerketa-proiektu ezberdinetan jasotako datuak erabiliko ditugu: a) jatorri anitzeko euskal hiztun berrien esperientzia, ideologia eta identitatei buruzkoak, eztabaida-talde eta sakoneko elkarriketetan batutakoak, eta b) Bilbo Handiko unibertsitate-ikasleen *muda*-prozesuari buruzkoak, azken horiek metodo etnografikoen bidez jasotakoak.

Euskal hiztun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa

Garbiñe Bereziartua (UPV/EHU), Beñat Muguruza (UPV/EHU)

Hitanoa da euskarak duen lagunarteko edo familiako tratamendua. Beherakada handia jasan du azken hamarkadetan, baina hainbat herritan eta girotan oso presente dago oraindik ere, gizonen artean

batik bat. Hika egitea hautu bat izan ohi da eta ikerketa honetan jakin nahi izan dugu zein irizpideren arabera erabakitzen duen hiztunak solaskideari zuka edo hika egitea.

Horren erantzuna aurkitzeko egin ditugun bi ikerketatan jasotako datuetan oinarritu gara: batetik, Azpeitiko hitanoaren erabilera neurtzeko egindako ikerketa; eta, bestetik, hitanoak bertsolaritzan daukan presentzia neurtzen duen ikerketa. Azpeitia da hitanoa osasuntsuen gorde duen herrietako bat, eta hango 850 helduk galde-sorta bidez adierazi dute, beste hainbat ideia artean, zein irizpide segitzen duten solaskideari hika egin ala ez erabakitzeko. Datu kuantitatiboak jaso ditugu galdera itxietan, eta datu kualitatiboak galdera irekietan. Horrez gain, bertsolaritzaren eremuan egindako ikerketan elkarrizketa sakonen bidez bertsolariak diren edo bertsolaritzan aditu diren 12 lagunek hitanoaren erabileraren gainean duten jarrera aztertu dugu. Bi datu-iturri horiek batuta, badirudi euskara-maila dela, generoa eta adinaz gain, aldagai nabarmenetako bat. Euskaraz ongi dakienari edo euskaldun-zaharrari errazago egingo zaio hika, eta zuka egiteko joera argia dago euskaraz erabat eroso sentitzen ez denarekin, edo euskaldun-berriarekin.

Lortutako emaitzen argitara, antzekotasunak egon litezke euskaraz hitz egitera pasatzen den erdaldunaren eta zuka egitetik hika egitera pasatzen den euskaldunaren artean. Mintegi honek euskal hiztun natibo eta ez-natiboen arteko dikotomiak mahai gainean jartzen dituen arren, gure proposamenak hitanoak euskal hiztun natiboen baitako hainbat hiztun-profilen arteko dikotomiak aztertu nahi ditu, eta euskal hiztun natibo eta ez-natiboen artean gertatzen direnekin alderatu.

WORKSHOP / SÉMINAIRE 7

The Basque language in typological perspective / La langue basque en perspective typologique

Director / Directeur: Iván Igartua Ugarte (UPV/EHU)

The Basque language among the world's languages: A typological perspective

Iván Igartua (UPV/EHU)

The central aim of this introductory talk to the workshop is to characterize the Basque language from a typological point of view (see already Trask 1998) taking into account the results of latest research. Specific information regarding the phonological and grammatical structure of Basque will be presented. At the same time, special attention will be paid to some of its typologically most salient properties, such as its active-inactive syntactic alignment, the pluripersonal agreement basis of its verbal system, the presence of allocutive paradigms in verbs, and the ways of expressing reflexivity. All these features will be discussed based on our present knowledge about typological diversity and the extent to which languages may differ structurally. To this end, some Basque constructions will be compared to grammatical constructions from other languages (especially those that are not very common cross-linguistically). In this fashion, the presentation will attempt to define the typological position of Basque among the world's languages. As mentioned, the talk will largely rely on recent research, carried out partly by young scholars (Egurtzegi 2018, Evseeva & Salaberri 2018). It is intended as a general introduction to the specific papers that will be presented at the workshop.

References

- Egurtzegi, Ander. 2018. On the phonemic status of nasalized /h/ in Modern Zuberoan Basque. *Linguistics* 56(6): 1353-1367.
- Evseeva, Natalia & Iker Salaberri. 2018. Grammaticalization of nouns meaning “head” into reflexive markers: A cross-linguistic study. *Linguistic Typology* 22(3): 385-435.
- Trask, Robert L. 1998. The typological position of Basque: Then and now. *Language Sciences* 20(3). 313-324.

Les verbes psychologiques du basque: typologie et diachronie

Denis Creissels (Université Lumière Lyon2), Céline Mounole (UPPA-IKER UMR 5478)

Quatre cadres de codage sont disponibles pour les verbes psychologiques du basque :

- (a) expérient absolutif, stimulus oblique (*Horretan interesatu da*)
- (b) expérient ergatif, stimulus absolutif (*Jonek estimatzen zaitu*)
- (c) stimulus absolutif, expérient datif (*Hori damutu zaitu*)
- (d) stimulus ergatif, expérient absolutif (*Zerk beldurtu zaitu ?*)

En outre, deux alternances de valence sont attestées pour les verbes psychologiques. Aucune des deux n'implique une modification de la base verbale :

- (a) ~ (c) (*Horretan interesatu naiç ~ Hori interesatu zait*)
- (a) ~ (d) (*Harritu naiç ~ Harritu nau*)

La première partie de la communication discute les propriétés de valence des verbes psychologiques du basque d'un point de vue typologique, en les comparant à celles attestées dans les autres langues (notamment les langues romanes avec lesquelles le basque est en contact), et en mettant

l'accent sur la relation entre le traitement des verbes psychologiques et d'autres paramètres typologiques, notamment la proéminence de la transitivité (tendance plus ou moins forte à étendre la construction transitive à des verbes qui ne sont pas des verbes transitifs prototypiques) et l'orientation de valence (préférence pour l'encodage de l'alternance noncausal-causal au moyen d'une dérivation détransitivisante, au moyen d'une dérivation transitivisante, ou sans orientation morphologiquement apparente).

La deuxième partie discute la façon dont la situation a évolué au cours de l'histoire du basque. Dans le contexte général d'une tendance à introduire le cas ergatif dans le cadre de codage de verbes qui initialement ne faisaient pas appel à ce cas, les cadres (a) et (c), prédominants dans les périodes les plus anciennes (16^{ème} et 17^{ème} siècles), ont ensuite régressé au profit des cadres (b) et (d): *laket zait* ~ *laket dut*, *urrikalduko zaizu* ~ *urrikalduko duzu* ; *gaitzitu zait* ~ *gaitzitu nau*.

Principales références

- Creissels, Denis & Céline Mounole. 2017. Non-canonical valency patterns in Basque, variation and evolution. In Lars Hellan, Andrej Malchukov & Michela Cennamo (eds.), *Contrastive studies in verbal valency*. John Benjamins. 151-174.
- Etxepare, Ricardo. 2003. Valency and argument structure in the Basque verb. In José Ignacio Hualde & Jon Urtiz de Urbina (eds.), *A grammar of Basque*. Mouton de Gruyter.
- Haspelmath, Martin. 2015. Transitivity prominence. In Andrej L. Malchukov & Bernard Comrie, *Valency classes in the world's languages: A comparative handbook*, vol. 1, 131–147. Berlin: De Gruyter Mouton.
- Mounole, Céline. 2011. *Le verbe basque ancien : étude philologique et diachronique*. Thèse de doctorat. University of Bordeaux & University of the Basque Country.

Concerning the differential morphosyntactic marking of definiteness on proper names: a cross-linguistic study

Iker Salaberri (UPNA/NUP)

Recent studies have argued that the morphosyntactic marking of proper names—which is understood to encompass grammatical categories such as case, definiteness, number and gender, among others—is cross-linguistically different to the marking of common nouns (Nübling et al. 2015, Schlücker & Ackermann 2017). This differential marking of proper names or “onyms” has been related to the Animacy Hierarchy (Helmbrecht et al. 2018).

Some of these claims are, however, largely based on phenomena concerning onyms in Indo-European languages. In addition, proper names have usually been regarded as a unitary, homogeneous group, without providing finer distinctions between, for example, toponyms and anthroponyms, or between zonyms and theonyms. In view of this state of affairs, the present study addresses the morphosyntactic marking of definiteness on proper names in seven areally, genetically and typologically unrelated languages: Archi (Nakh-Daghestanian), Basque (isolate), Maori (Austronesian), Pipil (Uto-Aztecan), Vietnamese (Austroasiatic), Wayuu (Arawak) and Wolof (Atlantic-Congo).

The results suggest that considerable variation can be found between languages that very rarely mark definiteness on proper names and languages that do so much more frequently. Moreover, it is proposed that the abovementioned classification of onym types is arranged along the Animacy Hierarchy scale, with theonyms being marked for definiteness more often than zonyms. Therefore, it can be argued that theonyms are cross-linguistically treated as more animate than zonyms.

References

- Helmbrecht, Johannes, Lukas Denk, Sarah Thanner & Ilenia Tonetti. 2018. Morphosyntactic coding of proper names and its implications for the Animacy Hierarchy. In Sonia Cristofaro & Fernando Zuñiga (eds.), *Typological hierarchies in synchrony and diachrony*, 381-404. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.

- Nübling, Damaris, Fabian Fahlbusch & Rita Heuser. 2015. *Namen: Eine Einführung in die Onomastik*. Tübingen: Narr.
- Schlücker, Barbara & Tanja Ackermann. 2017. The morphosyntax of proper names: An overview. *Folia Linguistica* 51(2), 309–339.

Inferential and Illocutive Causal Constructions in Basque and Other Languages

Natalia M. Zaika (Institute for Linguistic Studies Russian Academy of Sciences, Saint Petersburg State University)

It is a well-known fact that causal markers can sometimes be used in inferential (1) or illocutive (2) causal constructions, implying causal relations between the subordinate clause and the deduction or the speech act in the main clause:

(1) *Liz left, since her coat is not on the rack.* [Charnavel 2018]

(2) *Qu'est-ce qu'il vaut ce bouquin, parce que je voudrais l'acheter?* 'How much is the book, since I want to buy it' [Colson 1993: 57]

Basque tends to use the same markers for inferential and illocutive causal constructions (cf. *bait-* vs. *-(e)lako*, which is mainly used in prototypical causal constructions) [EGLU-VI 2005: 212]. I will analyse whether this syncretism is typical or not for other languages.

In my reasonably balanced sample (74 languages) inferential and illocutive meanings are rarely analysed, so an attempt will be made to compare causal constructions in Basque and some languages of Europe and Asia.

In Russian causal markers *ottogo chto* cannot be used inferentially and illocutively, while some other causal connectors (*potomu cho*, *poskol'ku*, etc. can) [Pekelis 2015]. In German the conjunction *weil* cannot introduce both inferential and illocutive constructions, while *denn* can introduce both of them [Scheffler 2005: 215]. In English, *since*, unlike *because*, tends to be used in both inferential and illocutive contexts [Charnavel 2018]. Japanese conjunction *kara*, unlike *node*, is preferred in both inferential and illocutive contexts [Nakada 1977: 255]. Finally, in Chuvash reason markers introducing non-finite clauses cannot be used either inferentially or illocutively (author's fieldwork).

Though only some languages have been studied so far, the syncretism of inferential and illocutive causal markers seems to be typical of Eurasia.

References

- Charnavel Isabelle. Perspectives in causal clauses. *Natural Language and Linguistic Theory*. July 2018. Pp. 1–36.
- Colson Jacques. Bonnes raisons et causes douteuses: les propositions de cause en anglais et en français. *Palimpsestes*. 1993. â,,– 7. Pp. 55–71.
- EGLU-VI — *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-VI (Mendeko Perpausak-2)*. Bilbo: Euskaltzaindia, 2005.
- Nakada Seiichi. *Kara and Node Revisited*. *The Journal of the Association of Teachers of Japanese*. May–Sep., 1977. Vol. 12, No. 2/3. Pp. 249–279.
- Pekelis Džlga. *Prichimnye pridatochnye* [Causal Subordinate Clauses]. 2015.
- Scheffler Tatjana. Syntax and semantics of causal *denn* in German. *Proceedings of the Fifteen Amsterdam Colloquium*. Paul Dekker, Michael Franke (eds.). Amsterdam: ILLC/Department of Philosophy, 2005. Pp. 215–220.

New paths for typological research in Basque ideophones

Iraide Ibarretxe-Antuñano (Universidad de Zaragoza)

Ideophones are described as expressive marked linguistic units with a dramaturgic depictive function. Although commonly regarded as marginal in traditional general linguistics, recent research has shown that ideophones are pervasive in all languages and that they share a number of structural as well as semantic-pragmatic typological features (Akita and Pardeshi in press; Dingemanse 2012,

2018; Ibarretxe-Antuñano 2017). This talk explores how Basque ideophones fit in current typological descriptions for these elements. The first part provides an overview of previously described characteristics (e.g., reduplication [*trinkulin-trinkulin* ‘staggering, tottering, reeling’], unusual phonology [*dzarra-dzarra* ‘scribble, doodle’], multicategoriality (but mostly used as adverbs [*trinkilin-trankulun* ‘swinging’], etc.) and the second part focuses on less-developed areas such as their pragmatic functions and sociolinguistic usage as markers for “Basqueness”.

References

- Akita, K. & P. Pardeshi (eds.). In press. *Ideophones, mimetics, and expressives: Theoretical and typological approaches*. Amsterdam: John Benjamins.
- Dingemanse, Mark. 2012. Advances in the Cross-Linguistic Study of Ideophones. *Language and Linguistics Compass* 6(10): 654–672.
- Dingemanse, M. 2018. “Redrawing the margins of language: Lessons from research on ideophones”. *Glossa: A Journal of General Linguistics* 3(1): 1–30.
- Ibarretxe-Antuñano, I. 2017. Basque ideophones from a typological perspective. *Canadian Journal of Linguistics/Revue canadienne de linguistique* 62(2): 196–220.

Hitz ordenaren eragina zenbait ezaugarri gramatikalen erabilera maiztasunean

Luis Pastor (UPV/EHU)

Munduko hizkuntzak hainbat ezaugarri linguistikoren arabera sailka daitezke eta horietako bat hitz ordena da, hots, subjektuaren (S), objektuaren (O) eta aditzaren (A) hurrenkera: horrela, euskara SOA hizkuntza da eta gaztelania, berriz, SAO. Hitz ordena beste hainbat ezaugarriekin lotuta dago (Greenberg, 1963); adibidez, hizkuntza batek, SOA bada, postposizioak izango ditu, baina SAO bada preposizioak izango ditu. Hitz ordenak ere eragina izan dezake zenbait ezaugarri gramatikalen erabilera maiztasunean. Polinskyk (2012), corpus ikerketa baten bitartez, aurkitu du korrelazio bat hitz ordenaren eta izen eta aditzen distribuzio erlatiboaren (izen-aditz ratioa, hemendik aurrea) artean: SAO hizkuntzek izen-aditz ratio baxua dute eta SOA hizkuntzek, ordea, ratio handiagoa. Beste modu batean esanda, SAO hizkuntzetan izenen erabilera txikiagoa da SOA hizkuntzetan baino.

Corpus ikerketa honetan aztertu nahi da, hainbat hizkuntzetan dagoen testu berean, ea jatorrizko hizkuntzak bere izen-aditz ratioa beste hizkuntzetan ezartzen duen ala hizkuntza bakoitzak bere izen-aditz ratioa erakutsiko duen. Horretarako bi SAO (ingelesa eta gaztelania) eta bi SOA hizkuntza (euskara eta koreera) konparatu dira. Emaitzek erakusten dute SOA hizkuntzek (euskara eta koreera) izen-aditz ratio baxuagoa dutela SAO hizkuntzekin (ingelesa eta gaztelania) konparatuta. Emaitza hauek Polinskyren (2012) emaitzen kontrako joera erakusten dute eta horren arrazoietakoa bat argumentuen omisioaren erabilera izan daiteke. Ueno eta Polinskyk (2009) argudiatzen dutenez SAO-SOA hizkuntzek, prozesamendua errazteko asmoz, maiztasun desberdinez erabiltzen dituzte zenbait egitura gramatikal aditz aurreko argumentuak murrizteko: SOA hizkuntzek (japoniera eta turkiera) perpaus iragangaitz gehiago erabiltzen dituzte SAO hizkuntzek baino (ingelesa eta gaztelania); eta era berean, biek maiztasun berarekin eliditzen dute subjektua. Hori frogatzeko bigarren corpus ikerketa bat burutu da euskarazko eta gaztelaniarazko bi corpus idatzi konparatuz. Emaitzek erakusten dute euskarak maiztasun handiagoarekin murrizten dituela argumentuak subjektuaren elisioaren bitartez gaztelaniaren aldean, eta are gehiago esaldi iragankorretan. Bestalde, japonierak eta turkierak ez bezala, euskarak ez da perpaus iragangaitzen erabilera handiagoz baliatzen aditz aurreko argumentuak murrizteko.

Laburbilduz, SOA hizkuntzek, prozesamendua errazteko asmoz, izen/argumentu gutxiago erabiltzeko joera dute SAO hizkuntzen aldean. Halere, baliabide gramatikalen erabilera maiztasuna ez dago soilik hitz ordenaren (SAO/SOA) menpe; baizik eta, honen eta beste ezaugarri tipologikoen konbinazioaren menpe.

Erreferentziak

- Greenberg (1963). Some Universals of Grammar with Particular Reference to the Order of Meaningful Elements. In Greenberg (Ed.), *Universals of Language* (40-70). Cambridge: MIT Press.
- Polinsky (2012). Headedness, again. In Graf, Paperno, Szabolsci & Tellings (Ed.), *Theories of Everything: In Honor of Ed Keenan*(348-359). Los Angeles: UCLA.
- Ueno & Polinsky (2009). Does headedness affect processing? A new look at the VO-OV contrast. *Journal of Linguistics*, 45, 675-710.

WORKSHOP / SÉMINAIRE 8

The itinerary of dialectology in relationship with neighbouring disciplines / Le parcours de la dialectologie en relation avec les disciplines de connaissance similaires

Director / Directeur: Iñaki Camino (UPV/EHU)

Euskal dialektologiaren oraina eta geroa

Iñaki Camino (UPV/EHU)

Bizimoduan, kulturen eta hizkuntzan XX. mendean homogeneizazioa gertatu da Europa guztian, horregatik, zail eta arriskugarri bilakatu da ohiko dialekto geografikoen geroaz aurreikuspenak egitea. Ugari dira egun gure bazterretan etorkizun laburra duten mintzo dialektalak eta beraz, hainbat eskualdetan bilduma lanari ekitea gauza beharra da, leku zenbaitetako euskara ez dugu oraino nahi bezain sakon ezagutzen. Euskal dialektologian hainbat lan eginkizun ditugu oraindik eta hala Nafarroan, nola Ipar Euskal Herrian edo EAEn, gehienez ere hamarkada bat edo bi iraunen dute euskal eskualde ugariatako tradizioko zenbait mintzok hiztun sendoen ahotan, baina dialektologian diharduenaren kezka ez da eskualdeetako ohiko mintzok modernitatearen eta etorkizunaren aitzinean bizirik iraunen ote duten bakarrik. Hainbat tradiziotan bezala, Euskal Herriko jardunean ere lotura hertsia izan du dialektologiak hizkuntzaren historiarekin, Koldo Mitxelenaen lana lekuko, eta XXI. mendean berriz ere azterketa diakronikoetara lerratu da euskal dialektologia. Aspaldiagoko euskal eremuan zein eta norainoko dialektoak mintzatzen ziren azterbidean da azken hamarkadan, eta emaitzak oraingoz inor asetzeko modukoak ez badira ere, gauza gehiago dakizkigu orain duela hamar urte baino, Arabako, Nafarroako edo Zuberoako euskarari buruz, alderdi batzuk baizik ez aipatzeagatik. Corpusha ere ari gara hobeki ezagutzen: agertutako testu eta lekukotasun labur zaharrei, 1986-1994 bitarteko euskal hizkuntzaren atlasa erantsi behar zaie orain, 3000 erantzunak kartografikoki osatzeko bidean, emeki-emeki hamargarren liburukira, 2600 erantzunetara heldu dena.

Tradizioko mintzo edo dialekto horien azterketa behar den bezalakoa izaten ari ote den ere kezkatzen da ikertzailea, batez ere zientzia izan nahi duen jakintzagai honetan askotariko ikerbideak ageri direlako, eta azterlan batzuk oinarri handikoak eta sendoak ditugun arren, badira ahulagoak eta subjektiboagoak direnak ere, horegatik, azterketaren helburuez landa, lan erduz ere kezkatu behar dugu.

Hizkuntzalaritzaren barreneko zenbait adarrek duten baino metodologia batasun eta fintasun gutiago dauka dialektologiak, nahitaezkoa da aztertzeko darabiltzagun metodoez eta hauen erabileraren muga errealez adituek eztabaida emankorrek egitea. Egoki da dialektologiaren jardunaren problematika teoriko-metodologikoz zehazki aritzea, ahulguneak argitara ekartzea eta alderdi batetik baino gehiagotik etor litezkeen hobekuntza metodologiko eta teknikoak aurkeztea, zehaztasun eta ziurtasun bila abiatzea, nahiz badakigun honek ez dituela dialektologiaren galdera zahar guztien erantzun zuzenak ekarriko, baina euskal dialektoez ditugun ilungune batzuk argitzen lagunduko gaitu besterengandik ikasteko prestutasuna eta gaitasuna izateak. Badakigu zenbait euskal eskualdetako ohiko mintzo geografikoak urtuxe daudela eta urratsez urrats emari handiagoko beste hizkuntza-errealitate estandarrago batzuetara murgilduz doazela, betiere batasunerantz lerratu diren eskualde-mintzo batzuetara, mintzatzeko kode hauek nahi bezala ezagutzen ez baditugu ere.

-(a)la atzizkiaren erabilpen deklaratiBoaz

Manuel Padilla-Moyano (UPPA-IKER UMR 5478)

Azken bi mila urteetan gairdi euskarak hizkuntza ukipen azkarreko egoeran iraun du, lehen latinarekin, eta gero ondotikako barietate erromantzeekin. Ipar-ekialdeko euskalkiek —partikularki Zuberoakoak— gaskoiaren eragin sakona jaso dute berant arte (Haase 1992; Camino 2014); horri frantsesarekiko ukipena gainjarri zaio, beste geruza batean.

Proposamen honek Zuberoan egun gertatzen den *-(a)la* atzizkiaren erabilpen berezi bat aztertzea du helburu. Aginterazko zenbait egituraz landara, euskaraz oro har *-(e)la* atzizkia menderakuntzari lotua da (1. adibidea). Halere, egun —ez bakarrik, baina bereziki— Zuberoako hiztunen menderakuntzaz kanpoko inguruetan ere aise ematen dute *-(a)la* atzizkia, funtzio deklaratiBoko perpaus beregainetan (2. adibidea). Fenomeno hau, testuetan bakanki lekukotua eta gramatika deskriptioetatik absente, abian den aldaketatzat har daiteke (Aikhenvald 2006).

Euskara historikoan zein egungo materialetan funtsaturik, komunikazio honetan hauxe argudiatu nahi dugu: Zuberoan *-(a)la* atzizkiaren erabilpena perpaus nagusietan gaskoiaren *que* «énonciatif» (3. adibidea) (Rohlf 1970; Marcus 2010; Massoure 2012) delakoaren egokitzapen sintaktikoa dela. Halaber, hala hiztunen hautemateak nola eskola ibilbideak *-(a)la* deklaratiBoaren agerpena baldintza ahal lezakete.

- (1) *Uste diit Margaita arrajin dela.*
- (2) *Margaita arrajin dela.*
- (3) *Cada un qu' a eths siès abès.*
Bedera bat DECL AUX DET bere aferak
'Bakoitzak bere arazoak ditu(ela).'

Erreferentziak

- Aikhenvald, Alexandra, 2006, «Grammars in contact: a cross-linguistic perspective», in Alexandra Aikhenvald & Robert M. W. Dixon (arg.), *Grammars in contact: a cross-linguistic typology*, Oxford University Press, 1-66.
- Camino, Iñaki, 2014, «Ekialdeko euskararen iraganaz», in Irantzu Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina*, UPV/EHU, Bilbao, 87-153.
- Haase, Martin, 1992, *Sprachkontakt und Sprachwandel im Baskenland: Die Einflüsse des Gaskognischen und Französischen auf das Baskische*, Helmut Buske, Hanburgo.
- Marcus, Nicole E., 2010, *The gascon énonciatif system: past, present, and future. A study of language contact, change, endangerment, and maintenance*, University of California, Berkeley.
- Massoure, Jean-Louis, 2012, *Le Gascon, les mots et le système*, Honoré Champion, Paris.
- Rohlf, Gerhard, 1970 [1935], *Le Gascon. Études de philologie pyrénéenne*, Max Niemeyer, Tubinga.

Le Dauphin gutuneriaren adizkietan barrena

Joseba Llordén (UPV/EHU)

Ezin ukatuzkoa da hizkuntza azterketarako lapurtera literarioak eskaintzen digun corpus aberastasuna. Gainerako euskalki literarioekin alderatuta lapurtera da lekukotasun kopuru handiena utzi dizkigun idazte-moldea (XVI. mendetik XIX. mendera arteko testuak). Hala ere, obra gehienak katiximak, otoitz egiteko esku-liburuak eta bibliak izanik, kaleko euskara bizia, ahozkotasunean murgildutakoa ezagutzeko paradarik ez digute eskaintzen. Testu hauetan hizkera formala jasotzen da, ahozkoan erabiltzen diren aldaerak ez dira agertzen, urri ditugu elkarrizketetan mintzatzen den euskara esaterako. Badirudi idazle lapurtarrek Sarako eskolara inguratzen zirela eta Sarako hizkera imitatzen saiatu zirela, haien zat Sarako mintzoa garbiena eta zuzenena baitzen.

Horregatik biziki garrantzitsua da 1757ko *Le Dauphin* gutuneriaren aurkikuntza; Lapurdiko hamaika herriko herritarrek marinel lanetan zituzten senide eta lagunei Loisbourgera igorritako 50

gutunen corpusaz osatua baitago. Hauetan tradiziozko lapurtera idatzian ageri ez diren eta ahozko mintzoa gogorarazten dizkiguten ezaugarri linguistikoak aurki daitezke, esaterako *b* eta *y* epentesiak. Artikulu honetan aditz morfologiari erreparatuko diot, eskutitzotan tradiziozko idatzietan ageri ez diren adizkiak kausitu ahal dira. Gutun hauei esker lapurtera literarioan idatzitako eta herri xeheak idatzitako aditz-formen alderaketa egin daiteke. Gainera adizkiek herriz herri pairatzen dituzten bilakabideak ikusteko aukera dugu. Kartetako adizkiek lapurteraren barruko bi aldaera geografiko bereizten uzten ahal digute: Batetik, Lapurdi itsasaldeko euskara (Urruña-Baiona bitartean) eta bestetik Lapurdi mendebalde-barnealdean egiten den mintzoa (Sara eta Senpere herrietako euskara).

Bibliografia

Lamikiz, Xabier, Manuel Padilla-Moyano, & Charles Videgain. 2014. *Othoi çato etchera. Le Dauphin itsasontziko euskarazko gutunak (1757) - Correspondance basque du corsaire Le Dauphin (1757)* [special issue of *Lapurdum*]. Bayonne: IKER UMR 5478 (CNRS).

Bifurcaciones tempranas del vasco común antiguo. Indicios aportados por los tiempos compuestos en el Atlas Lingüístico Vasco (EHHA)

Joseba K. Abaitua (Deustuko Unibertsitatea)

Los tiempos compuestos son un rasgo que comparten muchas lenguas europeas de diferentes familias lingüísticas que está ausente en otras lenguas del mundo. Por este motivo se han tomado como uno de los principales rasgos tipológicos distintivos del denominado *Standard Average European*, al que se adscribe también la lengua vasca. El contacto con la lengua occitana habría propiciado el inicio de la gramaticalización de los tiempos compuestos en las lenguas romances de la península ibérica “progresivamente a lo largo de la Edad Media [ss XII-XV], desde la corona de Aragón hacia el centro y sur peninsular” (Fernández Ordoñez 2011, p. 79). Los territorios de Vizcaya, Guipúzcoa, Álava, Navarra, La Rioja, Huesca, Zaragoza, Teruel, oriente de Cantabria, noreste de Burgos y este de Guadalajara han sido definidos como las áreas de la península ibérica en las que el grado de gramaticalización de los tiempos compuestos ha sido mayor (Rodríguez Molina, 2010, p. 1219).

El *Atlas Lingüístico Vasco* (EHHA) ofrece un exhaustivo muestrario de la distribución de los tiempos compuestos en las diferentes áreas dialectales del euskera. La propuesta es un esfuerzo de identificación de patrones lingüísticos con indicios significativos para el establecimiento de cronologías relativas del proceso de fragmentación dialectal. A partir de una jerarquía de rasgos lingüísticos, la distribución geolingüística de los rasgos morfosintácticos va a proporcionar la principal herramienta con la que dirimir el orden relativo de las bifurcaciones tempranas. Va a destacar el análisis de las diferentes variantes de las formas auxiliares del sistema verbal vasco. El estudio aportará datos objetivos para cotejar y ponderar las propuestas de la bibliografía especializada más reciente en esta materia (Zuazo 2010, Camino 2011, Aldai 2014, Lakarra 2014, Hualde 2015, Abaitua 2018).

“Euskararen atlas sozio-geolingüistikoa” euskara estandarretik so

L. Unamuno, J. Abasolo, N. Eguskiza, A. Iglesias

Ikuspegi soziolingüistikoan eta hizkuntza-bariazioan oinarritutako lanak, gurean, ohikoak ez diren arren, garaia dateke belaunaldien arteko *levelling* (Auer, 1998) edo berdintze-fenomenoa aztertzen duten ikerketak egiteko.

Estandarizazio prozesua aurretik bizi izan duten Europako hizkuntzetan bezala (Hinskens 1998, Kristensen & Thelander 1984 eta Cheshire, Edwards & Whittle 1989) ari da gertatzen euskararen ere,

«oinarri dialektal»etik¹ urrundu eta euskara estandarrera hurbiltze prozesua. Gazteen eguneroko hizkeran estandarraren eragina nabari da; helduek, aldiz, «oinarri dialektala»ri atxikimendu handiagoa diote (Aurrekoetxea 2006; Ariztimuño 2009; Santazilia 2009; Ormaetxea 2011; Unamuno & Aurrekoetxea 2013).

Ikerketa-lan honen helburuak, aditz morfologiari dagokionez, batetik, euskara estandarraren eragina Euskal Herriko hizkeretan norainokoa den ikertzea da eta, bestetik, hizkeren arteko berdintze-fenomenoaren abiada aztertzea. Horretarako, “Euskararen atlas sozio-geolinguistikoa” (Aurrekoetxea & Ormaetxea, 2006) oinarri, 95 herritako hiru belaunaldiren, adinekoaren (60-80), helduaren (45-55) eta gaztearen (18-28), azterketa egingo da.

Erreferentziak

- Ariztimuño, Borja, 2009, “Tolosako eta Ataungo hizkerak: hizkuntz bariazioa eta konbergentzia joerak”, *Uztaro* 72, 79-96.
- Auer, Peter, 1998, “Dialect levelling and standard varieties in Europe”, *Folia Linguistica* 32, 1-9.
- Aurrekoetxea, Gotzon, 2006, “Hizkuntza estandarraren eta dialektoen arteko bateratze joerak”. In J. Lakarra, eta J. I. Hualde (arg.), *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R. L. Trask, ASJU XL*, 133-160.
- Aurrekoetxea, Gotzon & Ormaetxea, Jose Luis, 2006, “Research project - “Socio-geolinguistic atlas of the Basque language”, *Euskalingua* 9, 157-163.
- Bellmann, Günter, 1998, “Between base dialect and standard language”, *Folia Linguistica* 32, 23-34.
- Cheshire, Jenny, Edwards, V. & Whittle, Peter, 1989, “Urban British dialect grammar: the question of dialect leveling”, *English World Wide*, 10, 185-225.
- Hinskens, Frans, 1998, “Dialect Levelling: A Two-dimensional Process”, *Folia Linguistica* 32 (1-2), 35-52.
- Kristensen, Kjeld & Thelander, Mats, 1984. “On dialect levelling in Denmark and Sweden”, *Folia Linguistica* 28(1/2), 223-246.
- Ormaetxea, Jose Luis, 2011, “Apparent time variation in Basque”, *Dialectologia* 6, 25-44.
- Santazilia, Ekaitz, 2009, “Luzaideko hizkuntz bariazioa”, *Fontes Linguae Vasconum* 111, 219-248.
- Unamuno Lorea & Aurrekoetxea, Gotzon, 2013, “Dialect levelling in the Basque Country” in N. S. Roberts & C. Childs (arg.), *Newcastle Working Papers in Linguistics* 19 (1), 152-167.

Garaziko hizkuntza-aldakortasun diafasikoa

Alex Artzelus (UPV/EHU)

Lan hau Garaziko hizkuntza-aldakortasunaren inguruan egiten gabiltzan doktorego tesiaren barruan kokatuta dago. Garazi Nafarroa Behereko ibarra da, Luzaide herriaren salbuespenarekin, hau, mugaz bestalde, Nafarroa Garaian baitago.

XX. mendearen bigarren erdian, aldaketa handiak ari dira jasaten euskal dialektoak. Alde batetik, Garazi ibarrari dagokionez, frantziar eta espainiar estatuen zentralizazioak eta hauen eraginpean garatu den bizi modernoak euskal hitzunen kopurua jaitea eragin du. Bestetik, euskara batuak eta regiolekto dei ditzakegun estandarraren eta *base dialect* delakoaren arteko aldaerek ere geroz eta pisu gehiago dute hizkera tradizionaletan (Bellmann, 1998: 23-24).

Honegatik guztiagatik, momentu egokia da XXI. mende hasiera hau, Garaziko euskara jasaten ari den aldaketa handia ikertzeko. Lan honetan, zehazki, bariazio diafasikoari eskainiko diogu arreta, norbanakoak bere hizkuntza identitatea proiektatzeko (Schilling-Estes, 2006 [2002]: 389; Hernandez-Campoy & Cutillas-Espinosa, 2012) eta zuzentzen zaien hitzunei moldatzeko erabiltzen duela kontuan hartuta (Bell, 1984). Erregistro informalaren eta formalaren arteko alderaketa egingo dugu, ezaugarri fonetiko-fonologikoetan eta morfologiko funtzionaletan oinarrituta. Horretarako, bi

¹ Hizkera bateko hitzun zaharrenek ekoizten duten edo erabiltzen duten corpusak osatzen du “oinarri dialektala” Bellmann-en hitzak (1998) geure eginez. Hitzun hauek osatuko lukete hizkera horri dagokion corpusik eta “puruena”, berezkoena. Beste modu batera esanda, euskalkiko edo hizkerako hitzak erabiltzea, orokorra diren edo estandarrekoak diren beste batzuen orde.

hiztunen mintzoa izango dugu ardatz. Hauek Garazi ibarreko Lasa herriko ama eta alaba dira. Alaba Irulegiko Irratiko esataria da urte askoan, eta amak, berriz, *Herria* aldizkarirako Lasako berriak idazten ditu. Ikertzaileak laguntasunezko harremana du biekin, eta haiekin izandako elkarrizketa informala alderatuko du, alde batetik, alabak astegunetan egiten duen irratsaio batean darabilen mintzoarekin (Cutillas-Espinosa & Hernández-Campoy-ren 2007ko lana oinarritzat hartuta), eta bestetik, amak *Herria* astekarian darabilen erregistro idatziarekin. Ikerketa-hipotesia da irratsaioetan eta erregistro idatzian agertuko direla euskara batuari edota “iparraldeko batua” deituko dugun regiolekoari dagozkion ezaugarriak indartsuen, eta beraz, Garaziko mintzo lokalari dagozkionak ahulen. Era berean, aztertutako ezaugarrietatik, Iparraldeko batu horren definitzaileak zein lirartekeen ikusi ahal izango dugu. Etorkizun laburrean, lan honen emaitzak, geografiaren, adinaren, generoaren eta hezkuntza-ereduaren arabera ikertutako aldakortasunarekin bat datozen ikusiko da.

Bibliografia

- Bell, A. (1984). Language style as audience design. *Language in Society*, 13, 145-204.
- Bellmann, G. (1998). Between Base Dialect and Standard Language, *FL*, 32/1-2, 23-34.
- Cutillas-Espinosa, J.A. & Hernández-Campoy, J.M. (2007). Script design in the media: radio talk norms behind a professional voice. *Language & Communication*, 27 (2), 127-152.
- Hernandez-Campoy, J.M. & Cutillas-Espinosa, J.A. (2012). Introduction: style-shifting revisited. J.M. Hernandez-Campoy and J.A. Cutillas-Espinosa (arg.), *Style-Shifting in Public: New perspectives on stylistic variation* (1-18 orr.). Amsterdam: John Benjamins Publishing Company.
- Schilling-Estes, N. (2006) [2002]. Investigating Stylistic Variation. J.K. Chambers, P. Trudgill, & N. Schilling-Estes (arg.), *The Handbook of Language Variation and Change* (526-549 orr.). Blackwell: Oxford.

WORKSHOP / SÉMINAIRE 9

«The study of the history of Basque can be an example to the study of other isolated languages» and we hadn't realised it? / « The study of the history of Basque can be an example to the study of other isolated languages » et nous, nous l'ignorions ?

Directors / Directeurs: Joseba A. Lakarra (UPV/EHU) & Céline Mounole (UPPA-IKER UMR 5478)

Euskal Gramatika Historikoaren ikerketa: 1970etik 2013ra eta aurrera

Joseba A. Lakarra (UPV/EHU)

Ezagun denez (cf. Haas 1969, etab.) bi arrazoi eta bide nagusi ditugu berreraiketa bat aldatzeko: 1) lekukotasunak gehituz edo 2) hurbilketa berri batez; (1)-en sartzen dira, funtsean, hizkuntza (a) edo aitzinhizkuntza (b) ahaide berriekiko erkaketa eta baita mailegu zaharren (jasoen nahiz emandako) azterketa (c). Hizkuntza isolatuen kasuan (a) eta (b) erabiliezinak ditugu eta horren froga garbia dugu egindako edozein “erkaketa” miaztean, ez baitugute eskuratzen ez AEren ezagutzan, ez ondoko bilakabidearenean inolako aurrerapenik.

2013ko 3. argitalpenean Lyle Campbell bere Historical Linguistics-i kapituluxka bat eranstean dio (“6.2.2. How can we advance knowledge of the history of language isolates?”) eta bertan —huavea, tarascana eta ainuaz ere erreferentziaren bat eman arren— zenbait adibideren bidez irakasten den horrelakoetan barneberreraiketak, lekukotasunen ikerketa filologikoak, onomastikak, dialektoen arteko konparaketak edo maileguen azterketak hizkuntza isolatuen azterketa diakronikoan duten egitekoa; bada, adibide guztiak euskalaritzaren lanetik hartuak dira, funtsean Mitxelenaren eta haren ondokoen lanetik. Hori da, beraz, liburu garrantzitsu honek Hong-Kong, Londres, Cape-Town edo Harvardeko ikasleei irakasten diena eta, seguruenan, irakatsiko ere oraindik beste zenbait urtez.²

Beharbada 1970eko datak ez dakarkio euskalari askori burura gertakari bereziki aipagarririk, Gramatika Historikoaren alorrean bederen. Zenbait filologiari, agian Mitxelenaren EFDazkue, nahiz izatez 5 urte lehenago funtsean amaitua izan. Guk, ordea, hitzaldi honen titulura bertara eraman badugu data hori ez da horregatik izan baizik eta egile berak urte berean argitaratu “Nombre y verbo en la etimología vasca”-atik. Lan honetan lehendabizikoz hain modu agerian, egileak ondare zaharreko hitz ilun zenbait aztertzen du horren bitartez hizkuntzaren geruza zaharragoetako gramatika eta lexikoa zirriborrotzen hasi nahiz.

Dakigunez, artean —eta Mitxelenaren *FHV* eta beste hainbat lan dugu erakusgarririk hoberena— berreraiketa funtsean maileguen azterketan oinarritzen zen, ez hainbat horien edertasunaren kantuan aritu beharrez, baizik eta hortik atera zukua ondare zaharrekoetan isurtzeko eta zabaltzeko. Horregatik izan ez balitz nekez izango genukeen 1957tik aurrera euskal hotsen sistema zaharraren ideia argi bat eta ezta *FHV*-rekin lortu hots horien bilakabide nagusia azaltzeko gailu hain bikaina.

² Lehenago ere autore berak pare bat artikulutan (2011n Gasteizen eta 2016koa Berkeleyn argitaratueta) espresuki markatzen du euskalaritzaren eredugarritasuna egiteko hauetan.

«The study of the history of Basque can be an example to the study of other isolated languages» and we hadn't realised it? / «The study of the history of Basque can be an example to the study of other isolated languages » et nous, nous l'ignorions ?

Alabaina, Mitxelena 1970ean mailegaketaren bidea agortzear ikusten du eta ondare zaharrarena urratu gabe, aldiz, metodo garaturen faltaz; hurrengo urte eta hamarkadetan eginbeharreko etimologia-lanetarako prestaketatzat har ditzakegu bai 1970eko hori eta baita hamarkada horretako beste zenbait (1971, 1977b, etab.) ere.

1970 geroztik GHak izandako urrats nagusiak aipatuko ditugu, tartean ondokoak:

- 1) Erkaketa genetikoak eta euskararen ezagutzaren aitzinamendu/gibelamendua;
- 2) Zer genekien 1987 aldera? Zergatik behar genuen beste paradigma bat? Ba ote zen Mitxelenaren paradigman zabaltzekorik?
- 3) Forma Kanonikoaren analisia berreraiketa berriaren oinarri: aitzindariak, oinarriak, lehen emaitzak. Ondorioak fonologian, morfologian, tipologian.
- 4) Gramatikalizazioa eta familia zaharrak berreraikiaz.
- 5) Beste hainbat gai: EBZ, monosil. > bisilab., aditza, determinazioa, “erkaketa zahar-berriak”...

Burushaski and Basque: How one case can help the other one

Jan Henrik Holst (University of Hamburg)

Basque is a language isolate, and a great question is whether it is related to other languages of the world. There are several possibilities for Basque:

- There may be no relatives at all; there is no need that a language has any.
- There may be relatives, but they may be too distant to be discovered, or at least so distant that a convincing argumentation is impossible.
- There may be demonstrable relatives - a fascinating option.

For another language, Burushaski, I have argued in two books, several talks and on other occasions that this problem can be solved and put forward the evidence. I would like to argue that this case can be learnt from for Basque.

Lyle Campbell writes: “The study of the history of Basque can be an example to the study of other isolated languages”. Of course, this applies also the other way round: the study of other languages, such as Burushaski, has something to contribute to Basque.

Regarding Basque, I would like to argue that it is crucial, for instance, to work on:

- Reconstruction of the proto-language by using the dialects
- Internal reconstruction (by evaluating morphophonemic alternations, etc.)
- Loanwords (without exaggeration, i.e. erroneously claiming loanword status)

Though much has been done on Basque here, still more is possible and necessary.

Furthermore, for those who would like to find relatives for Basque it is wise to become experts also on OTHER language families of the world. This holds because one needs material to compare with, and many other language families are in need of further study.

Burushaski is situated in the middle of a huge land mass. Basque, in contrast, has a geographic location of a different kind. For Basque, when looking for relatives one can only search into two directions: south (Africa), or east (since Europe is relatively monotonous, mostly: Asia).

I would like to explain these and other ideas in greater detail at the conference.

Zer dakarkio “Proto-Indo-European-euskerian” hipotesiak (aitzin)euskararen ezagutzari? Eneko Zuloaga (UPV/EHU), Borja Ariztimuño (UPV/EHU)

Euskal hizkuntzalaritzak aurrerapen nabarmenak egin ditu azken hamarkadetan, besteak beste barne-berreraiketaren esparruan hizkuntzalaritza historikoaren estandarrak aplikatuaz. Mitxelenaren aitzineuskararen berreraiketa (Mitxelena, 1961) zein silaba-egituraren azterketari jarraituta Lakarrak berreraikitako aitzineuskara zaharra (Lakarra, 1995, 2016) mugarri izan dira, eta euskararen inguruko

lana munduko beste hizkuntza isolatuen historiaurrearen ikerketarako eredugarri bihurtu dute (Campbell, 2011).

Jakina da euskara hizkuntza isolatua dena, bai eta azken bizpahiru mendeetan ahaideak aurkitzeko hainbat proposamen egin direla bai hurreko hizkuntzekin, bai urrunekoekin konparatuaz; aitzitik, proposamen horiek guztiek izan dituzte oinarritzko gabezia eta akats metodologikoak (cf. Trask 1995, 1997; Lakarra, 2018).

Aurkezpen honetan Juliette Blevins ikertzaileak berriki egin duen proposamena dugu aztergai; hots, ingelesez *Proto-Indo-European-Euskarian Hypothesis* izendaturikoa (Blevins, 2018). Horren arabera, euskara ez litzateke gehiago hizkuntza isolatua izango, indoeuropearekin lotua baizik; euskara ez letorke aitzinindoeuropeatik, baina hark eta aitzineuskarak omen dituzten antzekotasun fonologikoak eta kognatuak tarteko, hizkuntza ahaideak (ahizpak) izan litezke.

Gure ustez, lanak dituen oinarritzko gabeziek eta akatsek hondoratu egiten dute proposamena. Zehazki, eta euskarari dagokionez, Blevinsen berreraiketa-saiakerak lehenagoko hainbat saiotako akatsak errepikatzen ditu (cf. Blevins, 2007; Blust, 2015): besteak beste, benetan korrespondentzia ez direnak korrespondentziatzat jotzea (1), azalpen morfologiko okerrak egitea (2) edota material desegokiak erabiltzea, adibidez neologismoak (3) eta mailegu garbiak (4).

- (1) *amen* ‘mokadu’ < *ha-men (hain zuzen *ahomen*-etik datorrelarik)
- (2) *atson* < *ha-son, ageriko (*h*)ats on aukera aipatu ere egin gabe)
- (3) *idatzi* < *hi-dal-s-hi (neologismo ezaguna izanik)
- (4) *apeu*, *apego* < *ha-phego (baina cf. frantsesezko *appeau* eta gaskoierazko *apèu*).

Erreferentziak

- Blevins, J. 2007, “A long lost sister of Proto-Austronesian? Proto-Ongan, mother of Jarawa and Onge of the Andaman Islands”, *Oceanic Linguistics* 46:1, pp. 154-198.
- Blevins, J., 2018, *Advances in Proto-Basque reconstruction with evidence for the Proto-Indo-European-Euskarian hypothesis*, New York: Routledge.
- Blust, R. A., 2015, “Some recent proposals concerning the classification of the Austronesian languages”, *Oceanic Linguistics*, 53:2, pp. 300-391.
- Campbell, L., 2011, “La investigación histórica de las lenguas aisladas, o ¿es raro el vasco?”, in J. A. Lakarra, J. Gorrotxategi & B. Urgell (eds.), *2nd Conference of the Koldo Mitxelena Chair*, Vitoria-Gasteiz: University of the Basque Country (UPV/EHU).
- Lakarra, J. A., 1995, “Reconstructing the root in Pre-Proto-Basque”, in J. I. Hualde, J. A. Lakarra & R. L. Trask (eds.), *Towards a History of Basque Language*, John Benjamins: Amsterdam & Philadelphia, pp. 189-206.
- Lakarra, J. A., 2016, “Gramatikalizazioa, morfemen forma kanonikoak eta berreraiketa morfologikoaren bide berriak”, in G. Aurrekoetxea, J. M. Makazaga & P. Salaberri (eds.), *Txipi Ormaetxea omenduz. Hire bordatxoan*, University of the Basque Country (UPV/EHU): Leioa, pp. 175-192.
- Lakarra, J.A., 2018, “La prehistoria de la lengua vasca”, in J. Gorrotxategi, I. Igartua & J.A. Lakarra (eds.), *Historia de la lengua vasca*, Basque Government: Vitoria-Gasteiz, pp. 23-244.
- Mitxelena, K., 1961, *Fonética histórica vasca*, Gipuzkoako Foru Aldundia: Donostia/San Sebastián.
- Trask, R. L., 1995, “Origins and relatives of the Basque language: Review of the evidence”, in J. I. Hualde, J. A. Lakarra & R. L. Trask (eds.), *Towards a History of Basque Language*, John Benjamins: Amsterdam & Philadelphia, pp. 65-99.
- Trask, R. L., 1997, *The history of Basque*, Routledge: London.
- Urgell, B., 2000, *Larramendiren Hiztegi Hirukoitzaren osagaiak*, unpublished PhD dissertation (University of the Basque Country, UPV/EHU).

Hainbat partikula modalen iraganaz, oraina ulertzeko

Sergio Monforte (UPV/EHU)

Euskarak ebidentzialtasuna, epistemikotasuna edota polaritatezko galderak markatzeko partikulak ditu: *-a*, *al*, *abal*, *bide*, *ei*, *omen* eta *ote*. Tipologikoki desberdinak diren alemanak, italierak, japonierak eta

kitxuerak, besteak beste, ere badituzte horrelako partikulak. Ikuspuntu sinkronikotik aztertu dira gehienetan; euren jatorria gutxitan jorratu da (Cardinaletti 2015; Haegeman 2014). Oraingoan *ahal*, *omen* eta *ote* partikulak aztertuko ditut.

Hasteko, *ahal* partikularen jatorria argi dago, i.e. *ahal* aditz modala. Partikulak modalitate epistemikoa adierazten du eta modalitate deontikotik sintaxiak bereizten du: partikula klitiko bat da, adizki jokatuarekin batera mugitzen baita; esaterako:

1 Ez [ahal duk] gutiago beharrezkoa euskararen biltzea [~~ahal duk~~]!

2 Ez duk hori egiten ahal [~~duk~~]

Halaber, interpretazioa desberdina dute, beti oso argia ez den arren:

3 Egiten ahal duk (Duhau 2003).

Tu peux le faire.

Il est temps que tu le fasses !

Partikula hau, beraz, aditzetik eratorria dela proposatzen dut; hipotesi antzekoa tipologikoki aldarrikatu da, esaterako, japonierarako, italierarako eta mendebaleko flandrierarako. Analisi hau interesgarria da beste partikulekin loturak egin bailitezke; izan ere, Lakarrak (argitaragabe) proposatzen du *omen* eta *ote* partikulak ere aditzetatik eratoritzen direla. Honek partikulen kokapen eta izaera sintaktikoa azalduko luke: batetik, partikulen kokapena aditz lexiko batenarekin bat dator, i.e. adizki jokatuaren aurretik; bestetik, partikulak buru sintaktikoak dira, beste hizkuntza batzuetan, aldiz, adberbio ahultzat jotzen dira (Cardinaletti 2011; Coniglio 2008); azkenik, ekialdeko hizkeretan lekukotzen den jokabide ez-ohikoa errazago azaltzen da aditz-izaeratik abiatuta.

Bestalde, Lakarrak (argitaragabe) dio *ote* eta *omen* partikulen esanahia 'eman, iruditu'-tik abiatzen dela; hortik erator litezke Zubeldiak (2010) *omen*-i esleitutako adiera nagusia eta bigarrenkaria. Honek *ote*-k erabilera batzuetan duen kutsu ebidentziala ere azalduko luke:

4 Gaizki zegoela, baina momenturik txarrena pasa ote zuen.

5 Esan du geldituko ote den.

6 Samar bat irentsi ote dudan iruditzen zait.

Amaitzeko, *ahal*-ek eta *ote*-k bat egiten dute hainbat ezaugarritan: gertagarritasun-maila adierazten dute eta galdera erretorikoetan erabil daitezke. Beraz, ez litzateke harritzekoa euren eremu interpretatiboa gainezarri izana eta, ondorioz, *ote*-ren interpretazioa *ebidentzialtasuna* > *gertagarritasun-maila* > *barne-gogoeta* bilakatzera bortxatu izana. Izan ere, ekialdeko hizkeretan biak batera ager daitezke, izaera sintaktiko desberdina dutelarik:

7 Ez ahal duzu ote besterik egiteko?

Hau bat dator alemanezko *ja* eta *doch* banaketarekin; alegia, biek interpretazio antzekoa dute baina batera ager daitezke (Struckmeier 2014); horrelakoetan proposatzen da batek interpretazio bereizgarria hartu duela, gure kasuan *ote*-k.

Erreferentziak

- Cardinaletti, Anna. 2011. "German and Italian Modal Particles and Clause Structure." *The Linguistic Review* 28 (4): 493-531.
- Struckmeier, Volker. 2014. "Ja Doch Wohl C? Modal Particles in German as Co-related Elements." *Studia Linguistica* 68 (1): 16-48.

Ergatibitate erdibitua euskaraz: numero morfologikoaren ardatza Julen Manterola (Euskaltzaindia - UPPA)

Euskara ergatibitate erdibiturik gabeko hizkuntza gisa deskribatu ohi da (Trask 1979: 386): ez dago erdibitzerik ez denbora/aspaktuaren arabera ez eta izenaren izaera bizidun/bizigabearen arabera ere.

Aurkezpen honetan, argudiatuko dut euskara ergatibitate erdibituko hizkuntza gisa deskribatu behar dela. Erdibitze honen funtsa numero morfologikoan datza: pluraleko sintagmak alineazio

neutral baten arabera antolatzen dira, singularreko sintagma ere du argatibo bati segitzen dioten bitartean. Dixonen notazioan A-SO/ASO sistema litzateke hau (1994: 109).

1 Oinarriak eta datuak

1.1 Numeroaren kategoria euskaraz

Morfologikoki, numeroa artikulua definituen bitartez baizik ez da markatzen: *etxe* izenarekin singularreko artikulua (-*a*) eta pluraleko artikulua (-*ak*) konbinatuta, singularreko *etxea* eta pluraleko *etxeak* sintagma definituak ditugu; ez dago ingelesaren *houses* edo gaztelaniazko *casas* moduko sintagma plural ez-definiturik. Ergatiboan, singularreko (-*ak*) eta pluraleko (-*ek*) artikuluekin, berriz, singularreko *etxeak* eta pluraleko *etxeek* sintagma definituak ditugu euskara batuan.

Artikulu definituaren jatorri diakroniko diren erakusleetan ere markatzen da morfologikoki numeroa: urruneko erakusleetan, absolutiboko *hura* (< *ba* zaharretikoa) eta ergatiboko *hark* ditugu singularrean, eta pluralean ez dago formazko bereizketarik absolutiboaren eta ergatiboaren artean, bietan baitugu *haiak*; hau berau ekialde zabalean bizirik dirauen jatorrizko *hek* aldaeraren forma berregituratua dela argudia daiteke.

1.2 Deklinabide definituaren bilakaera diakronikoa

Beste hainbat hizkuntzatan bezala, euskaraz ere erakusleatik datoz artikulua. Honela dugu singularrean (ABS *ba*, ERG *ba(r)k*):

(a) ABS: *etxe ba* > *etxea*.

(b) ERG: *etxe ba(r)k* > *etxeak*.

Euskal dialekto guzietarako balio dute (a-b) adibideetan irudikaturikoen (Mitzelena 1961-1977: 213). Konplexuagoa da kontua pluralean: **hak* ez dago dokumentatua pluraleko erakusle gisa (ohar bedi ergatibo singularrarekiko homofonia), eta badugu *hek* ere, zeina ABS eta ERG izan daitekeen.

Mendebaldeko dialektoak:

(c) ABS/ERG: *etxe *hak* > ABS/ERG *etxeak*

Ekialdeko dialektoak (eta euskara batua):

(d) ABS: *etxe *hak* > ABS *etxeak*

(e) ERG: *etxe hek* > ERG *etxeek*

Erakusleei dagokienez, dialekto guztiek sistema bera partekatzen dute (adibideetarako urruneko erakusleak erabiltzen ditut soilik): singularrean, ABS *hura* eta ERG *hark* ditugu, eta pluralean ABS/ERG *hek* (eta *haiak* alomorfoa). Nabarmendu beharra dago, bestalde, ekialdeko zenbait euskalkik pluralean ere sistema ergatibo erabatekoa garatu dutela **garai historikoan** (ikus 2.2).

2 Analisia eta proposamena

Euskal ikasketetan indarrean den uste tradizionalaren arabera, onartu ohi da ekialdeko euskalkietako izenaren deklinabideak erakusten duela antzinako eta jatorrizko bereizketa erabatekoa ABS eta ERG artean (d-e), zeinetan funtzio gramatikal bakoitzak gauzatze morfologiko berezia duen (ABS plurala and ERG singularra homofonotzat hartu ohi dira):

ABS sing. *etxea* ABS pl. *etxeak*

ERG sing. *etxeak* ERG pl. *etxeek*

Horren aurka, proposatzen dut mendebaldeko eredu dela jatorrizkoa, pluralean ABS/ERG bereizketarik ez duena:

ABS sing. *etxea* ABS pl. *etxeak*

ERG sing. *etxeak* ERG pl. *etxeak*

Hau da nire argudio-bidea:

a) Erakusle sistemak ez du ABS/ERG bereizketarik pluralean.

b) Erakusleak daude deklinabide mugatuaren jatorri diakronikoaren oinarrian.

c) Hortaz, deklinabide mugatuak ez zuen ABS/ERG bereizketarik pluralean. Ekialdeko aldaerak berritzaile behar dute.

2.1 Ereditu ergatibo oso baten arabera erakusle sistema garatu da **garai historikoan** ekialdean

«The study of the history of Basque can be an example to the study of other isolated languages» and we hadn't realised it? / «The study of the history of Basque can be an example to the study of other isolated languages » et nous, nous l'ignorions ?

Nire proposamenaren aldeko froga ezin hobea da ekialdeko erakusleekin gertatu dena: deklinabide mugaturako proposatu dudana aldaketa bera gertatu da, baina garai historikoan eta gure begien aurrean. Zubereraz, ABS/ERG bereizketarik gabeko antzinako sistema batetik (xvi.-xvii. mendeak), sistema berri bat sortu da zeinetan ABS eta ERG pluraleko erakusleak morfologikoki ezberdinak diren: ABS/ERG *hek* forma bakar batetik abiatuta, azken hiru mendeotan ABS *hura^k* forma berria sortu da, ERG *hek* formarekiko funtziozko oposaketan; jatorrizko *hek*, beraz, espezializatu egin da (ERG funtzioan), *hura^k* berriak haren funtzioetako bat (ABS) hartu baitu.

Nire ustez, antzeko aldaketa bat gertatu ahal izan da izenaren deklinabide mugatuan, ezberdintasun batekin: aldaketa hori testurik gabeko garaian gertatu da.

2.2 -ak morfemaren auszia

Nire proposamenean, jatorri berekotzat hartzen dira ERG sing. *-ak* eta ABS/ERG pl. *-ak* homofonoak. Proposamen honek bitxi xamarra irudi baldin badu ere (singularreko eta pluraleko morfemek jatorri bera dutela proposatzen baita), bete-betean egokitzen zaio Silversteinen (1977) eta Smith-Starken (1974) orokortzeari: Silversteinen arabera, markatze ergatiboa biziduntasun eskalan eskuinen dauden izenekin erabiliko da, izen bizigabeekin; Smith-Starken arabera, berriz, pluralaren markatzea eskala horren beraren beste muturreko izenekin erabiliko da, izen bizidunekin. Horrenbestez, naturala baizik ez da *-ak* morfema hori banaketa osagarrian agertzea funtzioei dagokienez: singularrean, ergatiboa markatzeko erabiltzen da *-ak*; pluralean, berriz, pluraltasuna baizik ez du markatzen.

3 Laburpena eta etorkizuneko lan-lerroak

Aurkezpen honetan, nabarmendu nahi izan dut numero morfologikoa aintzat hartzea berebizikoa dela euskara ergatibitate erdibituko hizkuntza gisa deskribatzeko tenorean. Interesgarria litzateke ikustea ergatibitate erdibituaren analisi hau egokia den beste hizkuntza batzuetarako zeintzuetan antzeko datuak deskribatu diren (Fleck 2010).

Bibliografia

- Dixon, R.M.W. 1994. *Ergativity*. Cambridge University Press.
- Fleck, D. W. 2010. "Ergativity in the Mayoruna branch of the Panoan family". Gildea, S. & Queixalós, F. (ed.): *Ergativity in Amazonia, Typological Studies in Language* 89, 29-63. Amsterdam, Philadelphia: John Benjamins Publishing Company.
- Mitxelena, Koldo. 1961-1977. *Fonética histórica vasca*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Silverstein, M. 1977. "Hierarchy of features and ergativity". Dixon, R. M. W. (ed.): *Grammatical categories in Australian aboriginal languages*, 112-171. Camberra: Australian Institute of Aboriginal Studies.
- Smith-Stark, T. C.. 1974. "The plurality split", *Chicago Linguistic Society* 10, 657-661.
- Trask, R. L. 1979, "On the origins of ergativity". Plank, F. (ed.): *Ergativity. Towards a theory of grammatical relations*, 385-403. London, New York, Toronto, Sydney, San Francisco: Academic Press.

Argumentu egitura euskararen diakronian

Céline Mounole (UPPA-IKER UMR 5478)

Euskal testuak urriak eta hain aspaldikoak ez izanagatik, antzina aditzen argumentu egitura euskara modernoan ez bezalakoa zela iradokitzen dute. XV. eta XVI. mendeetako testuek erakusten digute, alde batetik, konfigurazioko aditzak gehiago zirela. Zehatzago, euskalki guztietan, bada aditz multzo bat, Lazard-en (1998) "helburu aditzen" multzo semantikoan daitezkeenak, hau da, «igorlea» absolutiboan eta «destinatzailea» datiboan markatzen dutenak: *behatu*, *burrustu*, *atxiki/eutsi*, *itsasi*, *jarraiki*, *lagundu*, *suplikatu*, besteak beste. Bestetik, Euskara Arkaikoan ugariago dira aditzak ere, experimentatzailea datiboan eta estimulua absolutiboan markatzen dituztenak: *ahantzi*, *galdu*, *laket izan*, e.a. (Mounole 2018). Alderantziz, konfigurazioak ez du gaur egun duen hedadura –nahiz eta ez den bakarrik aditz iragankor prototipikoetara mugatua– eta arraroa da.

Hitzaldi honetan, Euskara Arkaikoko aditz moten argazki zehatza eskaini ondoan, aitzineuskararen berreraiketarako pistak proposatuko dira. Aditzaren sintaxi zaharraren azterketak morfologiari buruzko oharrak egitera eramane gaitu.

Erreferentziak

Lazard. G. 1994. *L'actance*. Paris : Presses Universitaires de France.

Mounole. C. 2018. *Le verbe basque ancien : étude philologique et diachronique*. *ASJU* XLVIII. 516 p.